# TXOSTENA

## AURKIBIDEA

1.- SARRERA ..... 5
1.1.- Aurrekariak ..... 5
1.2.- Tramitazioa ..... 7
1.2.1. Aurrerakina ..... 7
1.2.2. Hasierako onespena ..... 9
1.2.3. Agiri honi sartu zaizkion aldaketak 2004ko urriaren 26ko udal osoko bilkuran hasieran onetsi zenarekin alderatuta ..... 10
1.2.4. Alegazioen emaitzetara egokitutako 01 dokumentua onartzea eta 2004ko urriaren 26an onartutako dokumentuarekin alderatuta, funtsezko aldaketak zekartzaten elementuak jendaurrean uztea eta Hasierako Onespena ematea. ..... 17
1.2.5. Behin-behineko onespena. ..... 17
1.2.6. Behin betiko onespenaren erabakia ..... 18
1.3.- Debabarrengo Lurralde Plan Partzialeko zehaztapenak bete izanaren justifikazioa ..... 25
1.4.- Ekainaren 30eko 17/94 Legea, etxebizitzaren arloan presako neurriak hartzekoa, bete izanaren justifikazioa. ..... 32
1.5.- 2006ko abenduaren 12ko Behin Betiko Onespenaren Akordioaren baldintzak betetzeari buruzko justifikazioa. ..... 34
1.6.- Plan Orokorraren premia ..... 49
1.7.- Plan Estrategikoa ..... 53
1.8.- Plan Estrategikoaren Diagnostikoa ..... 56
1.8.1. Kapituluaren ondorioak ..... 57
1.8.2. Hiri eredua. Eszenategiak ..... 60
1.8.3. Azken dokumentua ..... 62
2.- PLAN ESTRATEGIKOTIK ONDORIOZ DATOZEN EKINTZAK, PLAN OROKORRAREKIN LORTU BEHARREKO HELBURUAK MARKATZEN DITUZTENAK ..... 67
2.1.- 1. Lerro Estrategikoa: Eibarren Egitura Ekonomiko Produktiboa Eraldatu, Dibertsifikatu eta Modernizatzea. ..... 67
2.1.1. 1. helburua.- Kalitate oneko Lurzoru Industrialari buruzko Politika Aktiboa bultzatu ..... 68
2.1.2. 2. helburua.- Enpresen eta Industriaren Berrikuntza bultzatuko duten Zerbitzu Tekniko eta Teknologikoen azpiegitura garatu. ..... 69
2.1.3. 3. helburua.- Hiri eredu Berrira Egokitutako eta Industrien Bilbea Berritzeko balioko duten Jarduera Industrialak Indartu eta Finkatu. ..... 69
2.1.4. 4. Helburua: Merkataritza Bultzatzea Udalerrian, Eskaintza Hobetuz. ..... 70
2.2.- 2. Lerro Estrategikoa: Hiria Hirigintzaren Aldetik Berritzea, Eta Ingurunea Hobetzea Lortzea. ..... 70

2.2.1. 1. helburua.- Hiri Lurzorua Birsortzeko Eta Zaharkitutako Espazioak eta Eraikinak Eraberritzeko Politika Bultzatzea. ........ 70
2.2.2. 2. Helburua: Komunikazioko Azpiegitura Eta Garraio Zerbitzuak Hobetzea Hiri Barruan. ........ 73
2.2.3. 3. Helburua: Udalerriaren Erakargarritasuna Eta Kanpokoak Ongi Hartzeko Gaitasuna Hobetzeko Ekipamenduen eta Zerbitzuen Programak Garatzea. ........ 75
2.2.4. 4. Helburua: Udalerrian Ingurumenaren Hobekuntzak Egitea, Sistemaren Jasangarritasuna Bultzatuko Duten Politiken Eta Ekintzen Bidez. ........ 77
2.3.- 3. Lerro Estrategikoa: Hiriari Bizi Kalitate Handiagoa Ematea. ........ 78
2.3.1. 1. Helburua: Hiriko Azpiegitura, Ekipamendu Eta Zerbitzu Sozialak Garatzea, Egoerarik Okerrenean Dauden Taldeei Arreta Berezia Jarriz: Gazteak, Langabeak. ........ 79
2.3.2. 2. Helburua: Eibar Oinezkoentzako Hiri Egokiagoa eta Erakargarriagoa Izatea Lortzen, Pertsona Guztientzako Mugimendu Erraztasuna Bultzatuz. ........ 80
2.3.3. 3. Helburua: Hirian Azpiegitura Soziokulturalen, Aisiako Zerbitzu eta Jardueren Hobekuntza Kualifikatua Bultzatzea, Eskualdeko Hiriburu Izateari Dagokionez. ........ 81
3.- ESKUALDE ANALISIA ........ 84
4.- BIZTANLERIAREN EBOLUZIOAREN DIAGNOSTIKOA ETA EIBARREN EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK ........ 86
5.- HIRI ESPAZIOAREN ETA LURZORU ERABILEREN ANALISIA ........ 89
5.1.- Lurzoruaren erabilerak ........ 89
5.2.- Ondorioak ........ 90
6.- ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK ........ 92
6.1.- Lurralde Ikuspegia ........ 93
6.2.- Proiektuaren Marko Kontzeptuala ........ 94
6.3.- Esku-Hartzearen Helburuak ........ 96
6.3.1. Hiri Proiektuaren Eraikuntzako Helburuak ........ 96
7.- AUZOKAKO ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA PROPOSAMENAK ... 101
7.1.- Etxebizitza ........ 101
7.1.1. Sartu den planeamendua: Garatze Fasean dauden Sektoreak ........ 101
7.1.2. Lurzoru Urbanizagarria ........ 101
7.1.3. Erreformako eragiketak ........ 102
7.1.4. Jarduera puntualak ........ 104
7.2.- Ekonomia eta Produkzio Jarduera ........ 105
7.2.1. Industria ........ 105
7.2.2. Hirugarren sektorea ........ 105
7.3.- Landa Zonak ........ 106
7.3.1. Landa nukleoa ........ 107
7.3.2. Lurzoru Urbanizaezin Babestua ........ 107
7.3.3. Lurzoru ez urbanizagarria, Nekazaritza eta abelazkuntzakoa, landa eta lur landuak ........ 108
7.3.4. Baso-lurzoru Urbanizaezina ........ 108

7.4.- Komunikazio Sistemak ..... 108
7.4.1. Bide Sarea ..... 108
7.4.2. Aparkalekuak ..... 111
7.4.3. Motorrik Gabeko Garraioa ..... 113
7.4.4. Garraio Publikoa ..... 115
7.5.- Espazio Libreen Sistema ..... 116
7.6.- Komunitate Ekipamendua ..... 119
7.7.- Ibai Azpiegiturak ..... 120
7.7.1. Ego ibaia ..... 120
7.7.2. Errekak ..... 121
7.8.- Hiri Barruko Zerbitzuen Azpiegiturak ..... 121
7.8.1. Uraren Zikloa ..... 121
7.8.2. Elektrizitate Indarraren Hornidura ..... 122
7.8.3. Gas Hornidura ..... 122
7.8.4. Telekomunikazioak ..... 122
8.- AUZOKAKO ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA PROPOSAMENAK ..... 124
8.1.- Erdialdea (1) ..... 124
8.1.1. Untzaga (1.1) ..... 124
8.1.2. Isasi (1. 2) ..... 125
8.1.3. Zuloaga (1.3) ..... 125
8.1.4. Ardantza (1.4) ..... 126
8.2.- Errebala (2) ..... 126
8.2.1. Merkatua (2.1) ..... 126
8.2.2. Bidebarrieta (2.2) ..... 127
8.2.3. Arragueta (2.3) ..... 127
8.2.4. Estaziño (2.4) ..... 128
8.2.5. Arane (2.5) ..... 128
8.3.- Ipurua (3) ..... 129
8.3.1. Romualdo Galdos (3.1) ..... 130
8.3.2. Argatxako lorategiak (3.2) ..... 130
8.3.3. Ipurua (3.3) ..... 130
8.3.4. Egigurentarrena (3.4) ..... 131
8.3.5. J.A. Mogel (3.5) ..... 131
8.3.6. Paziano Arosa (3.6) ..... 131
8.4.- Legarre (4) ..... 132
8.5.- Urki (5) ..... 133
8.5.1. Portalea (5.1) ..... 133
8.5.2. Armagin (5.2) ..... 134
8.5.3. Urki (5.3) ..... 134
8.5.4. Unbe (5.6) ..... 134
8.6.- Jardiñeta (6) ..... 135
8.7.- Amaña (7) ..... 135

8.7.1. Tiburzio Anitua (I) (7.1) ... 136
8.7.2. Tiburzio Anitua (II) (7.2) ... 136
8.7.3. Artegieta (7.3) ... 137
8.7.4. Amaña (7.4) ... 137
8.8.- Otaola (8) ... 138
8.9.- Urkizu (9) ... 140
8.9.1. Urkizu (9.1) ... 140
8.9.2. Asua Erreka (9.2) ... 140
8.9.3. Karmen (9.3) ... 141
8.10.- Matsaria (10) ... 141
8.10.1. Matsaria I (10.1) ... 141
8.10.2. Matsaria II (10.2) ... 142
8.11.- Txonta (11) ... 143
8.11.1. Txonta (11.1) ... 143
8.11.2. Txonta II eta Txonta III (11.2 eta 11.3) ... 144
8.12.- Barrena (12) ... 144
8.12.1. Barrena I (12.1) ... 144
8.12.2. Barrena II (12.2) ... 145
8.13.- Azitain (13) ... 145
8.13.1. Azitain I (13.1) ... 145
8.13.2. Azitain II (13.2) ... 146
8.13.3. Murrategi (13.3) ... 146
8.14.- Apalategi (14) ... 146
8.15.- Sautxi ... 147
8.16.- Ibur-Erreka ... 147
8.17.- Lurzoru Urbanizaezina ... 147
8.17.1. Babes berezikoa ... 147
8.17.2. Ingurugiroaren hobekuntza ... 148
8.17.3. Baso lurra ... 148
8.17.4. Nekazaritzako, abelazkuntzako zona eta landazabala ... 148
8.17.5. Eremu higagarri ... 148
9.- PLANAREN GARAPENA ETA EGIKARITZEA ... 149
9.1.- Irizpide eta Helburu Orokorrak ... 149
9.2.- Lurzoruaren sailkapena ... 149
9.3.- Kalifikazio Orokorra Eta Xehekatua ... 150
9.4.- Plan Orokorraren garapena. Zuzenean Burutzeko Alorrak eta Garapen Planeamendua ... 151

# 1.- SARRERA

## 1.1.- Aurrekariak

Hiriek, enpresa eta erakunde askok bezala, aldian-aldian geldialdi bat egiten dute bidean, eta gogoeta egiten dute beren bilakaera historikoari buruz, iraganean zer izan diren baloratu eta etorkizunerako egokiena zer den aukeratzeko. Azkenaldi honetan, hirigintzazko garapena egituratuko duten dokumentuak landu beharrarekin bat etorri izan da, batez ere, gogoeta aldi hori.

Hirigintza Batzordean udalerriaren antolamendurako tresna berri bat formulatzen hasteko aukera izan zitekeela ikusten hasi ginenean, hainbat elementu aurkitu genituen, eztabaidaren gune-gunean zeudenak eta, aho batez, udalerriaren beraren arazo intrintseko bezala sumatzen edo ikusten zirenak:

- Jarduera berriak ezartzeko eta bizitegi berriak egiteko lurzorurik ez izatea.
- Egoera txarrenean dauden biztanleen premiei erantzun ahal izateko bizitegi berri egokiak egiteko lurzoru egokirik ez izatea.
- Erabilera industrialak, produktiboak eta bizitegizkoak tradizioz elkarren ondoz ondo egon izanetik sortutako arazoak.
- Arau Subsidiarioek berek ezarritako erabakiak aplikatu ahal izateko zailtasunak, askotan hiriaren errealitatearekin eta interes publikoekin bateraezinak gertatzen direlako.
- Arauetan aurrez ikusitakoaren garapen eskasa, oro har eta lurzoru mota guztietan, erakunde publikoen eskuz burututako jarduera etan izan ezik, batez ere.
- Biztanle galera etengabea eta iraunkorra.
- Enpresak pixkana-pixkana eta etengabe udalerritik eta eskualdetik kanpora aldatuz joatea.
- Udalerriak geografiaren eta lekuaren aldetik dituen mugak aitortzea.
- Eginkizun nagusi bezala, hiria eraberritzen hasteko premia dagoela aitortzea.

- Hirian bizi kalitatea hobetzeko ahalegin guztiak egiten hasteko konpromisoa, alderdi guztietatik begiratuta.

- Hiri barruan aisiarako espazio librerik ez izatea.

- Lurralde eta Sektore Antolamenduzko dokumentu guztietatik sortutako mugak eta loturak.

Horregatik guztiarengatik, eta eztabaida ugari izan ondoren, partaidetza handi batez “Plangintza Estrategikoa” deitu den horretan sakontzeko aukera emango zuen lan prozesu bati ekitea erabaki zen.

Prozesu horren haritik, 1995eko maiatzaren 4ko osoko bilkuran erabateko adostasunez onartu zen “Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra formulatzeko lanak idazteko eta aurkezteko programa, eta Planaren Udal Bulegoaren sorkuntza” izeneko dokumentua.

Dokumentu hori ordu arte planteatutako arazo guztien sintesia zen, eta Hirigintza Batzordeak prozesu guztiaren helburu nagusi bezala onartzen zituen oinarrizko printzipioak jasotzen zituen. Helburuok lortzea zen, azkenean, printzipio horien xedea:

- Hiria garatzeko eta berritzeko beharrezkoak diren inbertsio produktiboak erakartzeko gai izango den udal lehiakor bat lortzeko aukera, udalerri hau Debabarrengo Eskualdearen buru dela kontuan harturik.

- Herritarrek "hiri eskubidea" betetzeko aukera izango duten partaidetzazko udala izatera iristeko aukera izatea.

- Gustura bizitzeko eta giza maila egokiko udalerri bat lortzeko aukera, hiriaren eta lurraldearen kalitateari garrantzia emanez, eraikitako bilbean beharrezkoak diren jarduerak eginez eta industria zaharkituek eta eraikin hondatuek hartzen dituzten espazioak berreskuratu eta berriro erabiltzeko eragiketak eginez.

- Gaur egungo hiri ereduak sortzen dituen desberdintasunak eta bazterkuntzak zuzenduko dituen Udal solidarioago bat lortzea.

Ikuspegi honetatik begiratuta eta prozesu horretan batez ere hiriko agente guztien partaidetza azpimarratu beharko litzatekeela iritzita, Plan Estrategikoa egiten hasi ginen Plan Orokorra formulatzeko balio beharko luketen helburuak eta irizpideak definitzeko. Eskura genituen aukera, posibilitate eta baliabide urriak helbururik estrategikoenak lortzeko erabiltzen saiatzea zen metodologia honen helburua.

Beraz, agente sozialekin adostutako hiri eredua definitzea zen arazoa, hiria egituratu eta udal jarduerako plan desberdinei koherentzia emateko balioko zuen eredua definitzea, bide batez herritarrei *"hiri eskubidea"* egiaz baliatzeko aukera emanez.

Jakinik egin beharreko eraldakuntza eragiketak ugari eta kostu handikoak direla, eta baliabide ekonomikoak eta espazialak urriak direla, hasieratik bertatik erabaki zen, lehenik eta behin, garbi-garbi diseinatu beharko litzatekeela herritarrek beraiek Eibarko hirirako definitutako estrategia, hain zuzen ere ahalegin guztiak eta lurzoruaren zertarakoak eta jarduera publikoak efikaziaz optimizatu ahal izateko. Labur esanda, herritar, agente sozial, industrial, kolektibo sozial eta ordezkari publiko guztiek, modu koherentean, beren ahaleginak elkar ditzaten, inondik ere guztiz kritikoa den une honetan Eibarko hiriaren etorkizuna definitzera iristeko.

## 1.2.- Tramitazioa

### 1.2.1. Aurrerakina

Plan Estrategikoa behin betiko onartu eta hiri eredua hautatu ondoren, Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorraren Aurrerapenari zegokion agiria lantzeari ekin zitzaion, eta Eibarko Udalak 2000ko urriaren 5ean eginiko osoko bilkuran aho batez erabaki zen egindako lanak eta proposamenak jendaurrean erakustea.

Plan Nagusiaren edukia ezagutzera emateko eta hiritar gehienen parte-hartzea ahalbideratu asmoz, hainbat agiri argitaratu eta herritar guztien artean banatu ziren. HIRI PROIEKTUAREN osagari nagusiei buruzko argibide taulez osatutako jendaurreko erakusketa bat burutu zen, hasieran hilabete bitan jendeari irekia egon zena eta azkenean beste hilabete batez luzatu zena.

Aldi horretan ,hiriko auzo guztietan aurkezpenak egin ziren, herriko komunikabideetan (prentsan, irratian eta telebistan) iragarki laburrak tartekatu ziren eta jendaurreko eztabaidak egin ziren, talde politiko guztiek parte hartu zutelarik. Komunikazio ahalegin horren ondorioz herritar asko eta asko izan ziren gogotsu parte hartu zutenak, bai antolatu ziren ekitaldietara joanda nola ekarpenak eta iradokizunak eginda

Guztira, 134 iradokizun aurkeztu ziren, hainbat gizarte eragilek, hiritarrek eta alderdi politikok egindakoak. Iradokizun horiek proposamen batzuetan emandako irtenbide bereziak ukitzen zituzten, baina batek berak ere ez zuen zalantzan jartzen proposatutako hiri eredua.

Hirigintza Batzordearen barruan iradokizunen berri eman eta horietaz eztabaidatu ondoren, Plan Orokorraren Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorrak onartzea erabaki zen 2002ko uztailaren 8ko Osoko Bilkuran.

Plan Orokorraren Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorrak onartuz, aldaketa batzuk sartu ziren egitura orokor eta organikoari zegozkion gaietan, eta baita hasieran eginiko proposamen batzuen garapenari zegozkionetan ere.

Aurrerapenari zegokion Agiria jendaurrean aurkeztu zenetik, aurreratu egin da eginiko proposamen batzuen gauzatzea, gaur egun indarrean dauden Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen unean uneko aldaketak bideratuz.

2003ko irailaren 4ko aldizkari ofizialean argitaratu zen Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumen eraginaren ebaluazio azterketa osokoaren prozedura arautzen duenak, dioena betez, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterketa Osokoa (IEBAO) egin zen, Dekretu horren edukira eta horretan adierazten diren ezaugarrietara egokituz, Planeamenduaren Aurrerapenaren edukia aztertuz, alegia.

IEBAOa 183/2003 Dekretuak agintzen duen epearen barruan egon zen jenfaurean jarrita, eta epe horren barruan ez zen aurkeztu inolako alegaziorik.

Aldi berean IEBAOaren Aurrerapen dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri zitzaion, dagokion txostean aurkez zezan.

10-OF.30-MA/04 Foru Agindua, Ingurumen Eraginari buruzko Atariko Txostenarekin hartu ondoren, Memorian, Araudian edota Dokumentazio Grafikoan jaso behar ziren atal eta alderdiak sartuz osatu da dokumentua. Dokumentu honen Eranskin bezala Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen Organismoak emandako Atariko Txostena dakarren Foru Agindua hori jarri dugu.

Horren guztiaren ondorioz, Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorraren Hasierako Onarpenerako Agiri hau izapidetzen da, Plan Estrategikoaren bidez lortu nahi den hiri ereduari eta Eibarko Udalaren Udalbatzak onartutako Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorrei erantzunez, baita lortu nahi den hiri proiektuarekin bateragarriak ziren Arau Ordezkatzaileen osagaiak gehituz ere.

### 1.2.2. Hasierako onespena

Udalbatzak, 2004ko urriaren 26ko bilkuran, dokumentua hasieran onesteko erabakia hartu eta jendaurrean jarri zuen. Ondoren, 2004ko azaroaren 22ko bilkuran, hasieran onesteko erabakiari UAI 31 Txaltxakua unitateari buruzko agindua barneratu zen.

Laburbilduz, hasieran onesteko erabakian, aurkeztutako dokumentuari egin zitzaizkion zenbait aldaketaren barneratu ziren:

- Arau Subsidiarioetan UAR-23 Arrate Bide unitaterako aurreikusita zegoen antolamendua finkatu egin zen eta indarrik gabe utzi ziren, berriz, AR 111 eta UE 111.01 unitateetarako aginduak.
- Arau Subsidiarioetan UAI-31 Txaltxakua unitaterako aurreikusita zegoen antolamendua finkatu egin zen eta indarrik gabe utzi ziren, berriz, Plan Orokorrean UE 206.01 eta UE 204.01 unitateetarako ezarritako aginduak.
- Plan Orokorrari Arau Subsidioek jarraian aipatzen diren eremuen inguruan jasotzen dituzten zehaztapenak gehitu zitzaizkion:
  - UAR 6 Lopezenengua,
  - UAR 17 eta 18 Muzategi – Indianokua
  - UAR 19 Ardantza
  - UAR 23 Arrate Bide
  - UAR 27 Isasi Barren
  - UAR 28 Makaskua A
  - UAR 41 Makaskua B
  - UAR 43 Arane – Asua Erreka
  - UAR 44 Alfa – San Andres
  - UAR 45 Asola Igartza

- UAR 46 Urki Kurutzekua
- SAPUR 2 sektorea (Saratsuegi) Sautxi
- H eremua, Txirio Kale
- SAPUI 3 sektorea Matsaribarren
- SAPUI 5 Ibur Erreka
- SAPUI 8 Erisono

Udalbatzak 2004ko urriaren 26an hartutako erabakia 2004ko azaroaren 8ko GAOean, 214. zk., argitaratu zen eta 2004ko azaroaren 22ko erabakia, berriz, 2004ko abenduaren 3koan, 233. zk. Bi erabakiak jendaurrean egon ziren bi hilabetez.

Era berean, iragarkia 2004ko urriaren 31ko "El Correo" eta "Berria" egunkarietan argitaratu zen.

Jendaurreko erakustaldia amaituta, partikular, enpresa nahiz talde politikoen aldetik 121 alegazio aurkeztu ziren horretarako ezarritako epearen barruan.

121 alegazio horietatik gehienek hasieran onetsitako plan orokorraren eremu edo elementu ezberdinetan eragina duten zenbait atal dituzte, alegazio-idazkia bakarra izan arren.

Alegazioen edukia aztertu ondoren eta kontuan izanik, horietako batzuk onartuz gero, hasieran onetsitako dokumentuan funtsezko aldaketak egin beharko direla, aipatutako alegazioek egitura orokor eta organikoan, lurzoruaren sailkapenean, zenbait eremutarako aurreikusitako aprobetxamenduan eta/edo jarduketa-programan eragina dutelako, jendaurreko beste erakustaldi bat behar duten eremu guztiak berriz ere hasieran onestea erabaki zen.

### 1.2.3. Agiri honi sartu zaizkion aldaketak 2004ko urriaren 26ko udal osoko bilkuran hasieran onetsi zenarekin alderatuta

2004ko urriaren 26ko osoko bilkuran hasieran onetsi zen agiriaren aurka egindako alegazioak aztertu ondoren, agirian aldaketak egitera behartu duten zenbait erabaki hartu ziren, eta erabakiok ondoren damaizkigun aldaketak ekarri zituzten:

# 1. PLAN NAGUSIAREN AGIRIAK ANTOLATZEN EZ DITUEN BANAKETA ARTEAK ETA EGIKARITZE UNITATEAK

**BIZITEGIETARAKO HIRI LURZORUKO EGIKARITZE UNITATEAK**

| KODEA | IZENDAPENA | AZALERA (m²s) |
|---|---|---|
| Sunc UE 101 | 01 AMAÑA 3-5 | 292 |
| Sunc UE 102 | 01 AMAÑA 11-13-15 | 751 |
| Sunc UE 103 | 01 AMAÑA 19-21 | 403 |
| Sunc UE 104 | 01 AMAÑA 20-22 | 524 |
| Sunc UE 110 | 01 EGO GAIN - ISASI | 1.405 |
| Sunc UE 111 | 01 LEGARRE | 2.714 |
| Sunc PE 113 | 01 EGIGUREN-TARRENEKO PLAN BEREZIA | 7.399 |
| Sunc UE 114 | 01 UBITXA 2 | 1.334 |
| Sunc UE 118 | 01 PAGAEGI 2-4-6 | 974 |
| Sunc UE 118 | 02 ESTAZIÑO 7b - 7c | 765 |
| Sunc UE 118 | 03 ESTAZIÑO 15 | 1.144 |
| Sunc UE 123 | 01 POLONIA ETXEBERRIA 4-6 | 1.698 |
| Sunc UE 127 | 01 ARANE 1 | 3.713 |
| Sunc UE 128 | 01 PAZIANO AROSA 12 | 396 |
| Sunc UE 132 | 01 ARRAGÜETA 9-11 | 726 |
| Sunc UE 133 | 01 ARRAGÜETA 13-15 | 367 |
| Sunc UE 134 | 01 ARRAGÜETA 17-19-21 | 1.031 |
| Sunc UE 137 | 01 BARRENA 34 | 1.152 |
| Sunc UE 138 | 01 BARRENA 1-3-5 | 8.209 |
| Sunc UE 138 | 02 BARRENA 7-9-11 | 8.280 |
| Sunc UE 138 | 03 BARRENA 13-15-17-19 | 6.970 |

**HIRI LURZORU INDUSTRIALEKO EGIKARITZE UNITATEAK**

| KODEA | IZENDAPENA | AZALERA (m²s) |
|---|---|---|
| Sunc UE 201 | 01 ARANE (AR1) | 1.851 |
| Sunc UE 202 | 01 OTAOLA-01 (OT1) | 1.364 |
| Sunc UE 204 | 01 OTAOLA-03 (OT3) | 3.384 |
| Sunc UE 205 | 01 OTAOLA S/N1 - S/N2 | 3.701 |
| Sunc UE 206 | 01 OTAOLA-05 (OT5) | 1.880 |

## 2. HIRI LURZORUKO ALDAKETAK

Sc1C20101 Txonta sektorea sailkapen honetatik kanpo utzi zen, horren erabilera nagusiena jarduera ekonomikoena baitzen.

Bestalde, Sc1C10201 Egazelai eta Sc1C10201 Bolingua sektoreak programatu ziren, lehendik programatu gabe eta hirigintzako jarduketa-programen bidez gartuta baitzeuden; eta 10101 Arrajola HPJ programatik kanpo utzi zen, 2. laurtekoaren barruan Sc2C10101 Arrajola sektore modura programatu zena.

Erisono sektoreari 83.403 m2 gehiago eman zitzaizkion.

## 3. HIRI LURZORUKO BANAKETA AREA ETA EGIKARITZE UNITATE BERRIAK

Beste banaketa-area batzuk mugatu ziren.

**BANAKETA AREAK**

| KODEA | IZENDAPENA | AZALERA (m²s) | APROB.TIPOA At (m2 kop., ohiko erab.m$^2$c-ko ) | OHIKO ERABILERA |
|---|---|---|---|---|
| Sunc AR 132 | ARRAGÜETA 9-11-13-15-17-19-21-23 | 2.125 | 2,93 | Etxebizitza librea |
| Sunc AR 137 | ERREBAL | 5.005 | 2,94 | Tertziarioa |
| Sunc AR 139 | MEKOLA 4 | 2.430 | 0,84 | Etxebizitza librea |
| Sunc AR 140 | AZITAIN BIDE 2B | 6.005 | 1,99 | BOE etxebizitza |
| Sunc AR 141 | JARDIÑETA 34 | 662 | 5,56 | Etxebizitza librea |

132. banaketa-area salbu utzita (bertan ez zen egikaritza-unitaterik mugatu), mugatutako egikaritza-unitate berriak hauek izan ziren:

| BIZITEGIETARAKO HIRI LURZORUKO EGIKARITZE UNITATEAK | | |
|---|---|---|
| **KODEA** | **IZENDAPENA** | **AZALERA (m²s)** |
| Sunc UE 137 01 | ERREBAL | 5.005 |
| Sunc UE 139 01 | MEKOLA 4 | 2.430 |
| Sunc UE 140 01 | AZITAIN BIDE 2B | 6.005 |
| Sunc UE 141 01 | JARDIÑETA 34 | 662 |

## 4. BIDALITAKO PLANGINTZAKO EREMUAK

Antolamendu-irizpidea aldatu da eta, horren arabera, Plan Berezi bidez garatu beharko dira honako eremu hauek:

| BIZITEGIETARAKO HIRI LURZORUKO EGIKARITZE UNITATEAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| KODEA | | | IZENDAPENA | AZALERA (m²s) |
| Gghlc | PB | 117 | BLAS ETXEBARRIA 3 | 3.783 |
| Gghl | PB | 118 | ESTAZINOKO PLAN BEREZIA | 2.873 |
| Gghl | PB | 125 | TXONTAKO PLAN BEREZIA | 140.601 |

Bestalde, antolamendu xehatua ere sartu zen; horren ildotik, xehetasun-estudioaren edo azterlanaren bidez garatu ahal izango dira honako eremu hauek:

| BIZITEGIETARAKO HIRI LURZORUKO EGIKARITZE UNITATEAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| KODEA | | | | IZENDAPENA | AZALERA (m²s) |
| Gghl | EU | 124 | 01 | ERREKATXU | 9.883 |

## 5. EGITURA NAGUSIAREN ETA ORGANIKOAREN GAINERAKO ERAGINAK

Saihesbidearen 3. faseko trazadura edo ibilbidea aldatu egin zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako trazadura-proiektuari egokitu zaio.

Espazio Libreen Sistema Orokorra 3.414.285 m² izatetik 3.384.272 m2 izatera igaro zen, beraz murriztu egin zen saihesbidearen trazadura edo ibilbide berriaren ondorioz.

Ekipamenduen Sistema ere aldatu egin zen merkatuari edo plaza merkatuari zegokionez; horrela aisiako jarduerak, jatetxeak eta elikadura eskaintza bere baitan batuko zituen merkataritza-gunea jartzea ahalbidetzeko.

Lantegi-eskolari dagokion hornidura ezabatu zen eta Matsaria sektorea garatu ondoren han sortutako hornidurazko partzeletan kokatzea planteatu zen.

Administrazio-izaerako hornidura berria barneratu zen; guardia zibilaren kuartelaren instalazioetan kokatu ahal izango litzatekeena.

## 6. KULTURA ONDAREAREN KATALOGOAREN GAINEKO ERAGINAK

Jarraian aipatzen diren elementuak Kultura Ondarearen Katalogotik kanpo utzi ziren:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| AZITAIN BIDEA | 2A-Bv,5402 | LANTEGI-ESKOLA | ESCUELA TALLER | C-11 |
| BIDEBARRIETA KALEA | 39,4301 | BIZITZA-ETXEA | CASA DE VECINDAD | C-16 |
| IBARGAIN KALEA | 10,4408 | IBAR-GAIN BASERRIA | CASERIO IBAR-GAIN | C-22 |
| ISASI KALEA | 32,1103 | ISASI-GAIN | ISASI-GAIN | C-26 |
| MEKOLA | 4,1405 | ETXEBIZITZA FAMILIBAKARRA | VIVIENDA UNIFAMILIAR | C-39 |

Ondoko elementu hauei babes-maila aldatu zitzaien:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARRATE BALLE | 21-22-23,5502 | KUTUNEGIETA BASERRI-MULTZOA | CONJUNTO CASERIOS KUTUNEGIETA | B-6 |

Horiek Babes Bereziko A mailan barneratu ziren, Monumentu Multzo deklaratu baitira.

## 7. HIRIGINTZAKO ARAUEN ARTIKULUETAKO ALDAKETAK

Aldaketa txiki batzuk egin ziren honako artikulu hauetan:

| ARTIKULUA | ALDAKETA |
|---|---|
| 1.1.01 art. | Behin betiko onetsi zen LPP aipatu da. |
| 3.3.05.04 art. | Karga errealen erregistroa izatea nahitaezkoa izan ordez, aukerakoa izango da. |
| 3.3.05.08 art. | Atal hau arautzen duten lurzoruaren legeriko artikuluaren aipamena zuzendu da. |
| 4.1.08.01 art. | Eremuen garapenerako aurreikusitako jarduketa-sistemak orientagarriak direla adierazi da. |

| ARTIKULUA | ALDAKETA |
|---|---|
| 4.1.08.02 art. | Berdinbanaketa eta urbanizazioko betebeharrrak betetzeko ematen den epea ezabatu da. |
| 4.1.13 art. | Plan Nagusian aipatzen den etxebizitzak zenbatzeko formula zehaztu da. |
| 4.2.04.04 art. | Planean aurreikusitako sektoreei egokituta dagoen taula zuzendu da. |
| 4.2.05.01 art. | Artikuluaren tituluan antzemandako akatsa zuzendu da eta edukia Planaren zehaztapen berriei egokitu zaie. |
| 4.2.05.06 art. | Artikuluaren edukia Planaren zehaztapen berriei egokitu zaie. |
| 4.3.01.03 art. | Lurzoru urbanizaezinean ezarritako kategoria-kopuruaren inguruan antzemandako akats materiala zuzendu da. |
| 4.3.02.01.01.02 art. | LPParen arautegiari egokitutako zehaztapena barneratu da. |
| 8.3.03.05 art. | Lurpeko instalazioa kableen eta sareko gainerako elementuen instalazioei dagokiela zehaztu da, horiek lurpean jar baitaitezke. |
| 8.3.06.03 art. | Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen zorupean hirugarren sektoreko jarduerak garatzeko aukera ematen da. |
| 8.3.07.02.02.01 art. | Beheko solairuan komunikazio- eta zerbitzu-azpiegiturekin erlazionatutako elementu puntualak kokatzeko aukera ematen da, adibidez, transformazio-zentroak.<br>Lehen solairuan hirugarren sektoreko jarduerak eta erabilerak jartzeko aukera eman da. |
| 8.3.07.03.01 art. | Beheko solairuan etxebizitzak jartzeko aukera zehaztu da. |
| 8.3.07.03.02 art. | Etxebizitza gisa erabili ahal izateko zenbait lokal berregituratzearen inguruko alderdi batzuk zehaztu dira. |

| ARTIKULUA | ALDAKETA |
|---|---|
| 8.3.10.04 art. | Etxebizitzetarako aparkalekuen gutxieneko zuzkidura gehitu da, 1,5 plazara etxebizitzako. |
| 9.3.12.07.05 art. | Estalkipeko solairuan etxebizitzak jarri ahal izateko aldatu da artikulua; etxebizitza horiek ez dira azpiko solairuetako etxebizitzei lotuta egongo. |
| 9.4.03.03 art. | Gutxieneko etxebizitzaren baldintzak aldatu dira eta babes ofizialekoei dagozkienak ezarri dira. |
| 9.4.03.04 art. | Sukaldearen eta sareek duten eragin-eremuaren gutxieneko neurriak zehaztu dira. |
| 11.9.01.04.03 art. | Batzordearen bileren maiztasuna aldatu da eta landu beharreko gairen bat dagoen bakoitzean egingo direla adierazi. |

## 8. MEMORIAKO ETA AZTERLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOKO ALDAKETAK

Agiri bi horiek izapidetze-gasean den Plan Nagusiko aginduekin bat etorri daitezen aldatu ziren. Ordena horretan, Memorian, bi atal berri barneratu ziren. Lehenengoaren arabera, Plan Nagusiak nahitaez bete behar ditu ekainaren 30eko 17/1994 Legeak ematen dituen zehaztapenak; alegia, Planak justifikatu egin behar duela lurzoruen kalifikazioa, babes ofizialeko etxebizitzaren estandarra betetzeko (Lege horrek etxebizitzarekin eta hirigintzako plangintza eta kudeaketako tresnak izapidetzearekin erlazionatutako neurriak ezartzen ditu). Bigarren atalak, agiri honen bidez Beheko Solairuaren Lurralde Plan Partzialeko zehaztapenak betetzen direla justifikatzea zuen helburu Plan hori orain dela gutxi sartu baitzenindarrean, apirilaren 12ko 86/2005 Dekretuaren bidez behin betiko onetsi ondoren

Azterlan Ekonomikoari dagokionez, horren aginduak egindako aldaketetara egokitu ziren; aurreko ataletan jasota geratu zirenak.

### 1.2.4. Alegazioen emaitzetara egokitutako 01 dokumentua onartzea eta 2004ko urriaren 26an onartutako dokumentuarekin alderatuta, funtsezko aldaketak zekartzaten elementuak jendaurrean uztea eta Hasierako Onespena ematea.

Udalbatzak, 2005eko abenduaren 19an egindako udal osoko bilkuran, "Alegazioen emaitzetara egokitutako 01 dokumentua"ri onespena eman zion. eta 2004ko urriaren 26an hasiera batez onartu zen dokumentuarekin alderatuz gero aldaketa sakonak zituzten esparruei eta elementuei hasierako onespena ematea eta jendaurrean uztea erabaki zen.Gero, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, dokumentu horri egin zitzaion Zuzenketa Eranskina onartu zen, Otaola EU-205.01 egikaritza unitatearen xehetasunak jasotzen dituena.

Abenduaren 19ko udalbatzaren erabakia 2006ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu zen, 11. alean; baita 2006ko urtarrilaren 19ko "El Correo" eta "Berria" egunkarietan ere, jendearen aurrean uzteko hilabete bateko epea emanda.

2006ko otsailaren 27ko udalbatzaren erabakia 2006ko martxoaren 17ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu zen, 45. alean; baita 2006ko martxoaren 9ko "El Correo" eta "Berria" egunkarietan ere, eta aurrekoan bezala, jendearen aurrean uzteko hilabete bateko epea eman zen.

Jendaurrean edukitzeko epea amaitu ondoren, guztira 44 alegazio aurkeztu ziren, partikularrek, enpresek eta talde politikoek aurkeztutakoak.

Alegazioen edukia aztertu ondoren, Aldi Baterako Onespena emateko dokumentua osatu da, alegazioen ondorioz sortu ziren zuzenketak sartuta.

### 1.2.5. Behin-behineko onespena.

Udalbatzak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Plan Nagusiaren dokumentuari behin-behineko onespena emateko erabakia hartu zuen, aurkeztutako alegazio batzuei erabateko baietza edo neurri bateko baietza eman ondoren sortutako aldaketak eta doiketak eta baita Bide Azpiegituretarako Departamentuaren txostenean ezarritako baldintzak ere sartu ondoren.

Espedientea, 2006ko ekainaren 16an sartu zen Gipuzkoako Foru Aldundian behin betiko onespena eman ziezaion.

### 1.2.6. Behin betiko onespenaren erabakia

Behin betiko onespenerako bete bide prozesuaren barruan, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2006ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eusko Jaurlaritzan, garraio, etxebizitza, ur eta kultura-ondarearen arloetan eskumena duten Sailek dokumentuaren alde egindako txostenak gehituta, espedientearen aldeko txostena emateko erabakia hartu zuen, dokumentua, indarrean dagoen Lurralde Plangintzara, eta ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintza Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrera egokitzeko hainbat zuzenketa sartzeko premia zegoela azpimarratuta.

Modu osagarrian, errepide eta garapen iraunkorraren alorrean eskumena duten Foru Departamentuek euren nahitaezko txostenak egin zituzten Ingurumenarekiko Eraginari zegokion behin betiko txostena barne.

Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Nagusiari, behin-behineko onespenaren udal erabakiak zekarrenari, behin betiko onespena emateko erabakia hartu zuen baldintza batzuk jarrita.

Erabakiaren testu osoak, xedapenari dagokion atalean, hauxe dio hitzez hitz:

*Lehenengo: Behin betiko onartzea «Eibarko Hiri Antolaketako Udal Plan Orokorra», behin-behineko onarpenerako udal erabakian aurreikusitako baldintzetan.*

*Behin betiko onarpenak honako baldintzak izango ditu:*

*1. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.*

*- Afektaturik eta arau baliorik gabe geratuko dira hirigintzako agiri honetan jasota dauden eta edukiaz Lege berriaren Xedapen Iragankorretan adierazitako aplikazio zuzeneko arauei egokitzen ez zaizkien xedapen guztiak.*

*- Behin betiko onarpen honek ez ditu inola ere hartzen legez ezarritako gehienezkoa (2,3 m²s/m²l) gainditzen duten Plan Orokorrean jasotako eraikigarritasunak.*

*2. Ibai eta erreka bazterrak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoarekin bat, honako zehaztapenak hartuko dira kontuan:*

*a) Kalifikazioan ongi kontserbatutako landaretzaz hornitutako ertz gisa jasotakoetan (Zaturio errekaren eskuineko ertza, Elgoibarrekiko mugan, eta Azitain errekaren burualdea), ibaiertzeko landaretza-zerrendaren kanpo ertzetik 10,00 metroko atzeraemangune bat errespetatu beharra ezarri beharko da. Atzeraemangune hori berezko lur eremuaren alterazioa dakarren esku-hartze orotan aplikatuko da, Lurraldearen Arloko Planean ezarritako baldintzetan betiere.*

*b) Dagoeneko onartuta dauden antolaketen bidez garatu beharreko eremuetan, hots, Plan Orokor honi eransten zaizkionetan (Matsaria, Azitain, Iburerreka, etab.) aurreikusitako beste jarduerei dagokienez, horien baloraziorako onarpen izapidean Ur Zuzendaritzak egindako baloraziora joko da.*

*c) Guztira 1 km2tik beherako arro-eremua duten ibilguei eragiten dieten esku-hartze programatuen ondorioz (Erisonoko industri eremu berria) uraren jabariari eragiten zaizkion afekzioei dagokienez, horien baloraziorako Ur Legean ezarritakora eta Lurraldearen Alorreko Planean ur arloko jarduerei buruz ezarritako araudi espezifikoak adierazitakora joko da.*

*3. Trenbide sarea.*

*Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak emandako txostenean adierazten delarik Planean jasotzen den saihesbidea eta hirigunean trenbide trafikoa kentzea, agirian jasota dagoen moduan, ez direla lotesleak Garraio eta Herrilan Sailarentzat, eta kontuan harturik Sail horren egungo aurreikuspenen artean dagoela Euskotrenen egungo linearen trazatuari eustea, kendu egin beharko zen planeamendu orokorrean trazatu berriari buruz egiten den proposamena.*

*4. Errepideak.*

*- Planean adierazi egin behar da ezen Lea-Artibai eskualdearekiko lotura bakar-bakarrik etorkizuneko esku-hartze programatu gabeko baterako asmo-adierazpen gisa har daitekeela.*

*- Saihesbideak, Arrajola eremutik igarotzeko zatian, oso-osorik islatu behar du sistema orokorraren zerrenda, eta horregatik planean jaso egin behar da bide berriaren zabalgune osoa, herri jabariko bere zonarekin batera, jendaurrean jarritako Proiektuan adierazitakoarekin bat.*

*5. Lurzoru hiritarrezina.*

*- Plan Orokorrak jaso egin beharko ditu Debabarreneko Lurralde Plan Partzialak hainbat eremuri ematen dizkien mugak eta babes erregimena; eremu horiek «Ingurune fisikoaren antolaketa. Babestu eta hobetu beharreko garrantzi bereziko eremuak» 01 Planoak ezarritakoak dira, hala nola honakoak:*

*a) Babestu beharreko areak.*

*— Natura intereseko areak eta beste gune interesgarri batzuk: Arrateko parkea eta Urko-Usartzako Parkea.*

*- Zuhaitz bereziak: Eibarko artea.*

*b) Hobetu edota leheneratu beharreko areak.*

*- Geografi kokapen berezia duten berezko zuhaiztiak, Lurralde Plan Partzialean bereiziak.*

*- Kendu egin beharko da «Lurzoru Hiritarrezin Arrunta» kategoria; hemen sartutako azpikategoriak (Basokoa eta Abelazkuntza-Nekazaritzako Zona eta Landa) antolaketako kategoria bihurtuko dira.*

*- Uholdea izan dezaketen eremuak mugatu beharko dira, eta hauek, higadura jasan dezaketenekin batera, antolaketa kategoriei gainjarritako baldintzatzat hartu beharko dira; halaz, proposatutako antolaketak onartzen dituen jarduketek eragin ditzaketen arriskuak saihesteko beharrezko muga osagarriak ezarri beharko dira.*

*- Higadura jasan dezaketen edo higatzeko arriskuan dauden areetan, ahalegina egingo da lur-erauzketarik ez egiteko, lur gaineko eta lur gainaren azpitiko drainatze sareak ez aldarazteko, eta landaretza ez dadin desager; era berean, soildutako eremuak atzera zuhaitzez osatzea bultzatuko da, abeltzaintza erabilera aipatu helburuaren mendean jarriz betiere.*

*- Area hauetako basogintza jarduerek babes-basoak finkatzera joko dute, hain zuzen baliabide edafikoak bermatzearren hazkunde ertain edo moteleko zuhaitzak aldatuz, garbitze lan estentsiboak eta lur-mugimenduak ahalik eta gehien murriztuz, eskuz egindako landaketari lehentasuna emanez mekanizatuaren aurretik, eta mozte metodo progresiboak bultzatuz, esaterako baso-soilketara jo beharrean bakanketak edo segidako entresakak eginez, betiere derrigorrezko baimenetan agintari eskumendunek ezartzen dutenaren kaltetan izan gabe.*

*- Gogoeta bat egin beharko da, natura intereseko eremuetan nekazaritza erabilera arautzearen inguruan gertatzen den itxurazko inkongruentziari buruz; izan ere, horietan onargarritzat jotzen da egungo nekazaritza erabilera, baina paisaia-aisia intereseko eremuetan erabilera hori galarazita dago. Kontuan harturik aipatutako eremuetako lehenean sartzen direla ongi kontserbatutako bertako basoak, eta bigarrenean, berriz, Lurzoru Hiritarrezineko Espazio Libre eta Jolas Areetarako eremuak, baserri batzuk barne, egokiagoa izan daiteke erabilera hori galarazita egotea natura intereseko eremuetan, eta onargarri jotzea paisaia eta aisia edo jolas intereseko areetan dagoena.*

*- Paisaia eta jolas intereseko areen antolaketa berrikusi egin behar da; horretarako, Arrateko eta Sta. Kruzeko Parkeak horretatik ateratzea izan daiteke egokiena, hauek, hurrena, horrelako eremuetarako beste kategoria espezifiko batean sartuz.*

*- Paisaia eta jolas intereseko Eremu berriko (Arrateko eta Sta. Kruzeko inguruak atera osteko) erabilera eta jardueren arauketa egokitu egin beharko zaie haren ezaugarri eta berezitasunei eta LAAetan Babes Bereziko Zonetarako adierazitakoari; honek berekin ekarriko du, gutxienez, Arauetako 4.3.02.01.03 artikuluan «gehienez bere eremuaren %10 bideratu ahal izango da titularitate pribatuko jolas eta ostalaritza erabilerara» testua kentzea, erabilera onargarriei buruzko erredakzio berri batekin batera.*

*- Artezpide orokorretan jardueren kontrolari buruz ezarritakoa betez (LAAetako 8.5.3. atala), antolaketak jaso egin beharko du erauzketa-jarduerek ukitzen dituzten zonen mugaketa, erabilera hauetara bidera litezkeenen mugaketarekin batera.*

*6. Hirigintzako Arauak.*

*- Hiri Antolaketako Plan Orokorra osatzen duten hirigintzako agiriek, ahal den guztietan, jaso egingo dituzte ingurumenaren gaineko eraginari buruzko baterako baloraziorako azterketak bere 6. apartatuan definitzen dituen babes, zuzentze eta konpentsazio neurriak. Zehazki, Hirigintzako Arauetako 3.3 Garapen antolamendua kapituluan berariaz aipatuko da ezen garapeneko antolamenduaren baldintza teknikoen orriek jaso egin behar dituztela hurrenez hurren 6. eta 7. ataletan proposatutako babes neurri guztiak eta ingurumen zaintzarako programa, ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako azterketarekin batera, jarduketa zehatz bakoitzari egokiturik, eta ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txosteneko eta behin betiko txosteneko zehaztapenen ildotik.*

*- Oro har, hirigintzako garapen berrietan erabilera erregimenak kontuan hartuko ditu egungo uholde-arriskuak, Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzaren «Lurzorua erabiltzeko irizpideak uholdegarritasun mailaren arabera» barne harturik; gainera, araudi orokorrean sartu egin beharko da hirigintzako jarduketak uholde-arriskua dagoen zonetan planteatzen direnean garapeneko antolamenduan jaso egin beharko direla arrisku horri buruzko xehetasunezko azterketak, hain zuzen etorkizuneko eraikinek kasuan kasuko inguruaren uholde-arriskua areagotuko ez dutela egiaztatzearren.*

*- Plan Orokorraren hirigintzako agirian, proposamen berriez gain, jaso egin beharko dira, bai Memorian bai Hirigintzako Arauetan, hiriko eremu finkatu bakoitzean, hots, antolamendua planeamendu berriari txertatzen zaion bakoitzean aplikagarriak diren hirigintzako erregimenak; halaz, dokumentuak argi eta garbi eskaini eta jasoko du planteatutako antolamendu oso-osoaren hirigintzako erregimena.*

*- Planeko Hirigintzako Arauetako 8. tituluan, Erabilerei buruzko araudia delakoan, bere ataletan zehar azaltzen diren erabileren izenek eta hauen mota definituek koherentzia mantendu beharko dute agiriko V. eta VII. Planoetan hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarri osoari atxikitzen zaien Kalifikazio Orokor eta Xehekatuarekin.*

*Era berean, agiria osatu egin beharko da, erabilera-arauketaren eta honek zonetan izan dezakeen aplikazioaren arteko erlazio-jarraibideen ildotik.*

*- «1.2.05.01.01. Planeamendu Orokorreko zehaztapenak» artikuluko aurreikuspenak eraginkorrak izateko, ezinbestekoa da lurralde zati bakoitzean zehaztea, edota planean jasotako proposamen zehatzetako bakoitzean bestela.*

*- Zona bateko bolumen eraikigarriaren igoera orok, onartua izateko, ezinbestekoa izango du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 105. artikuluak eskatutako espazio libre handienetarako aurreikuspena egitea; ildo honetatik, zuzendu egin beharko da 1.2.05.01.03 artikuluak orain duen erredakzioa.*

*7. Hirigintzako fitxak.*

*- Ibilguetatik hurbileko hiri-lurzoruan eta lurzoru hiritargarrian proiektatutako eremu guztietako hirigintzako fitxek adierazi eta grafiatu egingo dituzte eraikinen eta urbanizazioaren gutxieneko atzeraemanguneak, hain zuzen EAEko ibai eta erreka ertzetako Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoak.*

*- Hiri Antolaketako Plan Orokorrean jasotakoen artean zaratak gehien erasaten dien area edo sektoreetako hirigintzako fitxek jaso egin beharko dute zertzelada hori, hain zuzen eremu horiek garatzen dituzten proiektu eta planeamenduak (alorreko planek, plan bereziek, hiritartze eta eraikitze proiektuek, etab.) prebentzio zein zuzentze neurririk egokienak planteatu ahal izan ditzaten (igortze-guneen kontrola, zaratari buruzko ordenantzaren araberako arauketa, zarata-pantailak jartzea, fatxada eta leihoen tratamendua, sektorea baldintza akustikoen arabera antolatzea, eraikinetako barne-espazioak zarataren arabera banatzea, etab.).*

*- Merkataritzako ekipamendu bat har dezaketen eremuetan, garapeneko antolamendurako zehaztapen lotesletzat jasoko da erabilera erregimena bat etortzea Lurraldearen Arloko Planean adierazitako mugekin; halaz, merkataritzako ekipamendu berrien gehienezko neurriak arautzeko parametroak honakoak izango dira: «Zelaiguneko gehienezko eremu garbia: 40.000 m²»; eta «Sabai eraikigarriaren gehienezko eremua: 13.000 m²».*

*8. Beste batzuk.*

*Udalak mugikortasun iraunkorrerako plan bat proposatuko du, trafikoa eta aparkalekuak antolatu ahal izateko eta automobilaren erabilera masiboa murrizteko, bide batez autoaren ordez ingurumenarentzat hain kaltekoak ez diren beste garraiobide batzuen erabilera bultzatuz (garraio publikoa, bizikleta, oinez).*

*9. Azkenean, gutxienez honako akats hauek konpondu beharko dira:*

*- «7.3.4. Lur gaineko Uren babeserako Zona» izeneko atala kendu egin beharko da Memoriatik; izan ere, kategoria hau Lurzoru Hiritarrezin Babestuaren barnean dago sartuta, agiri bereko 7.3.2. atalean ezarrita dagoen bezalaxe.*

*- Era berean, «Lurzoru Hiritarrezineko kategoriak» delakoari dagokion Planoari buruz 8.17.1 atalean egiten diren aipamenak zuzendu egin beharko dira, zeren eta aipatzen diren epigrafeak ez baitira existitzen.*

*- Memoriaren 94. orrian eta IV-0-C-EG-01 planoan hiri izaerako parkeei atxikitzen zaien eremua ez dator bat. Gauza bera gertatzen da udalerriaren eremu osoari buruz lurzoruaren eremu-sailkapenerako taulan eta kalifikazio orokorrekoan ematen den kopuru osoarekin ere.*

*Bigarren: Behin betiko onarpen honen eraginkortasunak, Erisonoko industri sektoreari dagokionez, baldintzatzat izango du ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostenean eskatutakoa betetzea, horretan agintzen baita alternatiben analisi bat prestatzea eta aurkeztea. Analisi honek, ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuaren eranskineko 4. apartatuan zehaztutakoarekin bat, kontuan hartu beharko ditu jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaria estaltzeko beste alternatiba posible batzuk ere, azkenean gai honetarako irtenbide bat optimizatzeko eta justifikatzeko.*

*Osterantzean, behin betiko onarpen honen eraginkortasunak, IA-09LK planoan jasotako eta kutsagarria izan daitekeen jardueretakoren bat kokatuta dagoen tokian bizitoki erabilerarako kalifikazio aldaketa bat planteatzen den balizkoetan, baldintzatzat izango du Eusko Legebiltzarraren otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, aurreikusten duen lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa lortzea.*

*Hirugarren: Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan izan gabe, eta argitaratzera eta indarrean sartzera begira, Eibarko Udalak onartu eta Foru Aldundi honi igorri beharko dio, gehienez ere hiru hilabeteko epean, erabaki honetako lehen atalean adierazitako baldintzak betez eginiko dokumentu bateratua.*

*Horretaz gain, Udalak aztertu egin beharko du ur eta kultur ondarearen arloan Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordeari igorritako txostenetako edukia, hain zuzen aipatutako Testu Bateratuan kontuan hartzea komeni ote den erabakitzeko.*

*Laugarren: Ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritako obligazioa betez, honek esaten baitu jendaurrean azaldu behar dela planaren tramitazioan zehar ingurumenari lotutako alderdiak aztertu diren modua, planaren Araudiarekin batera argitaratu egingo da planaren behin betiko onarpen erabakiari buruz egindako Deklarazioa. Deklarazioaren testua erabaki honen eranskin gisa doa.*

*Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.*

*Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa ere aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.*

## 1.3.- Debabarrengo Lurralde Plan Partzialeko zehaztapenak bete izanaren justifikazioa

2005eko uztailaren 6an, 68/2005 Dekretua sartu zen indarrean, apirilaren 12koa, Eibarko Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onetsi zuena (Debabarrengo Lurralde Plan Partziala).

Agiri horretan, Lurralde Plan Partzialak udal-plangintzan duen eragina aztertzen da; Eibarko udalerriari dagozkionak, ordea, honako hauek dira:

***1. Ingurune Fisikoa***

***II. Kapituluko zehaztapen orrokorrak batuko dira, hain zuzen ere, jardun hauek:***
***- II. Kapituluko 2. atalean ezartzen diren babestu eta/edo hobetu nahiz leheneratu beharreko garrantzi handiko areei dagozkien mugak eta aplikazio-erregimena jasotzea.***

II. Kapituluko 2. atalean ezartzen diren babestu eta/edo hobetu nahiz leheneratu beharreko garrantzi handiko areei dagozkien mugak eta aplikazio-erregimena jaso dira.

**Babestu beharreko areak:**

A. Natura-intereseko areak

- A1 Espazio natural babestuak, zuhaitz bereziak
  - DB-2 Otaolaerdikoako artea (Eibar)

- A2 Natura-intereseko areak eta beste enklabe interesgarri batzuk
  - Arrateko parkea
  - Urko - Usarza gaineko parkea

B. Interes zientifiko eta kulturaleko areak

- B1 Interes geologiko eta geomorfologikoko areak
  - 0635 Urkoko tolestura
  - 0637 Ixuako ebakidura
  - 0638 Eibarko tolesturak
  - Urko eta Ixuako ibilbide geologikoa

- B2 Kultura-intereseko elementuak. Historiaurreko aztarnategi arkeologikoak.
  - Lurralde Plan Partzialean Kalamuako trikuharria (36) eta Kalamuako tumulua (37) aipatzen dira. Horren arabera, horiek Eibarren daude, baina, benetan, Markinako udalerrian daude eta, beraz, ez dira Plan Orokor honetan barneratzen.

C. Interes hidrologikoko areak

- C1 Gainazaleko urak
  - Gainazaleko uren nahiz barnekoen (ibai eta erreken) eraginpean dauden areak zehaztu dira, baita horiei dagozkien babes-zonak ere, EAEko Ibai eta Erreken Aldeak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean (Isurialde Kantauriarra).

- C3 Urak har ditzakeen areak.
  - Lurralde Plan Partzialak jasotzen duen "Ingurune fisikoa1. Ingurune fisikoaren antolamendua – Babestu eta hobetu beharreko garrantzi handiko eremuak" izeneko 01 planoan definitutako espazioak aipatzen dira.

**Hobetu eta/edo leheneratu beharreko areak:**

- E1 Kokapen topografiko berezia duten zuhaizti naturalak.
  - Lurralde Plan Partzialak jasotzen duen "Ingurune fisikoa1. Ingurune fisikoaren antolamendua – Babestu eta hobetu beharreko garrantzi handiko eremuak" izeneko 01 planoan definitutako espazioak aipatzen dira.

## *2. Finkapenak*

***III. kapituluko zehaztapen orokorrak bilduko dira, baita honako jardun hauek ere:***
***- Kutsatutako lurzoruen tratamenduari buruzko idatz-zati espezifikoa barneratzea.***

Plan Orokor honetan, kutsatutako lurzoruei buruzko idatz-zatia honako artikulu hauetan jasotzen da: "3.05.02 Urbanizazio-proiektuak", "4.1.21 Hiri-lurzoruko egikaritze-unitateak", "7.3.03 Lizentziak lortzeko prozedurak" eta 8.3.07.03.02 Dauden eraikinak: ekoizpen-jardueretarako instalazioak berrerabiltzeko baldintzak".

Artikulu hauek kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan barneratutako lurzoru edo eraikinetan esku hartu behar denetarako jokatzeko prozedura arautu eta zehazten dute.

Plan Orokor honetan, "Inbentarioan jasotako kokalekuak. Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua, O-EI-01" izeneko XIV. planoa jasotzen da eta, bertan, lurzorua kutsa dezaketen jardueren kokalekuei buruzko inbentarioko eremuak mugatzen dira.

Aurreko plano horretan adierazitako inbentarioak ukitzen dituen kudeaketa-eremuen fitxetan, urbanizazio-kargen artean lurzoruaren kalitatea ikertu eta bereizteko azterlana egin beharra ezartzen da, lurzorua kutsatuta ote dagoen detektatu eta leheneratzeko zein bitarteko erabil daitezkeen ikuste aldera.

Bestalde, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, kutsadurari aurre egiteko eta kutsadura zuzentzekoa, lurzorua kutsa lezaketen jardueren kokaguneetan bizitegi-erabilerak ezartzeko sailkapen aldaketa egin nahi zaien esparruetako lurraren kalitateari buruzko deklarazioa lortzeko tramitea egiten hasi da.

***- Urbanizatu edo berrurbanizatu beharreko zonetan ibilguak aire zabalean leheneratzeko irizpidea barneratzea.***

Irizpide hau, helburu gisa, honako idatz-zati hauetan jasotzen da: *"6.3.1.5 Uraren Zikloari Buruzko Helburuak Ibaia, Errekastoak eta Saneamendu Sarea", "7.1.3 Erreformako eragiketak", "7.7.1 Ego ibaia", "8.8.-Otaola (8)".*

***- Bizitegitarako jarduketa berrien proposamenak 28. artikuluan ezarritako kuantifikazioarekin bat etorriz egokitzea.***

1. eranskin modura aurkeztutako koadroan, bizitegitarako jarduketa berrien proposamenei dagokien kuantifikazioa jasotzen da, honako emaitza hauekin:

| | |
|---|---|
| Plan hau onesterakoan bidean ziren etxebizitzak | 946 |
| Jarduketa berrietan proposatutako etxebizitzak (1) | 2.294 |
| Ordenazioz kanpoko egoerari buruzko proposamenek ukitzen dituzten etxebizitzak (2) | 418 |
| Plan hau onesterakoan bidean ziren jardunek ukitutako etxebizitzak | 105 |
| Hazkunde garbia = (1)-(2) | 1.876 |
| Egoitzen kuantifikazioa, Lurralde Plan Partzialeko 28. artikuluaren arabera = 1488 * 1,2 | 1.786 |

***- Ekonomia-jardueretako jarduketa berrien proposamenak 33. artikuluan ezarritako kuantifikazioarekin bat etorriz egokitzea.***

2. eranskin modura aurkeztutako koadroan, Plan honetan jasotako kudeaketa-eremu ezberdinei buruzko datuak agertzen dira. Planaren arabera, ekonomia-jardueretarako proposatutako azalera honako hau da:

| **Plan Orokorrean proposatutako beste eremu batzuk** | |
|---|---|
| Erisono sektorea | 134.718 |
| | |
| **Lurralde Plan Partzialak aurreikusitako azalera** | **147.500** |

***- Matsariako arean C.E.I. ezartzea***

Matsariako arean, antolamendua Plan Bereziaaren bidez egingo da. Bertan, balio erantsi handiko ekonomia-jarduerak bere baitan hartzeko eraikinak garatuko dira, adibidez, C.E.I., Lurralde Plan Partzialean planteatzen den bezala.

***3. Azpiegiturak***

***IV. kapituluko zehaztapen orokorrak bilduko dira, baita honako jardun hauek ere:***
***- Hiriguneko saihesbidearen trazadura bukatzea.***

Lehenago adierazi den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako saihesbidearen 3. faseko trazadura aipatzen da.

***- N-634 errepidearekiko paraleloa den bidegorriaren trazadura.***

Plan honek udalerrian bidegorria eta ingurabide berdea egitea proposatzen du. Ingurabide horrek bizikletan nahiz oinez ibiltzeko aukera emango du.

***4. Ekipamenduak***

***V. kapituluko zehaztapen orokorrak bilduko dira, baita honako jardun hauek ere:***
***- Ingeniaritza Eskolaren handitzea aurreikustea.***
***- Kultura-ekipamenduari dagozkion jardunak hirigunea leheneratzera bideratzea.***
***- Kultura-jardunak udalerriaren gaitasunarekin erlazionatutako gaietan oinarritzea, esate baterako, armagintzan.***

Ekintza horiek guztiak Eibarko Hiriaren Plan Estrategikoan jasota daude eta Plan Orokor honen edukiarekin bateragarriak dira.

***5. Lur-eremu ahula***

***- VI. kapituluko zehaztapen orokorrak bilduko dira, baita honako jardun hauek ere:***

***- Aisialdiko naturguneak, honako sailkapen honen arabera:***
  ***- Hiri-ingurukoak: Eibar, Arrate eta Urko-Usarzako parkeak.***
  ***- Eskualdekoak: Irumuga-Urko-Kalamuako parkea.***

Plan honetan, Espazio Libreen Sistema Orokorrean barneratu dira aipatutako aisialdiko naturguneak, baita memoria honetako *"7.5.- Espazio Libreen Sistema"* idatz-zatian zehaztutakoak ere.

Udal-mugartean ez dago Irumuga toponimoa duen zonarik.

***- Lurraldera sartzeko landa-eremuak, honako sailkapen honen arabera:***
***- Bizitegitarako nekazaritzakoak: Mandiola, Arrate eta San Andrés.***

San Andreseko eremua Soraluzeko udal-mugartean dago.

Mandiola eta Arrateko eremuak Ingurune Fisikoaren Azterlanean jasota daude eta kategoria ezberdinak dituzte, lurraldearen azterketa xehekatuaren ondoriozkoak.

Horien kalifikazioa 1:10.000 eskalaz eginda dagoen "O-SNU-01 lurzoru urbanizaezineko kategoriak" izeneko VI. planoan agertzen da eta lurzoruaren erregimena Plan honen hirigintzako arauei buruzko 4. tituluan zehazten da, 4.3 artikuluan ("Lurzoru urbanizaezinaren arau espezifikoak").

***- Baliabide turistikoak:***
***- Lehentasuna duten baliabide turistikoak: III. eranskinean jasotakoak***

III. eranskin hori ondarezko ondasun babestuen inbentarioari buruzkoa da. Kultura Intereseko Ondasunen Katalogoa Plan Orokor honekin batera izapidetu da. Bertan, kultura-interesekotzat jotako elementuak, hala izateko bidean direnak eta ustezko arkeologi zonak zehazten dira, beste zenbait elementuz gain, horien balioak aintzat hartuta, babestu beharrekotzat hartu baitira. Elementu eta zona horiek 5 kategoriatan banatzen dira. Arauen atalean, kategoria horietako bakoitzari dagozkion babes-erregimenaren baldintzak eta jardun onargarriak ezartzen dira.

***- Ingurumen-hobekuntza:***
***- Industriako paisaia-multzoak: CPI 4.4, 4.5 eta 4.6.***

CPI 4.4 industriako paisaia-multzoak Ibur Errekako Plan Partzialaren eremua hartzen du; eremu hau Eibar, Elgeta eta Zaldibarko udal-mugarteetako lurrek osatuta dago.

Dokumentu hau Plan Orokorrean barneratzen da, plangintza erantsi modura.

CPI 45 industriako paisaia-multzoak Otaolan ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eremua hartzen du.

Eremu hau nahikoa finkatuta dago eta, beraz, Plan honek ingurumenaren aldetik hobetzea proposatzen du; horretarako, lerrokadura, profil eta sestra berriak jarriko dira itxura hobetze aldera, Ego ibaia desestaliko da eta, horren alboan, ibaiertzeko pasealekua egingo da.

CPI 46 industriako paisaia-multzoa Soraluzeko udal-mugartean dago eta, beraz, Plan Orokor honek ez du horren inguruko jardunik ezartzen.

***- Hiri-periferiak: Eibar***

Hiri-proiektuan Eibarko hiri-periferia guztia elementu jarraitutzat hartu da, ertzeko parke periferiko modura.

***- Ibaien ertzak: Ego ibaia, Eibartik igarotzean.***
***- Hiriko mugarriak eta irudiak baloratzea: ibaiertzeko pasealekua.***

Aurreko idatz-zatietan adierazi den bezala, Plan Orokor honen bidez gauzatu nahi diren helburuetako bat Ego ibaia hiri-bilbearen diseinu-elementu gisa leheneratzea da eta, horretarako, aukera dagoen lekuetan, ibilgua leheneratu eta irekiko da.

***- Kultur ondarea:***
***- Katalogoetan barneratu beharreko ondarearen elementuak zehaztea eta aplikazio-erregimena arautzea.***
***- Katalogatu gabeko elementuetarako IV. eranskinean ezarritako gutxieneko erregimena aipatzea.***

Lehen aipatu dugun bezala, Kultura  Intereseko Ondasunen Katalogoa Plan Orokor honekin batera izapidetu da. Bertan, kultura-interesekotzat jotako elementuak, hala izateko bidean direnak eta ustezko arkeologi zonak zehazten dira, beste zenbait elementuz gain, horien balioak aintzat hartuta, babestu beharrekotzat hartu baitira. Elementu eta zona horiek 5 kategoriatan banatzen dira. Arauen atalean, kategoria horietako bakoitzari dagozkion babes-erregimenaren baldintzak eta jardun onargarriak ezartzen dira.

Plan Orokor honen hirigintzako arauei buruzko XI. tituluan, Katalogoan kalifikatu gabe dauden kultura- eta historia-intereseko elementuen babes-erregimena ezartzen da.

**1.4.- Ekainaren 30eko 17/94 Legea, etxebizitzaren arloan presako neurriak hartzekoa, bete izanaren justifikazioa.**

Lege horren 2. artikuluan eta ekainaren 17ko 142/97 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, babes publikoko etxebizitzak egiteko lurzorua kalifikatu behar da; horren azalera, jarraian aipatzen den aprobetxamendua gauzatzeko adinakoa izango da:

- Hiri-lurzoruan, barne-erreformako jarduera bateratuetan aurreikusitako bizitegi-gehikuntzaren %20, gehikuntza 75 etxebizitzatik gorakoa denean edo, horien kopurua zehazterik ez badago, bizitegitarako sabai eraikigarriak 7.500 $m^2$ baino gehiago dituenean.
- Hiri-lurzoru programatuan, laurteko bakoitzerako, aurreikusitako bizitegitarako azalera osoaren %65.

Ondorengo koadroan Plan Orokorrak babes ofizialeko etxebizitzen inguruan egiten duen aurreikuspenari buruzko datuak laburbiltzen dira.

| AMBITOS DE GESTION | EXISTENTES | | PROPUESTA | | | | | | CRECIMIENTO | RESERVA S/L 17/94 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | V.P.O. | | LIBRE | | TOTAL | | | |
| | nº viviendas | superf. Resid. | nº viviendas | superf. Resid. | nº viviendas | superf. Resid. | | | | |
| ARTEGIETA 3-5 | 0 | 0 | 9 | 910 | 0 | 0 | 9 | 910 | 9 | |
| ASOLA-IGARTZA 1-3-5 | 11 | 621 | 0 | 0 | 18 | 1.795 | 18 | 1.795 | 7 | |
| GARAJES ARTEGIETA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| ASOLA_IGARTZA | 0 | 0 | 81 | 8.146 | 0 | 0 | 81 | 8.146 | 81 | 16 |
| ARANE-URTZAILE | 20 | 1.883 | 0 | 0 | 47 | 4.729 | 47 | 4.729 | 27 | |
| SOSTOA-TARREN 14 | 0 | 0 | 0 | 0 | 18 | 1.815 | 18 | 1.815 | 18 | |
| UBITXA 8-10-12-14 | 15 | 1.131 | 0 | 0 | 42 | 4.198 | 42 | 4.198 | 27 | |
| UBITXA 13-15 | 8 | 600 | 0 | 0 | 16 | 1.561 | 16 | 1.561 | 8 | |
| PLAN ESPECIAL BLAS ETXEBARRIA 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 80 | 8.033 | 80 | 8.033 | 80 | 16 |
| PLAN ESPECIAL ESTAZIÑO | 10 | 498 | 0 | 0 | 45 | 4.486 | 45 | 4.486 | 35 | |
| IBARGAIN | 1 | 176 | 0 | 0 | 53 | 5.252 | 53 | 5.252 | 52 | |
| FERMIN CALBETON 11 | 7 | 619 | 0 | 0 | 12 | 1.200 | 12 | 1.200 | 5 | |
| BITTOR SARASKETA 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 33 | 3.312 | 33 | 3.312 | 33 | |
| BITTOR SARASKETA 9 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| ERREKATXU | 43 | 3.111 | 0 | 0 | 136 | 13.576 | 136 | 13.576 | 93 | 19 |
| PLAN ESPECIAL TXONTA | 215 | 16.476 | 88 | 8.843 | 961 | 96.062 | 1.049 | 104.905 | 834 | 167 |
| IPARRAGIRRE 10 | 0 | 0 | 35 | 3.548 | 0 | 0 | 35 | 3.548 | 35 | |
| JARDIÑETA | 0 | 0 | 48 | 4.836 | 0 | 0 | 48 | 4.836 | 48 | |
| LEGARRE-GAIN | 0 | 0 | 51 | 5.106 | 0 | 0 | 51 | 5.106 | 51 | |
| SOSTOA 9-11-13 | 9 | 778 | 0 | 0 | 36 | 3.555 | 36 | 3.555 | 27 | |
| ARRAGÜETA 9-11-13-15-17-19-21-23 | 39 | 2.698 | 0 | 0 | 58 | 5.806 | 58 | 5.806 | 19 | |
| UBITXA 24 | 0 | 0 | 42 | 4.223 | 0 | 0 | 42 | 4.223 | 42 | |
| PLAN ESPECIAL MURRATEGI | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| ERREBAL | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| MEKOLA 4 | 1 | 433 | 0 | 0 | 15 | 1.462 | 15 | 1.462 | 14 | |
| AZITAIN BIDE 2B | 0 | 0 | 41 | 4.050 | 0 | 0 | 41 | 4.050 | 41 | |
| JARDIÑETA 34 | 0 | 0 | 0 | 0 | 26 | 2.573 | 26 | 2.573 | 26 | |
| OTAOLA 10-12-14-14BIS-16 | 4 | 552 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | -4 | |
| PLAN ESPECIAL MATSARIA | 23 | 1.928 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | -23 | |
| **TOTAL RESERVA EN SUELO URBANO** | **406** | **31.504** | **397** | **39.661** | **1.594** | **159.415** | **1.991** | **199.077** | **1.585** | **218** |
| SECTOR EGAZELAI | 1 | 85 | 52 | 5.168 | 35 | 3.462 | 86 | 8.630 | 85 | 56 |
| SECTOR BOLINGUA | 11 | 1.009 | 114 | 11.400 | 103 | 10.297 | 217 | 21.697 | 206 | 141 |
| **TOTAL RESERVA EN SUELO URBANIZABLE PROGRAMADO** | **12** | **1.094** | **166** | **16.568** | **138** | **13.759** | **303** | **30.327** | **291** | **197** |
| **TOTAL** | **418** | **32.598** | **562** | **56.230** | **1.732** | **173.174** | **2.294** | **229.404** | **1.876** | **415** |

Kontuan izanik etxebizitza-kopurua ez dela Plan Orokorreko elementu finko determinatzailea, etxebizitza-erreserba kalkulatzeko, etxebizitza bat jarriko da proposamenean ezartzen den bizitegitarako sabaiaren 100 $m^2$ bakoitzeko.

Parametro horietan oinarrituta, babes ofizialeko 562 etxebizitza egingo dira, ezarritakoak 415 izan arren; hortaz, eskatutako kopurua baino 147 etxebizitza gehiago egingo dira, hau da, %35,54 gehiago.

## 1.5.- 2006ko abenduaren 12ko Behin Betiko Onespenaren Akordioaren baldintzak betetzeari buruzko justifikazioa.

Ondoren, xehetasunez betetako baldintza ezarriak zehatz-mehatz aztertuko dira:

*1. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.*

*- Afektaturik eta arau baliorik gabe geratuko dira hirigintzako agiri honetan jasota dauden eta edukiaz Lege berriaren Xedapen Iragankorretan adierazitako aplikazio zuzeneko arauei egokitzen ez zaizkien xedapen guztiak.*

Ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Legea, Lurzoruarena eta Hirigintzarena (ELHL, 2/2006), espedientea Gipuzkoako Foru Aldundian sartu ondoren onartua eta indarrean sartua izan zen.

Lege horrek, bere Xedapen Iragankorretan, bete-betean aplikatzekoak diren hainbat arau ezartzen ditu, planeamendu osoari ezarri beharrekoak, tramitazioan zegoena barne.

Horren ondorioz, hirigintza-dokumentu honetan 2/2006 ELHL berriaren Xedapen Iragankorretan aplikazio zuzenekotzat ematen diren arauetara egokitzen ez diren xedapen guztiak arau-balio barik geratzen dira.

Xedapen horien ondorioz dokumentu honetan eragin handiena jaso duten elementuak hauexek dira:

- Antolaketa xehatuaren eta egitura-antolaketaren zehaztasunen inguruko arauketa.
- Eraikigarritasun parametroak, gehienekoak eta gutxienekoak.

- Kontzertazio-sistema jartzea konpentsazio bidezko jarduketa-sistemaren ordez dokumentu honetan sistema horri buruz egiten diren erreferentzia guztietan.
- Urbanizazio-jardunerako programak, integratutako jardunak garatu baino lehen egiteko premia. Xedapen horrek dokumentu honetan islatzen diren jardun integratuak zehazteko eta definitzeko premia dakar.
- Egikaritza-unitateen mugapena integratutako jarduketa kasuetan bakarrik.
- Dokumentu hau garatzeko tramitatuko diren antolaketa xehatuko planek 2/2006 ELELak ezarritako toki dotazioak bete beharko dituzte.
- Dokumentu honetan aurreikusitako aprobetxamendu-mota, 2/2006 ELHLak arautzen duen bataz besteko hirigintza-eraikigarritasunarekin pareka daiteke.
- Banaketa-eremuaren eta aprobetxamendu-motaren teknikak arautzen dituen hirigintza-araudia indarrean egongo da harik eta Plana legearen edukira egokitu arte.

Edozein kasutan ere, gehienez ere 8 urteko epe batean, Plan hau Legearen xedapenetara egokitu behar da.

Urte biko epean behin betiko onespena jasotzen ez duten antolaketa xehatuko planek eta 2009ko martxoaren 20a baino lehen (30 hilabete, 2/2006 ELHLa indarrean sartu zenetik) behin betiko onespena jaso ez duen hirigintza-jarduketa programek, babes publikoko arautegiren baten menpe dauden etxebizitzen estandarrak eta gutxieneko kopuruak bete egin beharko dituzte.

*- Behin betiko onarpen honek ez ditu inola ere hartzen legez ezarritako gehienezkoa (2,3 m²s/m²l) gainditzen duten Plan Orokorrean jasotako eraikigarritasunak.*

Bigarren Xedapen Iragankorraren aplikazioak, hirigintza-eraikigarritasunak legean ezarritako gutxieneko eta gehieneko muga horietara egokitzea derrigortzen du, beti ere, 2/2006 ELHLa indarrean sartu zenean antolaketa xehatua onartu barik balego.

Xedapen hori behin betiko onarpena duten Plan eta Ordezko Arau guztietan ezarri behar da, baina behin-behineko onespen egoeran dauden dokumentuei buruz -dagokigun honi buruz, esate baterako- ez du ezer aipatzen.

Hirigintza-eraikigarritasunaren gutxieneko eta gehieneko mugen eragina aztertzeko kontuan eduki behar da Legeak ezartzen duen egitura berria.

2/2006 legearen 77. artikuluak hauxe dio bere 1 atalean: "Erabilera nagusia bizitegirakoa duten eta jarduketa integratu bidez egikaritzen diren hiri-lurzoru finkatugabeetan, lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,30 metro koadroko sabai-indizea aplikatu arearen azaleran -sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe-, eta horren emaitza izango da zuzkidura publikoez bestelako erabileretarako sestra gainerako gehienezko eraikigarritasun gordina."

Artikulu bereko 3. atalak hauxe dio: "Erabilera nagusia bizitegirakoa duten eta jarduketa integratu bidez egikaritzen diren hiri-lurzoru finkatugabeetan, lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,30 metro koadroko sabai-indizea aplikatu sektorearen azaleran -sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe; 4. atalean finkatzen da eraikigarritasun fisikoa, 0,40 metro koadroko sabai-indizea."

2/2006 ELHLaren 35. artikuluak eraikigarritasun fisiko edo gordina zehazten du, "lurralde-eremu jakin baterako ezarritako sabai-azalera osoa, eraikitakoa eta eraikigabea" dela esaten.

Bestalde, 2/2006 legearen 138. artikuluak jarduketa integratuak zer diren zehazten du: "urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri-lurzoruaren barruan eta lurzoru urbanizagarriaren barruan, egikaritze isolatuek baino urbanizazio-maila handiagoa behar duten lursailetan egiten direnak" direla esanda.

Jarduketa isolatuetarako urbanizazio-maila 2/2006 Legearen 195. artikuluan zehazten da, "lizentzian baimendutako eraikuntza-obraren orotariko aurrekontuaren %5eko edo gutxiagoko kostua duten urbanizatze- edo konpontze-lanak bakarrik sar daitezke"ela adierazita. Urbanizazio-obra horiek eraiki daitezkeen partzelek orube izaera eskura dezaten egin beharrekoak dira eta obra horien egikaritza eraikuntzaren aurretik edo eraikuntzarekin batera izan daiteke.

Hiri-lurzoru finkatugabea 11.3.b)1ean zehazten da: "eginda dagoen urbanizazioak hirigintza-antolamenduan agindutako beharrezko zuzkidura, zerbitzu eta azpiegiturak ez edukitzea, edo hornigai horiek gainean duten edo izan beharko duten eraikuntzari zerbitzu egokia emateko hirigintza-antolamenduan agindutako proportzio, neurri edo ezaugarririk ez edukitzea".

Azken finean, dokumentu honetan, aldi baterako onetsitako dokumentuan azaltzen ziren egikaritze-unitateen izena aldatuko da, 2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintza Legearen 136. eta 138. artikuluetan islatutako jarduketa isolatuak eta jarduketa integratuak bereizteko.

Ondoko koadro edo lauki honetan jasotzen dira dokumentu honetan dauden jarduketa isolatu eta integratu guztiak, eta egiaztatu daitekeen moduan, jarduketa integratuen hirigintza-eraikigarritasuna ez da 2,3m2s/m2l-etik gorakoa eta ezta ere 0,4 m2s/m2l-etik beherakoa.

| AREAS EN SUELO URBANO RESIDENCIAL | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| CODIGO | | | | DENOMINACION | INDICE EDIFICABILIDAD URBANISTICA | SUPERFICIE (m²s) |
| Sunc | AA | 105 | 01 | ARTEGIETA 3-5 | 3,11 | 388 |
| Sunc | AA | 106 | 01 | ASOLA_IGARTZA 1-3-5 | 2,71 | 1.041 |
| Sunc | AA | 107 | 01 | GARAJES ARTEGIETA | 2,02 | 1.896 |
| Sunc | AA | 108 | 01 | ASOLA_IGARTZA | 1,46 | 5.561 |
| Sunc | AI | 109 | 01 | ARANE-URTZAILE | 1,47 | 7.784 |
| Sunc | AA | 112 | 01 | SOSTOA-TARREN 14 | 3,08 | 1.142 |
| Sunc | AA | 115 | 01 | UBITXA 8-10-12-14 | 2,28 | 2.359 |
| Sunc | AA | 116 | 01 | UBITXA 13-15 | 1,91 | 962 |
| Sunc | AI | 117 | | BLAS ETXEBARRIA 3 | 2,30 | 3.783 |
| Sunc | AI | 118 | | PLAN ESPECIAL ESTAZIÑO | 1,92 | 2.873 |
| Sunc | AI | 119 | 01 | IBARGAIN | 2,28 | 2.302 |
| Sunc | AA | 120 | 01 | FERMIN CALBETON 11 | 3,22 | 486 |
| Sunc | AA | 121 | 01 | BITTOR SARASKETA 1 | 3,22 | 1.468 |
| Sunc | AA | 122 | 01 | BITTOR SARASKETA 9 | 3,09 | 920 |
| Sunc | AI | 124 | 01 | ERREKATXU | 1,54 | 9.883 |
| Sunc | AI | 125 | | PLAN ESPECIAL TXONTA | 0,83 | 140.601 |
| Sunc | AI | 126 | 01 | IPARRAGIRRE 10 | 1,06 | 3.923 |
| Sunc | AI | 129 | 01 | JARDIÑETA | 1,16 | 5.000 |
| Sunc | AA | 130 | 01 | LEGARRE-GAIN | 3,14 | 2.170 |
| Sunc | AA | 131 | 01 | SOSTOA 9-11-13 | 1,79 | 2.328 |
| Sunc | AA | 132 | | ARRAGÜETA 9-11-13-15-17-19-21-23 | 3,59 | 2.125 |
| Sunc | AA | 135 | 01 | UBITXA 24 | 1,18 | 3.564 |
| Sunc | AI | 136 | | PLAN ESPECIAL MURRATEGI | | 8.992 |
| Sunc | AI | 137 | 01 | ERREBAL | 1,35 | 5.005 |
| Sunc | AA | 139 | 01 | MEKOLA 4 | 0,60 | 2.430 |
| Sunc | AI | 140 | 01 | AZITAIN BIDE 2B | 0,79 | 6.005 |
| Sunc | AA | 141 | 01 | JARDIÑETA 34 | 3,89 | 662 |
| | | | | | | |
| AA | ACTUACION AISLADA | | | | | |
| AI | ACTUACION INTEGRADA | | | | | |

*2. Ibai eta erreka bazterrak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoarekin bat, honako zehaztapenak hartuko dira kontuan:*

*a) Kalifikazioan ongi kontserbatutako landaretzaz hornitutako ertz gisa jasotakoetan (Zaturio errekaren eskuineko ertza, Elgoibarrekiko mugan, eta Azitain errekaren burualdea), ibaiertzeko landaretza-zerrendaren kanpo ertzetik 10,00 metroko atzeraemangune bat errespetatu beharra ezarri beharko da. Atzeraemangune hori berezko lur eremuaren alterazioa dakarren esku-hartze orotan aplikatuko da, Lurraldearen Arloko Planean ezarritako baldintzetan betiere.*

4.3.02.01.02 artikuluak, ibaiertzean dagoen landaretza-lerroa babesten lagunduko duen 15 metroko atzerapena gordetzeko agindua zekarren, Behin Betiko onespenaren erabakian aipatutakoa baino atzeratze handiagoa eta murriztaileagoa, beraz, neurri horri eutsi egiten zaio errekaren babesa baldintza hobeagoetan bermatzeko.

Halaber, araudian, akordio horretan aipatzen den 10 metroko atzeratze hori gordetzeko obligazioa ezarri da, izaera orokorreko obligazio legez, berezko lurzoruaren edozein aldaketa-jardunerako.

*b) Dagoeneko onartuta dauden antolaketen bidez garatu beharreko eremuetan, hots, Plan Orokor honi eransten zaizkionetan (Matsaria, Azitain, Iburerreka, etab.) aurreikusitako beste jarduerei dagokienez, horien baloraziorako onarpen izapidean Ur Zuzendaritzak egindako balorazíora joko da.*

*c) Guztira 1 km2tik beherako arro-eremua duten ibilguei eragiten dieten esku-hartze programatuen ondorioz (Erisonoko industri eremu berria) uraren jabariari eragiten zaizkion afekzioei dagokienez, horien baloraziorako Ur Legean ezarritakora eta Lurraldearen Alorreko Planean ur arloko jarduerei buruz ezarritako araudi espezifikoak adierazitakora joko da.*

Plan Nagusiaren onespenerako tramitean Ur Zuzendaritzaren txostena Dokumentuaren edukiaren aldekoa zen, Urari buruzko legearen eta lurraldearen arloko planen zehaztapenak bete izanari buruzko balorazio ona zen ; baita kutsagarriak diren jardunak kokatzen ziren esparruetan lurraren kategorizazio- eta kalitateari buruzko azterlanak egiteko premia sartu izanari buruzkoa ere.

*3. Trenbide sarea.*

*Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak emandako txostenean adierazten delarik Planean jasotzen den saihesbidea eta hirigunean trenbide trafikoa kentzea, agirian jasota dagoen moduan, ez direla lotesleak Garraio eta Herrilan Sailarentzat, eta kontuan harturik Sail horren egungo aurreikuspenen artean dagoela Euskotrenen egungo linearen trazatuari eustea, kendu egin beharko zen planeamendu orokorrean trazatu berriari buruz egiten den proposamena.*

Aldi baterako eta behin betiko onespena jaso duen dokumentuan azaltzen den Trenbide Saihesbidearen proposamena bat dator Erakundeen artean eratutako Batzordearen irizpideekin eta helburuekin, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak (sailburuordea eta azpiegitura zuzendaria dira batzordean ordezkari), Eusko Trenbideak Ferrocarriles Vascos SA-k (Presidentea eta Zuzendari Orokorra daude batzordean) eta Eibarko Udalak (bertako Alkateak ordezkatua) eratutako Batzordea.

Batzorde hori 2001eko urriaren 23an eratu zen, trenbide-sareari eta Eusko Trenbidearen zerbitzuen inguruan Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak eta Eibarko Udalak hartutako erabakiaren ondorio, Herri Lan eta Garraio Kontseilariak eta Eibarko udalaren alkate-udalburuak izenpetutako akordioa.

Batzorde horren helburuak, hiri barruan eta bere eraginpean dagoen esparruko bidaiarien garraio-zerbitzua hobetzean, trenbideak herria alde batetik bestera duen zeharbide hori kentzean eta herri barrutik trenbideagatik bereziztuta edo aldenduta dauden auzoen integrazioa erraztean ardaztu ziren; horretarako, tranbiaren konponbidea aztertzea planteatu zen Debako igarobidearenarekin elkartuta. Trenbide Saihesbidea ikuspegi horretatik aztertzea erabaki zen, merkantzia eta bidaiarien ibilbide luzeko trafikoaren konponbide bezala, ibilbide luzeko trazatu horren eta planteatutako tranbia-sistemaren arteko lotura intermodala bilatuta.

Azken finean Hiriaren Plan Estrategikoan dagoen proiektu bat da, Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuak izenpetutako proiektua; garrantzia ukaezinekoa Eibarko Hiriaren hiri-kalitatea hobetzeko.

Horren ondorioz, Garraio Sailaren proiektu lehenetsien artean ez egon arren, Hiriaren antolamenduaren ikuspegitik, Plan Estrategikotik bertatik zehaztu zen hiri-ereduaren bizkarrezurretako bat denez, Plan berriaren egitura-elementu bezala mantentzen da.

*4. Errepideak.*

*- Planean adierazi egin behar da ezen Lea-Artibai eskualdearekiko lotura bakar-bakarrik etorkizuneko esku-hartze programatu gabeko baterako asmo-adierazpen gisa har daitekeela.*

Finantza eta Ekonomia Azterlanaren 6.1.1 atalean eta Jarduera Programan jaso da proposamen horren izaera ez programatua.

*- Saihesbideak, Arrajola eremutik igarotzeko zatian, oso-osorik islatu behar du sistema orokorraren zerrenda, eta horregatik planean jaso egin behar da bide berriaren zabalgune osoa, herri jabariko bere zonarekin batera, jendaurrean jarritako Proiektuan adierazitakoarekin bat.*

Aldi baterako onespena zuen Plan Nagusiaren Dokumentuan bertan ere sartzen zen bide berriaren plataforma osoa eta saihesbideak Arrajolako esparrutik igarotzean hartuko zuen herri-jabariko gunea, hori dena jendaurrean jarriko Proiektuaren arabera.

*5. Lurzoru hiritarrezina.*
*- Plan Orokorrak jaso egin beharko ditu Debabarreneko Lurralde Plan Partzialak hainbat eremuri ematen dizkien mugak eta babes erregimena; eremu horiek «Ingurune fisikoaren antolaketa. Babestu eta hobetu beharreko garrantzi bereziko eremuak» 01 Planoak ezarritakoak dira, hala nola honakoak:*
*a) Babestu beharreko areak.*
*- Natura intereseko areak eta beste gune interesgarri batzuk: Arrateko parkea eta Urko-Usartzako Parkea.*

Arrateko Parkearen zedarriztapena zuzendu eginda natura-intereseko eremu barruan eta Debabarreneko Lurralde Plan Partzialean jasotakora egokituta.

*- Zuhaitz bereziak: Eibarko artea.*

Eibarko Artea, Otaolaerdikoa baserriaren ondoan dagoena, babesteko elementutzat zegoen jasota ingurumenarekiko eraginari buruzko azterlanean.

Dokumentu honetan Kultura Intereseko Elementuen Katalogoan sartu da "E" kategorian.

*b) Hobetu edota leheneratu beharreko areak.*
*- Geografi kokapen berezia duten berezko zuhaiztiak, Lurralde Plan Partzialean bereiziak.*

I. Tomoko "VI. Planoa- Lurzoru ez urbanizagarrien kategoriak" izenekoan, egoera geografiko berezietako bertako zuhaiztiak jaso dira, LPPean azpimarratuak.

*- Kendu egin beharko da «Lurzoru Hiritarrezin Arrunta» kategoria; hemen sartutako azpikategoriak (Basokoa eta Abelazkuntza-Nekazaritzako Zona eta Landa) antolaketako kategoria bihurtuko dira.*

I. Tomoko "VI. Planoa - Lurzoru ez urbanizagarriaren kategoriak" izenekoak, aldi baterako onartu zen dokumentukoa, atal horretan adierazitako kategoriak zuzen jasotzen zituen. Horren ondorioz, Hirigintza Arauen 4.3.01.03.02. 4.3.01.03.02.01. eta 4.3.01.03.02.02. artikuluen edukia egokitu egin da interpretazioaren aldetik akatsik edo errorerik izan ez dadin.

*- Uholdea izan dezaketen eremuak mugatu beharko dira, eta hauek, higadura jasan dezaketenekin batera, antolaketa kategoriei gainjarritako baldintzatzat hartu beharko dira; halaz, proposatutako antolaketak onartzen dituen jarduketek eragin ditzaketen arriskuak saihesteko beharrezko muga osagarriak ezarri beharko dira.*

Dokumentu honetan, area higagarrien zedarriztapena sartu da, lurraldearen nekazaritza eta basogintza arloko planaren zehaztapenen arabera, LPPak duen edukitik berezituta, hor udalerriko gune zabalago batzuk aipatzen baitira.

Zedarriztapen bien arteko aldea edo ezberdintasuna alderdi hauetan sustraitzen da:

Debabarreneko LPPean sartuta daude higadura-arriskua izateko joera erakusten duten lurraldeko guneak edo eremuak, hain zuzen ere: aldapa handiko lurrak direlako (%50etik gora); sendoera txikiko lurzoruak eta substratu litologiko ezegonkorrak direlako. EAEko mapa Geomorfologiakoetan; Lurzoruetakoan eta Arrisku Naturaletakoetan oinarritzen da (1996).

Nekazaritza eta Basogintza Planean, ezaugarri litologiakoengatik eta erliebeagatik higadura handia agertzeko arriskuan egon daitezkeen guneak sartzen dira, Lurralde Planak berak egindako Higadura Eredu bereziaren aplikazio-emaitzen arabera.

Dokumentu honetan USLE ekuazioan oinarritutako higadura-eredua jarraitu da, lursail jakin batek, denbora jakin batean, lur motaren arabera, fisiografiagatik eta landarediaren arabera, uholde-baldintza jakin batzuetan, bataz bestean izan dezakeen lur-galera zenbatzen ahalegintzen dena.

Higadura-eredua, mendi magal handietan zehar aldapa-maila handiak dituzten aldeetan, edo, bestela, gune horien barrenean urari beheiti dauden lekuetan daude. Gune horiek, lurra babesterakoan edo isurketa-ur sortzaile gisa duten betekizun garrantzitsuagatik, a priori behintzat behar adina ezaugarri biltzen dituzte euren baitan erabilgarritasun publikoko menditzat deklaratzeko (mendi publikoen kasuan) edo mendi babesgarritzat hartzeko (partikularrak badira).

Uholde arriskua duten eremuei dagokienez, LZPean, Erreka eta Erreten bazterren LAPetik eta EAEko Uholdeen kontrako Plan Integralaren mapetatik abiatuta egindakoa, "B" planoa sartzen da: 2 eta 3 Baldintzatzaile Gainjarriak. Gune higigarriak eta uholde arriskuko guneak", non uholde arrisku handiko guneak azaltzen diren.

Dokumentu honetan, baldintzatzaile gainjarri gisa, Lurraldearen Nekazaritza eta Basogintza Arloko Planean, bai erreka eta erreten bazterren Lurraldearen Arloko Planean nola EAEko Plan Integralean bai eta Lurraldearen Zati Planean dauden eremu higigarriak eta uholde-arriskukoak jaso dira.

Azkenik, atal horiei dagokienez hauxe azpimarratu behar da: Eusko Jaurlaritzan uraren gaian eskumena duen Sailak egindako txostenean Plan Nagusi honen edukiaren inguruko balorazioa ona izan dela uholde arriskuko eremuen zedarriztapenari dagokionez, baita ubide alorrean legeriaren eraginpean dauden gune edo aldeetako baldintzen inguruan eta jarduteko araubidean.

*- Higadura jasan dezaketen edo higatzeko arriskuan dauden areetan, ahalegina egingo da lur-erauzketarik ez egiteko, lur gaineko eta lur gainaren azpitiko drainatze sareak ez aldarazteko, eta landaretza ez dadin desager; era berean, soildutako eremuak atzera zuhaitzez osatzea bultzatuko da, abeltzaintza erabilera aipatu helburuaren mendean jarriz betiere.*

*- Area hauetako basogintza jarduerek babes-basoak finkatzera joko dute, hain zuzen baliabide edafikoak bermatzearren hazkunde ertain edo moteleko zuhaitzak aldatuz, garbitze lan estentsiboak eta lur-mugimenduak ahalik eta gehien murriztuz, eskuz egindako landaketari lehentasuna emanez mekanizatuaren aurretik, eta mozte metodo progresiboak bultzatuz, esaterako baso-soilketara jo beharrean bakanketak edo segidako entresakak eginez, betiere derrigorrezko baimenetan agintari eskumendunek ezartzen dutenaren kaltetan izan gabe.*

Baldintza horiek biak Hirigintza Arauetako 4.3.01.03.04 artikuluan jaso dira.

*- Gogoeta bat egin beharko da, natura intereseko eremuetan nekazaritza erabilera arautzearen inguruan gertatzen den itxurazko inkongruentziari buruz; izan ere, horietan onargarritzat jotzen da egungo nekazaritza erabilera, baina paisaia-aisia intereseko eremuetan erabilera hori galarazita dago. Kontuan harturik aipatutako eremuetako lehenean sartzen direla ongi kontserbatutako bertako basoak, eta bigarrenean, berriz, Lurzoru Hiritarrezineko Espazio Libre eta Jolas Areetarako eremuak, baserri batzuk barne, egokiagoa izan daiteke erabilera hori galarazita egotea natura intereseko eremuetan, eta onargarri jotzea paisaia eta aisia edo jolas intereseko areetan dagoena.*

Atal hori zuzendu egin da Hirigintza Arauen 4.3.02.01.01., 4.3.02.01.03. eta 4.3.02.01.04 artikuluetan.

*- Paisaia eta jolas intereseko areen antolaketa berrikusi egin behar da; horretarako, Arrateko eta Sta. Kruzeko Parkeak horretatik ateratzea izan daiteke egokiena, hauek, hurrena, horrelako eremuetarako beste kategoria espezifiko batean sartuz.*

*- Paisaia eta jolas intereseko Eremu berriko (Arrateko eta Sta. Kruzeko inguruak atera osteko) erabilera eta jardueren arauketa egokitu egin beharko zaie haren ezaugarri eta berezitasunei eta LAAetan Babes Bereziko Zonetarako adierazitakoari; honek berekin ekarriko du, gutxienez, Arauetako 4.3.02.01.03 artikuluan «gehienez bere eremuaren %10 bideratu ahal izango da titularitate pribatuko jolas eta ostalaritza erabilerara» testua kentzea, erabilera onargarriei buruzko erredakzio berri batekin batera.*

4.3.02.01.03 artikuluak arautzen dituen paisaia eta aisia interes bereziko eremuetatik kendu egin dira Arrate eta Santakruzeko Parkeak, lurzoru ez urbanizagarrian aisia intereseko kategoria berri bat sortuta, Hirigintza Arauen 4.3.02.01.04 artikuluan arautuak.

*- Artezpide orokorretan jardueren kontrolari buruz ezarritakoa betez (LAAetako 8.5.3. atala), antolaketak jaso egin beharko du erauzketa-jarduerek ukitzen dituzten zonen mugaketa, erabilera hauetara bidera litezkeenen mugaketarekin batera.*

Erauzketa jarduerak garatu ahal izango diren lurzoru ez urbanizagarriko guneak edo eremuak modu orokorrean arautu dira, ez baitago jarduera hori garatzeko intereseko esparru berezirik.

*6. Hirigintzako Arauak.*

*- Hiri Antolaketako Plan Orokorra osatzen duten hirigintzako agiriek, ahal den guztietan, jaso egingo dituzte ingurumenaren gaineko eraginari buruzko baterako baloraziorako azterketak bere 6. apartatuan definitzen dituen babes, zuzentze eta konpentsazio neurriak. Zehazki, Hirigintzako Arauetako 3.3 Garapen antolamendua kapituluan berariaz aipatuko da ezen garapeneko antolamenduaren baldintza teknikoen orriek jaso egin behar dituztela hurrenez hurren 6. eta 7. ataletan proposatutako babes neurri guztiak eta ingurumen zaintzarako programa, ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako azterketarekin batera, jarduketa zehatz bakoitzari egokiturik, eta ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txosteneko eta behin betiko txosteneko zehaztapenen ildotik.*

Bai Hirigintza Arauei nola esparru bakoitzaren fitxa bereziei, Ingurumenarekiko Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanaren 6. atalean zehaztutako babes neurriak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak sartu dira.

*- Oro har, hirigintzako garapen berrietan erabilera erregimenak kontuan hartuko ditu egungo uholde-arriskuak, Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzaren «Lurzorua erabiltzeko irizpideak uholdegarritasun mailaren arabera» barne harturik; gainera, araudi orokorrean sartu egin beharko da hirigintzako jarduketak uholde-arriskua dagoen zonetan planteatzen direnean garapeneko antolamenduan jaso egin beharko direla arrisku horri buruzko xehetasunezko azterketak, hain zuzen etorkizuneko eraikinek kasuan kasuko inguruaren uholde-arriskua areagotuko ez dutela egiaztatzearren.*

Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak egindako txostena aldekoa zen proposatutako jardueren inguruan eta dauden uholde-arriskuen gainean.

*- Plan Orokorraren hirigintzako agirian, proposamen berriez gain, jaso egin beharko dira, bai Memorian bai Hirigintzako Arauetan, hiriko eremu finkatu bakoitzean, hots, antolamendua planeamendu berriari txertatzen zaion bakoitzean aplikagarriak diren hirigintzako erregimenak; halaz, dokumentuak argi eta garbi eskaini eta jasoko du planteatutako antolamendu oso-osoaren hirigintzako erregimena.*

Bai Txostenean nola Hirigintza Arauetan hiri finkatuaren eremu bakoitzari aplikagarriak zaizkion erreferentziak eta hirigintza-araubideak jaso dira, eta horren antolaketa planeamendu berrian txertatu da.

*- Planeko Hirigintzako Arauetako 8. tituluan, Erabilerei buruzko araudia delakoan, bere ataletan zehar azaltzen diren erabileren izenek eta hauen mota definituek koherentzia mantendu beharko dute agiriko V. eta VII. Planoetan hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarri osoari atxikitzen zaien Kalifikazio Orokor eta Xehekatuarekin.*
*Era berean, agiria osatu egin beharko da, erabilera-arauketaren eta honek zonetan izan dezakeen aplikazioaren arteko erlazio-jarraibideen ildotik.*

8. Tituluko kapitulu guztietan azaltzen diren izendapenen eta Dokumentuaren 5. eta 7. planoetan ematen zaizkienen artean dauden erroreak zuzendu egin dira, erabilera-erregulazioaren eta erabilera hori alde guztietan ezartzearen artean dauden erlazio jarraibideak osatuta.

*- «1.2.05.01.01. Planeamendu Orokorreko zehaztapenak» artikuluko aurreikuspenak eraginkorrak izateko, ezinbestekoa da lurralde zati bakoitzean zehaztea, edota planean jasotako proposamen zehatzetako bakoitzean bestela.*

Aipatu den artikulu horren edukia zuzendu egin da 1.2.05.01.03 artikuluak ezarritakoari egiten diola erreferentzia zehaztuta.

*- Zona bateko bolumen eraikigarriaren igoera orok, onartua izateko, ezinbestekoa izango du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 105. artikuluak eskatutako espazio libre handienetarako aurreikuspena egitea; ildo honetatik, zuzendu egin beharko da 1.2.05.01.03 artikuluak orain duen erredakzioa.*

1.2.05 eta 1.2.05.01.03 artikuluak zuzendu egin dira ELHLaren 105. artikuluaren edukira egokitzeko.

*7. Hirigintzako fitxak.*
*- Ibilguetatik hurbileko hiri-lurzoruan eta lurzoru hiritargarrian proiektatutako eremu guztietako hirigintzako fitxek adierazi eta grafiatu egingo dituzte eraikinen eta urbanizazioaren gutxieneko atzeraemanguneak, hain zuzen EAEko ibai eta erreka ertzetako Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoak.*

Uberketatik gertu dauden guneen hirigintza-fitxetan eraikinek eta urbanizazioak bete beharreko gutxieneko atzerapenak grafiatu dira; EAEko Lurraldearen erreka eta erreten bazterren Arloko Planean ezarritakoak.

*- Hiri Antolaketako Plan Orokorrean jasotakoen artean zaratak gehien erasaten dien area edo sektoreetako hirigintzako fitxek jaso egin beharko dute zertzelada hori, hain zuzen eremu horiek garatzen dituzten proiektu eta planeamenduak (alorreko planek, plan bereziek, hiritartze eta eraikitze proiektuek, etab.) prebentzio zein zuzentze neurririk egokienak planteatu ahal izan ditzaten (igortze-guneen kontrola, zaratari buruzko ordenantzaren araberako arauketa, zarata-pantailak jartzea, fatxada eta leihoen tratamendua, sektorea baldintza akustikoen arabera antolatzea, eraikinetako barne-espazioak zarataren arabera banatzea, etab.).*

Aipamen hori Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioari buruzko Azterlanean (IGEBEBA) zaratak gehien kaltetzen dituen aldetzat jasotako fitxetan jaso dira.

*- Merkataritzako ekipamendu bat har dezaketen eremuetan, garapeneko antolamendurako zehaztapen lotesletzat jasoko da erabilera erregimena bat etortzea Lurraldearen Arloko Planean adierazitako mugekin; halaz, merkataritzako ekipamendu berrien gehienezko neurriak arautzeko parametroak honakoak izango dira: «Zelaiguneko gehienezko eremu garbia: 40.000 m²»; eta «Sabai eraikigarriaren gehienezko eremua: 13.000 m²».*

Muga hori Erisono sektorean jaso da, izan ere sektore hori baita LAPean esandako mugekin merkataritza-ekipamendu bat hartzeko gai dena.

*8. Beste batzuk.*
*Udalak mugikortasun iraunkorrerako plan bat proposatuko du, trafikoa eta aparkalekuak antolatu ahal izateko eta automobilaren erabilera masiboa murrizteko, bide batez autoaren ordez ingurumenarentzat hain kaltekoak ez diren beste garraiobide batzuen erabilera bultzatuz (garraio publikoa, bizikleta, oinez).*

10.1.01 artikuluan Mugikortasun iraunkorrerako Udal Plangintza bat egiteko asmoa jaso da, trafikoa eta aparkalekuak antolatzen utziko duena eta autoaren larregizko erabilerari galga ipintzeaz gain ingurumenari mesedegarriagoak zaizkion beste bitarteko batzuekin ordezkatuko duena (garraio publikoa, bizikleta, oinez...).

*9. Azkenean, gutxienez honako akats hauek konpondu beharko dira:*
*- «7.3.4. Lur gaineko Uren babeserako Zona» izeneko atala kendu egin beharko da Memoriatik; izan ere, kategoria hau Lurzoru Hiritarrezin Babestuaren barnean dago sartuta, agiri bereko 7.3.2. atalean ezarrita dagoen bezalaxe.*

7.3.4. atala kendu egin da 7.3.2. atalaren barruan zegoelako.

*- Era berean, «Lurzoru Hiritarrezineko kategoriak» delakoari dagokion Planoari buruz 8.17.1 atalean egiten diren aipamenak zuzendu egin beharko dira, zeren eta aipatzen diren epigrafeak ez baitira existitzen.*

8.17.1 artikuluaren edukia zuzendu egin da Egitura Orokorraren eta Organikoaren Planoari eta Lurzoru Ez Urbanizagarriko Kategorien Planoari dagozkien erreferentziekin.

*- Memoriaren 94. orrian eta IV-0-C-EG-01 planoan hiri izaerako parkeei atxikitzen zaien eremua ez dator bat. Gauza bera gertatzen da udalerriaren eremu osoari buruz lurzoruaren eremu-sailkapenerako taulan eta kalifikazio orokorrekoan ematen den kopuru osoarekin ere.*

Kopuru horretan zegoen akats materiala zuzendu egin da.

*Bigarren: Behin betiko onarpen honen eraginkortasunak, Erisonoko industri sektoreari dagokionez, baldintzatzat izango du ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostenean eskatutakoa betetzea, horretan agintzen baita alternatiben analisi bat prestatzea eta aurkeztea. Analisi honek, ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuaren eranskineko 4. apartatuan zehaztutakoarekin bat, kontuan hartu beharko ditu jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaria estaltzeko beste alternatiba posible batzuk ere, azkenean gai honetarako irtenbide bat optimizatzeko eta justifikatzeko.*

Erisono sektorearen inguruko proposamena garatu eta sartu aurretik aztertu diren aukera guztien egikerari eta azterketari buruzko Eranskina ere barneratu da. Hain zuzen ere, Erisono garatu ordez, aukeran, beste proposamen batzuk ere aztertu dira: Azitain (Sortaldera dagoen malda garatzea); Murrategi (han dauden bizitegi-eraikinak kendu eta industria-jarduketa berriak ezarri); Txonta (egitekotan dagoen bizitegi-esparruaren urari goiti dagoen ibarbidea garatuta); Arrajola (Arau Ordezkatzaileetan proposatutako aldean industria-eremu bat garatuta, gune libre bezala); edo, Zaturio garatzea.

Dokumentuan barneratu dira Matsaria eta Iburrerrekako proposamenak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako behin betiko txostenean aipatzen direnak. Ez dira kontuan edo aintzat hartu udalerritik kanpo dauden proposamenak, horiek garatzeko eskumenik ez dagoelako.

*Osterantzean, behin betiko onarpen honen eraginkortasunak, IA-09LK planoan jasotako eta kutsagarria izan daitekeen jarduuretakoren bat kokatuta dagoen tokian bizitoki erabilerarako kalifikazio aldaketa bat planteatzen den balizkoetan, baldintzatzat izango du Eusko Legebiltzarraren otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, aurreikusten duen lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa lortzea.*

1/2005 Legearen edukiaren arabera, lurraren kalitatearen deklaraziorako behar diren tramiteak egiten hasi dira, eta bizitegi erabilerarako aldaketa izango duten esparruetako zehaztapenen betearazpena lurraren kalitatearen aitorpen hori eskuratzearen menpe geratzen da, mugapen hori Hirigintza Arauen 3.1. artikuluan barneratuta.

Horren eraginpean dauden aldeak hauek dira:

| BARRUTIAREN KODEA | IZENDAPENA | KOKAPENAREN KODEA |
|---|---|---|
| A.I.-109.01 | ARANE, URTZAILE. | A-118.1-5 |
| A.A.-116.01 | UBITXA (13-15) | A-42 |
| A.I.-117 | BLAS ETXEBARRIA 3 | A-84 |
| A.I.-118 | ESTAZIÑO | A-105.1-9 / R-104.1-5 |
| A.I.-119.01 | IBARGAIN KALEA | A-87.1-6 |
| A.A.-121.01 | BITTOR SARASKETA 1 | A-110.1-13 / R-109.1-2 |
| A.I.-124.01 | ERREKATXU | S-55.1-2 |
| A.I.-125 | TXONTA | A-130.1-2 / I-131 / A-132 / A-133.1-6 / A-136.1-9 / A-135.1-4 / A-139.1-7 / A-142 / A-143.1-2 / A-144.1-6 / R-138 / A-137 / A-134.1-6 / A-129.1-2 / A-145.1-2 / A-126 / A-146.1-15 / A-164.1-2 |
| A.A.-141.01 | JARDIÑETA (34) | A-83.1-11 |

*Hirugarren: Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan izan gabe, eta argitaratzera eta indarrean sartzera begira, Eibarko Udalak onartu eta Foru Aldundi honi igorri beharko dio, gehienez ere hiru hilabeteko epean, erabaki honetako lehen atalean adierazitako baldintzak betez eginiko dokumentu bateratua.*
*Horretaz gain, Udalak aztertu egin beharko du ur eta kultur ondarearen arloan Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordeari igorritako txostenetako edukia, hain zuzen aipatutako Testu Bateratuan kontuan hartzea komeni ote den erabakitzeko.*

Baldintza hori betetzearren egin da honako Testu Bategin hau, eta ur alorrean eta kultura ondareari buruzkoan egindako txostenen edukia aztertu ondoren -Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordearen aurrean aurkeztutako txostenak- ez da inongo Xedapen Osagarririk barneratu.

## 1.6.- Plan Orokorraren premia

Planaren premia ez da premia abstraktu bat. Gaur egun konpondu beharrekoak diren arazo konkretuei erantzuna eman beharrak ekarri du, bereziki gaur egungo egoeratik sortzen diren -oraindik azaltzen hasi baizik ez badira ere- arazoei dagokienez.

Arazo horiek ez dira berriak, egia da, baina horien hainbat alderdi kontuan hartzea ere, besterik gabe, gauza berria da. Aspaldiko problema zahar askok ere, betidanik halakotzat formulatu izan direnak, berriro formulatzea eskatzen dute gaur egun.

1908. urtean, jadanik, Gregorio Mujika Jn.ak “Monografía Histórica de la Villa de Eibar” liburuan Eibarko hiriak zein muga zituen aipatzen zuen:

> “9.000 biztanleko herria da gaur Eibar, Ego ibaiaren ertzean kokatua eta mendiz inguratua dagoena. Dagoen leku horrexegatik, kale aldapatsuak eta malkartsuak ditu, eta oso zaila gertatzen zaio biztanleriaren hazkundearen ondorioz premiazkoak dituen etxeak eraikitzeko lurrak aurkitzea”.

Denborarekin, hala ere, hiria hazi egin da; hiria inguratzen zuten malda malkartsuetan kokatutako lurzoru elkorrak betez joan dira, eta inoiz pentsatuko ez zituzkeen saturazio mailetara iritsi da.

Gertatuak gertatu izanaren ikuspegi historikoarekin, Enrique García Manrique Jn.ak Gregorio Mujika Jn.ak esandakoen kontrakoa esan zuen, askoz ere geroago eta udalerrian izandako garapenaren esperientzian oinarrituz. Bere “EIBAR: INMIGRACIÓN Y DESARROLLO URBANO E INDUSTRIAL” (1961) obran jasotzen dira hark esandakoak:

> “... Garai hartan oraindik ez zegoen hiria mendi maldetan gora zabaltzeko arazorik; hamar urteren buruan 6.503 biztanle izatetik 10.121 biztanle izatera aldatu zen Eibarko hiria. Ezta gerra garaian ere, hau da, 1934ko urtean herriak 13.431 biztanle zituenean, ez zegoen etxebizitzak eta industria egiteko inolako leku arazo larririk”.

Autore horrek berak azaltzen du bere lanean Eibarko biztanleriaren hazkundearekin eta industriaren garapenarekin sortutako arazoen lehenengo aztarnak zein izan ziren:

> **“1. Etxebizitzaren arazoa:** ... Horixe da Eibarren lehen-lehenengo arazo handia: aurreko urteetan hiri honen deiari erantzunez etorri den jendetzari etxebizitza duina nola eman. Eta horrek ez du konponbide errazik.
> 1937an Eibarrek bere eraikinen heren bat galdu zuen suntsiketaren eta suteen ondorioz...
> ...Urte horretatik aurrera hasi zen *Eibarko etxebizitzaren arazoa, geroztik, konpondu ez baina gerotik gerora larriago bihurtuz joan dena*.
> ...Inmigrazioaren eta bertako hazkundearen eraginez izan den gorakada honek eskatzen duen etxebizitzak eraikitzeko erritmoari ezin izango dio azken hilabeteetaraino bere enpresak zabaltzen aritu den Eibar honek erantzun, ez badio, behintzat, fabriken hazkundeari eman dion maila bereko eskala handian erantzuten arazo horri.
> ...Eraikitzen ari diren etxebizitza berrien gain makurtu da espekulazioa.
> ...Soluzioa, berriz, etxebizitzak bai, baina etxebizitza merkeak egitea da.
> ...Eibarko etxebizitzen arazoa ez litzateke Estatuko beste hainbat hiritako etxebizitzen arazoa baino konplikatuagoa izango, leku faltak arazo hori are larriago egingo ez balu, hau da, langileak, laguntza arruntak jasoz, etxe apal bat prezio merkean egiteko ahalmena izango balu.”

> **“2. *Eibarren demografiazko etorkizuna:*** *...egia da, bai, inmigrazioaren olde hori Eibarrera iritsi zenean, Eibarko biztanleriak bazituela, ordurako, zahartze sintomak, zentzu demografikoan hartuta, hau da, biztanleria hori gutxi ari zela berritzen, haur gutxi jaiotzen zelako, eta, horregatik, gizaki helduen eta zaharren ehunekoa handiegia zelako haur kopuruarekin konparatuta.”*

> ***“3. Hornidura eta garraioa:*** *...Eibar, etxebizitzaren aldetik txikia gelditu da, eta bere etxeak zabaltzeko orduan bere kokaera antinaturalaren eragozpenarekin egiten du topo, eta bizirik irauteko baliabideei dagokienez ere antzeko zailtasunak aurkitzen ditu.*

*...Eibarrek bere industriaren azken goraldi horren aurretik 135 baserri zituen; ordain, ordea, baserri horien %50 hustu egin dira, bertako oinordekoek beren lanari etekin handiagoa ateratzen diotelako fabriketara joanez.*
*...Emaitza horien ondorioz, gero eta janari gehiago aurkitu behar izaten du Eibarrek herritik kanpora. Merkataritza bideak, ordea, antzina zeuden bide berak dira ia-ia."*

***"4. Arazo industrialak:*** *...Eibar, izan ere, tailer handi bat baita, tailer erabatekoa, gaur egun. Badaude, egia da, fabrika handi batzuk ere, baina "handien" zerbitzuko tailer txikiak eta artisau txikiak dira nagusi. Denak haran txiki horretan, produktu guztiak garestitzea eta fabrikak zabaltzeko eta etxeak egiteko gero eta arazo handiagoak izatea beste ezer lortu gabe, pilatzen zergatik tematzen diren galdetzen zaienean, horretarako arrazoia eibartarrak bere herriari dion maitasuna dela erantzuten dute, nagiak direla beste inora emigratzeko, eta beren jaioterrian eroso asko bizi direla, beren lanaren ordainez industriak ematen dizkien prezio altuengatik.*
*...Kontua da, ordea, Eibar etengabe ari dela hazten edozein industria txiki berri edo zahar kokatzeko oso leku egokia delako. Tailer txiki horiek dira, hain zuzen, , inguru antinatural horretan gero industria eta gehiago pilatzen joateko arrazoia. Eibar lantegi oso bat baita, hain zuzen.*
*...bere euforia industrial hori erakusten duen arren, etorkizunean pentsatzen bada, arazo larriak izango ditu Eibarko industriak. Produkzioa ezinbestez hobetu beharra dago, lehenik eta behin. ...Eibarko industrian gehiegizko indibidualismoa dago, eta hori eragozpena izan da etxe desberdinak elkartu eta kontrako zirkunstantzia gaiztoei elkarturik aurre egiteko.*
*...Aipatu beharra dago, jakina, industria horri zer kalte etor lekiokeen Europako Merkatu Batuarekin. ...zeren bidalitako guztia irensten zuen eta kalitateari gehiegi begiratzen ez zion merkatu bat baitzuen orain arte. Espainia, ordea, Europako Merkatu Batuan sartzen den egunean, guztiak krisi larria ezagutu beharrean dago industria hori guztia, artisau mailako lan gehiegi egiten duelako eta ezingo duelako, beraz, nazioarteko prezioetan lanik egin, eta produktuaren estandarizazioa faltako zaiolako. Indibidualismoak eta artisautzak automatismoari utzi beharko diote lekua, prezioetan, eta baita kalitatean ere, lehiatu ahal izateko.*
*...Etorkizun horri begira, agian, industriak Eibarko kokaera horretan duen itotasuna sentitzen duten industrial handiek zabaldi handiak dituzte buruan, eta Gasteiz zehazki, eta hara begira jarriak dira dagoeneko horietako bakarren batzuk."*

Ikusten denez, hiriak gaur egun dituen arazoak ez dira, funtsean, Gregorio Mujikak eta García Manriquek aipatutakoen oso desberdinak. Gaur, ordea, orain arte bizitzako garapen prozesutik sortutako arazoak konpondu behar dira, eta horrek eragiten du gaur egungo egoera kualitatiboki konplexuagoa izatea.

Arazo hori garbi aipatzen zuen Juan San Martin Jn.ak "Monografía Histórica de Eibar" liburuaren hirugarren argitalpenaren hitzaurrean, une honetan Korporazioak erabat onartu duen laneko tesi bat aurreratuz:

> *"...Suspertze premia larria daukagu gaur egun, hirugarren iraultza industriala, zibernetikoa, gainera datorkigun honetan. Orain, gure bizi espazioak dituen mugak ezagutzen ditugunez, burugabekeria izango litzateke iraganeko akatsak berriro egitea, eta kalitatea hobetzeko bidea hartu ordez handitzeko bidea hartzea. Gauzak zehazteko orduan arreta handiagoa jarri beharko litzaioke zerbitzuen sektoreari eta langileria kualifikatua eskatzen duten artikuluei, gure azpiegiturak berak dituen faktore baldintzatzaileak kontuan hartuz. Horretarako kopiatu egin behar da, talentu handiko eta espiritu kolektibista handiko gizonen kopiak egin. Historiaren ikasgaian ere ezin baita ahaztuta utzi Eibar beste herri askoren aurretik ibili zela kontsumoko eta industriako kooperatibak antolatzen. Horiek dira beti gure bereizgarri izan ditugun bide nagusiak, historian zehar izandako krisialdiak gainditzen lagundu digutenak."*

Arazo hauen konponbideek XIX. eta XX. iragan mendeetan Eibarko hirian bideratutako hainbat antolamendu baliabidetan izan dute erantzuna.

XIX. mendearen amaieran, hiri kalitatea hobetzeko eskakizunen eta hiria beharrezko azpiegiturez hornitzeko premien aurrean, Saneamendu eta Egituraketen Plan bat onartu zen, eta hura izan zen Eibarko hiri antolamenduari konponbidea aurkitzeko lehen ahalegina.

Geroztik, XX. mendean zehar, Gerra Zibilak eragindako suntsipenaren ondoren batik bat, "Regiones Devastadas" ("Eskualde Suntsituak") Erakundeak hasitako hainbat esku-hartze berezi gauzatu ziren hiriaren berreraikuntza antolatzeko asmoz.

50eko hamarkadan, 1956ko Lurzoru Legearen babesean, Plan Orokorra idatzi zen, 1959an behin betiko onartua. Egitasmo horren bidez industriaren garapenarekin eta lan jarduerak erakarrita hirira iristen ari zen inmigrazio tasa handiarekin sortutako premia eta arazoei erantzun nahi zitzaien.

Hiriaren hazkunde eta garapen aldia amaitu zenean, 1976ko Lurzoru Legearen Testu Berrituaren babespean, Arau Subsidiarioak idatzi ziren, eta 1989an onartu ziren behin betiko. Agiri horren bidez hiria osatu nahi zen, horretarako hiriaren hedapen berriak har zitzaketen azken ibarretako garapena antolatuz.

Arau Subsidiarioak indarrean egondako aldia iragan ondoren eta *“1.- SARRERA”* atalean adierazitako iritziak abiapuntutzat harturik, oraingo Plan Orokor hau idazten da, Plan Estrategikoan zehaztutako hiri ereduari erantzuteko asmoz.

## 1.7.- Plan Estrategikoa

Azken hamarkadetan pilatutako esperientziak frogatu digu hirigintzako dokumentua, azkenean, lan teknikoa izaten dela batez ere, zurrunegia, gizartearen eskaerak asimilatu eta haiei erantzun egokia emateko gaitasunik ez duena. Garbi ikusi da gizartean gertatzen diren aldaketen erritmo biziak, egunetik egunera lotuago baitaude nazioarte mailako garapen gertaerekin, hainbat aurrera urrats eta garatze eskatzen dituela, eta hirigintzako markoaren garapena ez dela, gehienetan, haiekin batera joaten.

Hirigintza zientziaren mailan esanda, honela definitzen da *“hiri baten ingurunea”*: hiriaren kanpoko gertakizun, prozesu eta agenteen multzoa, hiriaren garapen prozesuan eragin bizia, batzuetan saihestezina, sortzen duena. Beste era batera esanda, hemen esan nahi dena da berrikuntza teknologikoak edo mugimendu soziologikoak azkenean hiriaren sistemari eragin eta hartan sartzen direla, hiriaren oparotasunaren eta bizitzeko egokitasunaren aldetik izan ditzaketen eragin negatiboak kontuan hartu gabe.

Errealitate hori onartzen bada, ezinbestez onartu beharko da enpresaren plangintza estrategikoari buruzko kontzeptuak hiri garapenaren esparrura aldatzea ere egokia eta premiazkoa dela. Lekualdatze horren kausak era honetan adieraz daitezke laburki: inguru geopolitiko, sozial, ekonomiko, teknologiko eta administratiboak hiriaren garapena baldintzatzen duten, eta plangintza tresna tradizionalak aldatzera eta berritzera behartzen duten inplikazioak eragiten ari dira.

Kasuistika horren arrazoiak era askotakoak izaten dira: plangintza tresnak eta irudiak nabarmen zurrunak izaten direla, beren izaera juridiko horrexek ematen dien zurruntasun batez; jende xeheak nekez uler dezakeen edukia duten dokumentuak izaten direla eta diziplina anitzetako taldeek formulatuak askotan, eta talde horiek, beren aldetik, hobeto edo okerrago asmatuz, udalerriko ordezkari politikoek finkatutako helburuak jasotzen saiatuz egiten dutela lan hori.

Planen elaborazio prozesuak berak, onespen eta aldaketa prozesu luzea jasaten baitute planek, denbora tarte luzea igaroarazten du hazkunde igurikapenak markatzen eta gauzatzen dituen diseinua egiten denetik behin betiko onartu eta operatibo jartzen diren arte.

Bestalde, helburuak finkatu eta alternatibak diseinatzeko prozesuan, legeak ezarritako jendearentzako aurkezpen epeetara bakarrik mugatuta eta baztertuta egoten da herritarren eta agente sozialen partaidetza, eta epe horretan jendearen partaidetza gehiago izaten da interes puntualak eta partikularrak kontuan hartzeko, egindako hiri proiektuaren kontzeptua bera eta edukia aztertzeko baino.

Plangintza ekonomikoak ez du aski eragin izaten plangintza fisikoan eta hirigintzako plana dokumentu itxi, estatiko eta bukatu bezala ulertu ohi da, hiriaren horizonte urteko irudi aurreratua eman nahi du eta hirigintza prozesuaren alderdi fisikoetara mugatu ohi da.

Antolamendu orokorreko tresnek egindako proposamenen edukia eta balioa aztertzeko orduan, funtsezko elementua izaten da hiriaren geroko antolamendu proposamena markatuko duten helburuak definitzeko eta zehazteko prozesua.

Erraz uler daiteke ezen orain zehazten diren helburuak eta irizpideak direla hiriaren etorkizuneko garapena orientatu eta definitu behar dutenak, alderdi guztietatik begiratuta. Adibidez, helburu horietan zehazten dira, diagnostikotik abiatuz, zein diren estali beharreko gabeziak eta zein diren etorkizuneko garapenak bultza edota muga dezaketen elementuak, eta agente desberdinek, hautatutako eredua lortzeko, martxan jarri beharko dituzten ekintzen orientazioa zehaztera ere iritsi ohi dira.

Azken urte hauetan, enpresetan, lortu beharreko helburuak finkatzeko, helburu horiek lortzeko bideratu behar diren ekintzak eta proiektuak eta ekintza globala zein lan lerrotan egitura daitezkeen erabakitzeko erabiltzen diren plangintza estrategikoko prozesuak baliatu dira hirietan laneko metodologia bezala.

Hala ere, hirietako plan estrategikoak hirigintza plangintzako tresnetatik erabat askatuta, edo haiekin aurrez aurre, geratzen ziren prozesuak izan dira ia oro har.

Gure proiektu honetan, oro har “EIBARKO HIRIAREN PROIEKTUA” dei genezakeen honetan, plangintza estrategikoko eta hirigintza plangintzako bi dokumentuen artean konjuntzioa, koordinazioa eta lotura lortzearen alde egin da apustua.

Eibarko hiriaren kasuan garrantzitsua da etorkizunean zein hiri eredu lortu nahiko genukeen hautatzea, eta hiriaren ezaugarri geografikoetatik sortzen diren mugek nabarmen baldintzatuko dute hautaketa hori.

Beraz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiten hastea erabaki zen unean, planeamendua plangintza estrategikoaren ikuspegitik egiteko era berriaren aldeko apustua egin zen argi eta garbi.

Ikuspegi horretatik begiratuta, beraz, hiri honentzako etorkizunerako proiektu bat bezala prestatu da Plan Orokor hau, eta halaxe aurkezten zaio gizarteari, hark bere atxikimendua adieraziko dion eta bere ahalegina bateratuko dion uste osoarekin.

Plan berria egiterakoan oinarrizko bi helburu kontuan hartzea eskatzen du premisa horrek: dokumentu ireki eta malgu bat sortzea, hiriak ezinbestez martxan jarri beharko duen eboluzio prozesura egokitzeko gai izango dena, eta gizartearen aldetik dokumentu horrekiko ahalik eta adostasun maila eta laguntza maila handiena lortzea, horretarako, bai plana egiterakoan eta bai plana garatzerakoan, gizartearen partaidetza sustatuz.

Malgutasuna, erabakiak beren garrantzia edota lotura mailaren arabera bereiziz lor daiteke; gizartearen aldetiko atxikimendua lortzeko, aldiz, herritarren, erakundeen eta gainerako guztien parte hartzea bultzatu behar da.

Ikuspegi kontzeptualetik begiratuta, Plan Orokor berriak hiriaren bizi kalitatean igoera nabarmena lortzea beharko luke helburu nagusia, garapen iraungarriaren ikuspegitik begiratuta.

Gaur ditugun arazoen konponbidea eta beharrezko oreka maila orokorra lortzeko, orain daukagun hiriaren hiri egitura hobetuz baizik ezin lortu ahal izango da. Ez da nahikoa, ordea, lurraldea berriro orekatzen ahalegintzea; gehiago behar da, hain zuzen ere hori baita gizarteari benetako etorkizun proiektu jator bat, hau da, ilusioz betetako proposamenak dituen proiektu bat, definitzen ari garela antzemateko aukera emango diona.

Planeamendu modu berriarekin, ahal den neurrian, aurreko planeamenduaren gestioak agerian utzi dituen akats nagusiak zuzentzen saiatuko gara. Gaur egun daukagun hiriaren irudia iraganean sortzen zitzaizkien arazoei konponbide bat aurkitzeko burututako ekintzen emaitza da, betiere udal mugapearen beraren espazio fisikoaren muga barruan jokatuz.

Horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa dela eskualde mailako udalaz gaineko eremuaren ikuspegia berreskuratzea, plangintza hau Eibarko lurralde eremurako bakarrik egiten bada ere. Horrek esan nahi du epe labur, ertain eta luzerako proposamenen arteko oreka berreskuratu behar dela, hiriaren eta bere inguruaren puntu ahulak eta puntu sendoak, aukerak eta ahuleziak zein diren xehe-xehe aztertuz. Beste era batean esanda, plan berriari ezinbestez heldu beharko zaio plangintza estrategikoaren ikuspegitik begiratuz, horretarako elkarteek eta industriek beren garapen eta etorkizuneko orientazioa planifikatzeko erabiltzen duten metodologia geureganatuz.

Irizpide horiekin erabaki zen, talde politiko guztien adostasunarekin, plan berriaren prestaketa plangintza estrategikoaren ikuspegia harturik egiten hastea, azkenean agente sozialekin adostutako, udalaren jarduera plan desberdinak egituratuz eta koherente mantenduz egindako, eredu bat definitzera iristeko, aukera hauek eskainiz:

1. Hiria garatzeko eta berritzeko beharrezkoak diren inbertsio produktiboak erakartzeko gai izango den udal lehiakor bat lortzeko aukera, udalerri hau Debabarrengo Eskualdearen buru dela kontuan harturik.

2. Herritarrei "hiri eskubidea" baliatzen utziko dien udalerri partizipatiboa izatera iristeko aukera.

3. Gustura bizitzeko eta giza maila egokiko udal bat lortzeko aukera, hiriaren eta lurraldearen kalitateari garrantzia emanez, eraikitako bilbean beharrezkoak diren jarduerak eginez eta industria zaharkituek eta eraikin hondatuek hartzen dituzten espazioak berreskuratu eta berriro erabiltzeko eragiketak eginez.

4. Gaur egungo hiri ereduak sortzen dituen desberdintasunak eta bazterkuntzak zuzenduko dituen udalerri solidarioago bat lortzea.

## 1.8.- Plan Estrategikoaren Diagnostikoa

Plan Estrategikoa egiterakoan hainbat aldi desberdin izan dira eta aldi horietan agente sozial desberdinen partaidetza indartzen saiatu gara.

Plan Estrategikoan oso era desberdinetako ekintzak eta jarduerak sartuko zirela pentsatuz, eta horiek guztiek ez dutela, nahitaez, lurraldean zertan eraginik izan gogoan harturik, era honetako lanetan izan ohi diren irizpideak jarraituz hasi ginen diagnostiko lanak egiten, agente sozialentzat partaidetza eta ordezkaritza handiagoa bilatzen saiatuz.

Ikuspegi honekin hartuta, iruditzen zaigu jarduera publiko eta pribatuetarako erreferentzia markoa eman behar duela Plan Estrategikoak, bertan definituz agente sozialek eta administrazio publiko desberdinek beren jarduerak enfokatzeko eta zuzentzeko erabili beharko dituzten lehentasunezko jokabideak.

Horren arabera, Hirigintza Batzordea osatzen duten talde politiko desberdinen ikuskaritzapean, Planak berak izan beharko lukeen antolamendu egitura zehaztu zen aurrena, eta Batzorde Eragilean talde politiko, sindikal, enpresarial eta kultural guztietako ordezkariei eta, azken finean, hirian diharduten agente sozial guztiei sartzeko aukera eskainiz, herri, probintzia eta autonomia elkarteko administrazio publiko guztiak ere barne harturik.

Inkesta zabal bat egin zen lehendabizi “Delphi” metodoa erabiliz, eta gerora inkesta horrek eztabaida eta laneko lehen dokumentuak lantzeko balio izan zuen.

Hortik aurrera, lehenengo lan taldeak eratu ziren, eta Eibarko gizartearen ordezkaritza aski esanguratsua izango zuen talde batean parte hartzeko gonbita egin zitzaien.

Talde horien barruan egindako lanean oinarrituta, eta haren emaitza gisa, hiriaren diagnostikoa egin zen, eta puntu sendoak eta puntu ahulak, arriskuak eta aukera desberdinak zein diren deskribatzera iritsi ginen, den-dena agente sozial desberdinetako ordezkarien artean izandako eztabaidetan eta adostasunean oinarriturik.

Hauek izan ziren diagnostiko horren ondorio nagusiak:

### 1.8.1. Kapituluaren ondorioak

Kapitulu honetatik ateratako ondorio nagusiak jaso dira ondoren, bi bloke handitan banatuta: Joerak eta Puntu Sendoak/Ahulak.

Joeren atalean, beren jatorria Eibarko udala bera baino goragoko eremuetan duten interes faktore nagusiak sartzen dira, beren eragin orokorrarengatik Eibarren ere, zuzenean edo zeharka, eragina dutenak, jakinik eragin hori izan daitekeela hiriaren Garapen Sozioekonomikoarentzat positiboa (Aukerak) zein negatiboa (Arriskua), Eibarrek gaur egun duen abioko egoeraren arabera.

Puntu Sendo/Ahulen atalean, beren jatorria udalerri barruan duten interes faktore nagusiak sartu dira, udalaren gaur egungo egoeraren ondorioz sortutakoak, inguruaren egoerarekiko konparazioan hartuta. Faktore horiek izan daitezke Sendoak, Eibarren egoera, puntu horretan, abantailazkoa baldin bada, edo hortik abiatuz aurrera egiteko aukerak izan baditzake, ala Ahulak, Eibarko egoera desabantailazkoa baldin bada, faktore horiek zuzentzeko edo hobetzeko neurriak hartzen ez baldin badira behintzat.

## JOERAK

| | AUKERAK | | ARRISKUAK |
|---|---|---|---|
| *Hiriaren eremua: biztanleriaren hazkundea* | *• Hiri barruko erabileren oreka mantenduz egindako hirien hazkundea.*<br>*• Hiri areetan kontzentratzearen gorakada.* | *Hiriaren eremua: biztanleriaren hazkundea* | *• Bazterkuntza gune berriak agertzea.*<br>*• Europar Batasunaz kanpoko herrialdeetatiko inmigrazioaren gorakada.*<br>*• Metropoliko hiriguneetako biztanleriaren beherakada.*<br>*• Erretiratutako langileak beren jaioterrira itzultzea.* |
| *Gizarte Ongizatearen zerbitzuak: Osasuna, irakaskuntza, zerbitzu sozialak* | *• Osasunean inbertitzeko premien gorakada.*<br>*• Irakaskuntzako Zerbitzuen eraldaketa: hezkuntza sistema berriak.*<br>*• Oinarrizko azpiegitura batzuen murrizketa, jaiotze tasa gutxitu izanagatik.*<br>*• Zerbitzu sozialen eskaintzaren gorakada, hirietan deszentralizazio handiagoa erakusteko joerarekin.* | *Gizarte Ongizateko zerbitzuak: Osasuna, irakaskuntza, zerbitzu sozialak* | *• Biztanleria zahartzea.* |
| *Garapen kulturala* | *• Oinarrizko kultur jardueren gorakada.*<br>*• Proiekzio handiko kultur jarduerek jarduera ekonomiko handia sortzen dute.*<br>*• Erakundeen laguntza eta "esponsorizazio" pribatua indartzea.* | *Garapen kulturala* | |
| *Hiri ekipamendua: leku irekien erakargarritasuna* | *• Aisia denbora gehitzea, eta, horrekin, kiroletako eta jolaseko espazioen eta jardueren eskaerak gehitzea.*<br>*• Hiria erabiltzeko elementu bezala baloratzea.*<br>*• Hiri historikoen birgaitzea.*<br>*• Hirietan denda espezializatuak kontzentratzea.* | *Hiri ekipamendua: leku irekien erakargarritasuna* | *• Aparkalekuen eta zirkulazioa erregulatzeko eskakizunen gorakada.* |
| *Aisiako eta kiroletako jarduerak* | *• Denbora librea gehitzea.*<br>*• Kiroletako eta aisiako azpiegiturak ugaltzea. Aisiaren kultura handiagoa izatetik herritarrengan sortutako eskarien gorakada.*<br>*• Kirolen praktikarekin erlazionatutako jarduera tertziarioen hazkundea.* | *Aisiako eta kiroletako jarduerak* | |

# PUNTU SENDOAK ETA PUNTU AHULAK

| | *PUNTU SENDOAK* | | *PUNTU AHULAK* |
|---|---|---|---|
| *Hiriaren eremua: biztanleriaren hazkundea* | • *Eibarko biztanleriaren gehiegizko saturazioa gutxitu egin da.*<br>• *Eibar mantendu egiten da eskualdeko herri nagusi bezala.* | *Hiriaren eremua: biztanleriaren hazkundea* | • *Biztanleriaren beherakada, eboluzio hori batere gelditu gabe.*<br>• *Biztanleriaren sektore berritzaileenak galtzea.*<br>• *Enpresa eta ekonomia tradizioa duten familiak galtzea.* |
| *Gizarte Ongizatearen zerbitzuak: Osasuna, irakaskuntza, zerbitzu sozialak* | • *Osasun zerbitzuaren maila ona, larrialdietako zerbitzuan defizit batzuk dituen arren.*<br>• *Oinarrizko hezkuntzaren maila ona, eskualdeko prestakuntza zentroa delarik.*<br>• *Hiriko kolektiboen artean maila oneko erlazio herritarra.* | *Gizarte Ongizatearen zerbitzuak: Osasuna, irakaskuntza, zerbitzu sozialak* | • *Osasun zerbitzuen potentziala galtzea.*<br>• *Zerbitzu sozialetan defizitak, haurtzaindegietan eta gazteentzako ekipamenduetan batez ere.*<br>• *Aisia zentralizatzeko zerbitzuen zuzkidura urria: eskualde maila.*<br>• *Gazteak hiri proiektuan integratzeko premia.*<br>• *Langabezia tasa altuak, 40 urtetik gorakoen eta gazteen artean.* |
| *Garapen kulturala* | • *Kultur ekipamenduko zuzkidura ona Portalean.*<br>• *Ekimen eta dinamika kultural ona: ikuskizunen eskaria entitateen aldetik, Antzerki Jaialdia, etab.*<br>• *Erakundeen ahalegin handia inbertsio berriak egiteko: Portalea, Coliseoa, ...* | *Garapen kulturala* | • *Kalitateko instalazioen defizita: Antzokia, ikuskizunetarako erabilera anitzeko zentroa.*<br>• *Eibarko jarduera kulturalek oso proiekzio txikia dute eskualdean.*<br>• *Jarduera kulturaletarako finantzaketa pribatua lortzeko ahalmen txikia; horregatik, erakundeekiko mendetasun handiegia.* |
| *Hiri ekipamendua: leku irekien erakargarritasuna* | • *Denda zuzkidura ona herriaren erdialdean.*<br>• *Egindako hobekuntzen balorazio maila altua, herritarren aldetik.*<br>• *Eraikigarritasun indizeen murriztea hiri barruan.* | *Hiri ekipamendua: leku irekien erakargarritasuna* | • *Herritarrek erabiltzeko espazioen defizita: zona berdeak, oinezkoen zonak, parkeak, ...*<br>• *Hiriko bideak ibilgailuei begira egokituta daude herritarrari begira baino gehiago.*<br>• *Txandakako aparkalekuen defizita.*<br>• *Gutxiegi baliatzen diren ekipamenduak: zezen plaza.*<br>• *Herriko bideen funtzionalitate eskasa, espaloiak estuak direlako, zuhaitzik ez dutelako, ...*<br>• *Kalitateko etxebizitzaren eskaintza immobiliarioaren gorakada, bai maila altukoa eta bai etxebizitza soziala.* |
| *.Aisiako eta kiroletako jarduerak* | • *Kirol zuzkidura ona:*<br>• *Ipurua, Unbe, frontoia, Udal kiroldegia.*<br>• *Hirian kultura eta elkartegintza joera handia izatea eta herrian eragin handia izatea.*<br>• *Lehiaketa maila handiko eta hirian eragin handia duten kirol elkarteak.* | *Aisiako eta kiroletako jarduerak* | • *Aisia eskaintzaren dibertsifikazio txikia hirian.* |

### 1.8.2. Hiri eredua. Eszenategiak

Diagnostikoaren elaborazioa bukatu ondoren eta Batzorde Eragileak onartu ondoren, joka eremu edo eszenategi desberdin posibleak finkatzen hasi ginen, hiri eredua zehazteko asmoz.

Hautatutako hiri eredutik abiatuz, lortu beharreko helburu desberdinak eta horiek lortzeko aukera emango zuten lerro estrategikoak ezarri ziren.

Hiru eszenatoki posible aztertu ziren horretarako, hirurak itxuraz posibleak:

- Lehenengoa, hiriak urteetan zehar izandako hondamen eta gainbeherako prozesuari jarraitasuna ematearen ondorioa izan zitekeen eszenatokia, alegia, hiriaren baldintzarik negatiboenak mantenduko lituzkeen eta puntu ahulen indarrez hiriaren eta gizartearen gainbehera betikotzeko balioko lukeen eszenatokia. Eszenategi erreala zen hori eta, azken urteetako prozesua aldatzeko elementuak lortzera bideratzeko jarduerarik egingo ez balitz, Plan Estrategikoan ezarritako horizonte urtean iritsiko litzatekeena. *“EIBAR, GAINBEHERA DATORREN HIRIA”* epigrafean laburtzen zen.

- Bigarren eszenatokiak *“EIBAR, DEBABARRENGO ESKUALDEAREN INDUSTRIA GARAPENA LIDERATZEN ETA SENDOTZEN, BERE HIRIBURU FUNTZIOA POTENTZIATUZ”* izena zuen eta hiria berritzeko, eraberritzeko eta eraldatzeko printzipioak hartzen zituen oinarritzat, hiriaren garapen ekonomikoan eragina izateko gaitasunik handiena duten agente sozialen ekintza erabakigarrietatik abiatuz. Eszenategi honetan udalerriaren lurralde markoa gainditzen duen eragin eremua eta jarduera gaitasuna hartzen da kontuan, eragin gaitasunak eskualde mailara iritsi behar zuela ulerturik. Eszenategi honetan hiri orekatua planteatzen zen, 30.000 biztanle baino gehiago izango ez lituzkeena, eta ezta 25.000 biztanle baino gutxiago ere.

- Hirugarren eszenategiak *“EIBAR, INDUSTRIA ETA ZERBITZUETAKO HIRIAREN PROIEKTU LOKALA BULTZATUZ”* izena zuen eta lurralde tamainari buruzko irizpide estrategikoetan bereizten zen, funtsean, aurreko beste eszenategitik, ikuspegi lokalistagoa hartzen baitzuen, eskualdearekin hiriaren beraren defiziten araberako erlazioa eratuz.

Hiru eszenategi posible horietatik bigarrena iruditu zitzaion egokiena Batzorde Eragileari, eta ondorengo honetan zehaztu zen helburu nagusia:

> “Eibar hiri eraberritu, dinamiko eta kalitatezkoa bihurtzea, Debabarrengo eskualdearen hiriburutasuna indartuz, lurzoruaren erabileren hirigintza maila hobetuz, produkzioaren aldetik hiri orekatuagoa eginez eta herritarrarentzako hiri erakargarriagoa izanez, Euskal Herri mailan duen protagonismoa eta kanpoan duen proiekzioa handiagoak izatea lortuz.”

Helburu nagusi hori lortu ahal izateko, lau lerro estrategiko finkatu ziren, bakoitzari bere edukia ezarriz:

1. LERRO ESTRATEGIKOA: hiriaren produkzio sisteman gauzak aldatzera iristea zen lerro estrategiko honen xedea, eta hauek zituen bere helburuak: *“Eibarren egitura ekonomiko eta produktiboa eraldatzea, dibertsifikatzea eta modernizatzea.”*

2. LERRO ESTRATEGIKOA: hiriaren hirigintza egoera hobetzea lortzea zen lerro honen xedea, eta honela zehazten ziren helburuak: *“Hiria hirigintzaren aldetik berritzea, eta ingurunea hobetzea lortzea.”*

3. LERRO ESTRATEGIKOA: hirian bizi kalitatea hobetzeko egokiak zirela uste ziren ekintza guztiak bildu ziren lerro honetan, bizi kalitatea bere zentzurik zabalenean ulerturik eta, horregatik, hain zuzen, hemen sartuz hiriaren hainbat alderdi hobetzera bideratuta zeuden ekintza guztiak, bai kulturaren eta aisiaren zuzkiduren alderdia eta bai espazio publikoen egokitzapena, sarbideen hobekuntza, etxebizitza eskaintzaren kualifikazioa, etab. Ikuspegi horretatik begiratuta, hiru kontzeptu orokor hauetan jasotzen da bizi kalitatea:

- Biziraupena bermatzea (janaria, etxea, erosahalmena, osasuna, etab.)
- Pertsonaren proiekzio aukerak bermatzea (hezkuntza, lana, kontsumoa, etab.)
- Gizartean parte hartzeko aukerak bermatzea (komunikazioa, talde pertenentzia, lankidetza, etab.)

Premisa hauetatik abiatuz, honela zehazten zen helburuaren enuntziatua: *“Hiriari bizi kalitate handiagoa eman”*.

4. LERRO ESTRATEGIKOA: Eibarko hiriak bere inguruarekin zuen erlazioa bideratzeko eta indartzeko ekintza guztiak sartzen ziren lerro honetan, bere eskualde barruko udalerri nagusi izate horren proiekzioa areagotuz eta sendotuz. Helburu hori, honako epigrafe honetan zehazten zen: *"Eibarren eta bere inguruaren arteko erlazioa bultzatu eta bere eskualdeko hiriburu izatearen proiekzioa areagotu"*.

### 1.8.3. Azken dokumentua

Hiri eredua definitu eta hautatzea bukatu ondoren, eta Batzorde Eragileak eredu hori onartu eta lan taldeek berretsi ondoren, etapa berri bat hasi zen; etapa horretan, hemen ere partaidetzaren bidetik, markatutako helburuak aurrera eramateko behar ziren proiektuak definitu eta konkretatu ziren.

Asmo horrekin, berriz ere lan taldeak eratu ziren, oraingoan talde horiek osaeraren eta kopuruaren aldetik lerro estrategikoetara egokituz, eta Leku Administrazioko departamentu eta organismo guztientzat zuzenean parte hartzeko epe bat zabalduz, gainera.

Lan fase honen ondorioz, talde, agente sozial, partikular eta udal arduradun desberdinek aurkeztutako proiektuetatik helburuak lortzeko egokienak zirenak aukeratu ziren lan talde desberdinetan.

Proiektuak hautatu ondoren, lehentasunak ezarri ziren, eta azkenean taxututa geratu zen Plan Estrategikoa, honako elementu hauez osaturik:

- Helburu Nagusi bat, berehalako etorkizunerako egingarria eta desiragarria den hiri eredua definitzen duena.
- 4 Lerro Estrategiko, modu unibokoan helburu nagusi hori lortzeko aukera emango diguten bide zuzentzaileak eratzen dituztenak.
- 18 Helburu Estrategiko, lerro bakoitza osatzen duten oinarrizko edukiak bateratzen dituztenak.
- 75 Ekintza Estrategiko, burutu beharreko proiektu estrategiko indibidualak eratzen dituztenak.

Lerro Estrategiko bakoitzean definitu ziren helburu estrategikoak, hauek izan ziren:

1. lerroa: 4 helburu definitu ziren:

**1. helburua:** lurzoru industrialari buruzko politika aktiboa bultzatu**.**
**2. helburua:** enpresen eta industriaren berrikuntza bultzatuko duten helburu tekniko eta teknologikoen azpiegitura garatu.
**3. helburua:** hiri eredu berrira egokitutako eta industrien bilbea berritzeko balioko duten jarduera industrialak indartu eta finkatu.
**4. helburua:** merkataritza bultzatu udalerrian, eskaintza hobetuz.

2. lerroa: 4 helburu definitu ziren hemen ere:

**1. helburua:** hiri lurzorua berriro sortzeko eta zaharkitutako espazioak eta eraikinak eraberritzeko politika bat bultzatu.
**2. helburua:** komunikazioko azpiegitura eta garraio zerbitzuak hobetu hiri barruan.
**3. helburua:** udalerriaren erakargarritasuna eta kanpokoak ongi hartzeko gaitasuna hobetzeko ekipamendu eta zerbitzu programak garatu.
**4. helburua:** udalerrian ingurumenaren hobekuntzak egin, sistemaren jasangarritasuna bultzatuko duten politiken eta ekintzen bidez.

3. lerroa. 4 helburu definitu ziren honetan ere:

**1. helburua:** hiriko azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzu sozialak garatu, egoerarik okerrenean dauden taldeei arreta berezia jarriz: gazteak, langabeak.
**2. helburua:** Eibar oinezkoentzako hiri egokiagoa eta erakargarriagoa izatea lortu, pertsona guztientzako mugimendu erraztasuna bultzatuz.
**3. helburua:** hirian azpiegitura soziokulturalen, aisiako zerbitzu eta jardueren hobekuntza kualifikatua bultzatu, eskualdeko hiriburu izateari dagokionez.
**4. helburua:** Eibarko gaur egungo biztanleriaren piramidearen oinarria zabaldu, eta 30 eta 45 urte arteko adin bitarteak orekatzen saiatu.

4. lerroa. Kasu honetan 6 helburu definitu ziren:

**1. helburua:** Eibarrek inguruarekin duen konexioa hobetu, komunikazioko azpiegitura berriak eta modernoak eta garraio zerbitzu eraginkorrak erabiliz.
**2. helburua:** enpresen dinamismoa azkartzeko eta industria suspertzeko azpiegituren garapen prozesuan lider izan.
**3. helburua:** Eibar hiria, kalitateko prestakuntza eta teknologia zentro bezala ezagun bilakarazi.
**4. helburua:** Eibarren hiriburutasuna bultzatu, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan erakargarriagoa eta eragin handiagokoa izateko behar dituenak ezarriz eta beste hiri batzuekiko lankidetza bultzatuz.
**5. helburua:** eremu funtzionala eskualdea izatea finkatuko duten ekintzak bultzatzen lider izan.
**6. helburua:** hiri barruko komunikazioa bultzatu, suspertze eta berrikuntzako estrategia erabiliz, hiriaren irudi berria taxutzera iristeko.

Batzorde Eragileak onartu zuen Plan Estrategikoa eta, azkenik, Elkarteen arteko konpromisozko dokumentua sinatu zen, garapen prozesuan zuzenean edo zeharka inplikatutako administrazio publiko desberdinetako ordezkari gorenak eta talde politiko eta sindikatu desberdinak sinatzaile zirela. Hau zen dokumentu horren edukia:

*“Amaitutzat eman da Eibarko Plan Estrategikoaren prestaketa, bere garaian Udalak martxan jarri zuena, ondorengo udal barruko talde politiko, erakunde sindikal, erakunde, entitate kultural, sozial eta kirolzale hauen lankidetzarekin eta adostasunarekin: Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSE-EE (PSOE)), Eusko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV), Eusko Alkartasuna (EA), Partido Popular (PP), Izquierda Unida - Ezker Batua (IU-EB) eta Herri Batasuna (HB), eta horiekin batera Gipuzkoako Enpresarien Elkartea (Adegi), Eusko Langileen Alkartasuna (E.L.A), Langile Abertzaleen Batzordeak (L.A.B), Unión General de Trabajadores (UGT), Comisiones Obreras (CC.OO.), Merkatarien Elkartea, Debegesa, Kutxa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, herriko erakunde kultural, sozial eta kiroletakoak.*

***Azalpena:***

*Sinatzaileok Eibarko erakunde eta herritar guztien partaidetza zabala izateko aukera emango duen estrategia berritzaile baten aplikazioan oinarritutako garapen sozioekonomiko orekatuagoa lortzeko proiektu baten aldeko interesa konpartitzen dugu.*

*Elkarren arteko ekintza planean inbertitutako ahalegin guztiak parerik gabeko aukera eskaintzen dio gure herriari:*

- *Eibarko agente eta erakunde guztiak Hiria garatzeko proiektu komun batean integratzeko.*
- *Hiriari berritzeko aukera eta bizi kalitate handiagoa emango dioten ekipamendu eta azpiegitura berriez hornitzeko, garapen ekonomikoaren aldetik erronka berriak hartuz bere gain.*
- *Eibarren partaidetza aktiboa bultzatzeko, Debabarrengo eskualde osoaren kanpoko proiekzio prozesu berrian lider izango den hiria den neurrian.*

***Aldarrikapena:***

*Europako hiriak mende bukaera honetan bizitzen ari diren eraldakuntzekin bat datorren etapa berri batean sartu da Eibar eta, horregatik, garapen iraungarriaren aldeko aukera eginez, Plan Estrategikoaren ekintzak hurbileko inguruan dauden udalerriekiko, Debabarrengo eskualdearekiko eta Euskal Herri osoarekiko lankidetzan oinarritzen dira.*

*Hauek dira Plan Estrategikoaren jarduera lerro nagusiak:*

- *Eibarren egitura ekonomiko eta produktiboa eraldatzea, dibertsifikatzea eta modernizatzea.*
- *Hiriaren berrikuntza urbanistikoa, ingurumenaren hobekuntzarekin bateragarri eginez.*
- *Hirian bizi kalitate hobea lortzea.*
- *Eibarrek bere hurbileneko inguruarekin duen erlazioa indartzea, eta bere eskualdeko hiriburutasuna hedatzea.*

*Batzorde Eragilea osatzen dugun talde, erakunde eta entitateek Eibarko Plan Estrategikoan aurreikusitako ekintzak bultzatzeko asmoa dugu; berretsi egiten dugu hiriaren garapen sozioekonomikoa lortzen saiatzeko hartutako konpromisoa, eta Proiektu honetan integratu duten entitateekin elkarlanean aritzeko borondatea azaltzen dugu, horrenbestez geure burua Plan horretan azaltzen diren proposamen guztiekiko eta bakoitzarekiko adostasun espresa izatera behartu gabe.*

*Horregatik guztiagatik, hiriko erakunde guztien ordezkari gisa, honako aldarrikapen hau sinatzen dugu."*

## 2.- PLAN ESTRATEGIKOTIK ONDORIOZ DATOZEN EKINTZAK, PLAN OROKORRAREKIN LORTU BEHARREKO HELBURUAK MARKATZEN DITUZTENAK

Aurreko ataletan komentatu denez, Plan Orokorraren funtsezko helburuak Plan Estrategikoan hautatu den hiri ereduan erabakitzen dira. Horregatik onartzen dira dokumentu honetan bai helburu nagusia eta bai lerro estrategikoetako bakoitzean finkatutako helburuak.

Plan Estrategikoan jasotzen diren ekintza guztien artetik, batzuek lurralde mailako eragina dute eta, beraz, horiek dira Plan Orokorrean zuzenean lortu beharreko helburu bezala hartzen direnak.

Ekintza horiek dira aurrerako planeamenduaren garapena markatzen duten helburuak zehazten dituztenak; planeamendu horrek, jakina, ez du kolektiboek, agente sozialek eta Eibarko biztanleek aukeratutako hiri eredutik urrundu behar.

Hau da ekintza eta helburu horien zerrenda, lerro estrategikoetako bakoitzaren arabera taldetuta:

### 2.1.- 1. Lerro Estrategikoa: Eibarren Egitura Ekonomiko Produktiboa Eraldatu, Dibertsifikatu eta Modernizatzea

Lurraldean oihartzun garbirik ez duten ekintzak sartzen dira lerro honetan, eta jardueren dibertsifikazioa bultzatzeko ekintzak planteatzen dira, bestalde.

Nolanahi ere, eragin nabarmena dute bultzatu nahi diren jarduerei dagokienez, eta horrenbestez kontuan hartzen dira Plan honen behin betiko dokumentua formulatzerakoan.

Kontuan hartu behar da, gainera, udalaz gaineko eremua hartzen duten proposatutako ekintza horietako batzuek, Mallabian lurzorua garatzeko ekintzak adibidez, jarduera zonara iristeko komunikazioak hobetzea eskatzen dutela, saihesbidearen ibilbidea garapen horrek sortuko dituen premia berrien ikuspegiarekin osatuz.

### 2.1.1. 1. helburua.- Kalitate oneko Lurzoru Industrialari buruzko Politika Aktiboa bultzatu

- *Ermua eta Mallabiarekin batera egiteko jarduera, Mallabian lurzoru industriala garatu ahal izateko.* Plan Estrategikotik ondorioz datorren ekintza hau gauzatzen ari da, baina Eibarko udalerriaren parte hartzerik gabe. Egia da ekintza hau beste herrialde bateko lurzoruan garatuko dela, baina aski eragin du, jarduera berriak ezartzeko zonaraino iristeko egin behar diren komunikazioen aldetik ikusita. Horrek esan nahi du berriro aztertu behar dela onartutako aurreproiektuan azaltzen den saihesbidearen ibilbidea. Hala ere, Ermuako Udalbatzak ez zuen aintzat hartu Plan Orokor honen Aurrerapenean eginiko proposamena. Une honetan, Gipuzkoako Foru Aldundia saihesbidearen 3. fasea burutzeko proiektua prestatzen ari da; proiektu hori Plan Orokorrari erantsi zaio. Proposamenean ez dago aipatu den komunikazio-arazoari irtenbidea ematen dion elementurik.

- *Lurzoru industrial berria garatzea Ibur-Erreka eta Matsarian*. Ibur-Errekaren barrutiko jarduerak bestelako jarduera berriak ezartzea eskatzen du, poligonoaren lurzorua prestatu eta urbanizazioa egin ondoren, osorik edo partez Eibarko udal mugapetik kanpora aurkitzen diren lurretan. Bere barnean bi lurralde historikoetako hiru udalerri biltzen dituen esku-hartzea da.

  Eibarko udalaren ekimenez, Zaldibarko eta Elgetako udalen bermearekin eta ekimen pribatuak bultzaturik, esparru honetako garapen prozesuari ekin zaio Plan Orokor honen Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorrak onartu ondoren, bideratzen ari diren Plan Partzialeko erabakiak ere Plan Orokor honi erantsiz.

- Matsariako esparruan, saihesbideak banatzen dituen bi gunetan bereizten da esku-hartzea. Iparraldeko gunean, bideratzen ari den Plan Partzialaren erabakiak gehitzen dira, baina saihesbideak eta trenbidearen egungo ibilbideak mugatzen duten gunearen berrantolaketari dagokionez, Barne Berrikuntzetarako Plan Berezi bat bideratu arte uzten da.

### 2.1.2. 2. helburua.- Enpresen eta Industriaren Berrikuntza bultzatuko duten Zerbitzu Tekniko eta Teknologikoen azpiegitura garatu.

- *B.I.C. BERRILANekin batera lan egitea bere instalazioak zabaltzeko eta hirian duen presentzia finkatzeko.*

  Agiri hau izapidetu bitartean B.I.C. BERRILAN-en lantegiak Azitaingo Industrialdera aldatu dira.

- *Tekniker-ekin elkarlanean aritu produktu berrien eta enpresetako garapen teknologikoaren bila.*

  Aurrerapenaren erakusketa burutu ostean, Tekniker Fundazioaren lantegiak hedatu beharra zegoela erabaki zen, eta Fundazioaren berariazko premiak konpondu ahal izateko moduko kokaera bilatu. Hemengo proiektu honetan lekualdatze hori ahalbidetzen duten esku-hartze batzuk proposatzen dira.

### 2.1.3. 3. helburua.- Hiri eredu Berrira Egokitutako eta Industrien Bilbea Berritzeko balioko duten Jarduera Industrialak Indartu eta Finkatu.

- *"Jarduera garbiak" ezartzeko ekimenak bultzatzea*:
  - Ikusmen artifiziala.
  - Optika.
  - Adimen artifiziala.
  - Material berriak (compositeak, superaleazioak...).

  Plan honetatik helburu hori lortzeko aukera eskaintzen da, jarduera ekonomikoak ipintzeko baldintza ezin hobeak dituen lurzorua dela esaten baita, erabilpen ekonomiko horiek ere arautzen dira; era honetan, jarduera ekonomikoak hirigunean bertan, bizitegietarako esleitutako lurzoruaren inguruetan, jartzeko aukera ematen da, baldin eta ipini beharreko jardueren ezaugarriak bizitegi erabilpen horrekin bateragarriak badira.

### 2.1.4. 4. Helburua: Merkataritza Bultzatzea Udalerrian, Eskaintza Hobetuz.

- *Hirugarren sektoreko jardueren motorea izango den lehen mailako zentro komertzial baten ezarpena egiteko aukera ematea.*

  Aurrerapena agiriaren jendaurreko erakustaldia iragan ondoren eta ALFA LAN S.A. enpresaren ordezkariek aurkeztutako iradokizun baten ondorioz, hitzarmen bat sinatu zen Udal honen eta aipaturiko enpresaren artean, zeinak aukera ematen baitu enpresaren instalazioak hobetu eta lekuz aldatzeko eta instalazio horiek hartzen duten San Andresko barrutia berrantolatzeko.

  Hitzarmen horren ondorioz, berrantolaketatik sortutako lur sailetako bat Plan Estrategikoak eskatzen zituen ezaugarrietako saltoki gune bat jartzeko erabili zen. Gero, Arau Subsidiarioen aldaketa zehatz bat bideratu zen, aipaturiko proposamena kontuan hartuz, baina azkenean agiri honen Hastapeneko Oniritziari baldintzatua gelditu zen.

## 2.2.- 2. Lerro Estrategikoa: Hiria Hirigintzaren Aldetik Berritzea, Eta Ingurunea Hobetzea Lortzea.

Lerro Estrategiko honetan azaltzen ziren lurraldeari dagokionez eragin argiena zuten helburuak. Hain zuzen ere, honako atal hauetan zehaztuak:

### 2.2.1. 1. helburua.- Hiri Lurzorua Birsortzeko Eta Zaharkitutako Espazioak eta Eraikinak Eraberritzeko Politika Bultzatzea.

Helburu hau lortzeko era askotako ekintzak sartu ziren eta horietako batzuk gauzatuz joan dira Eibarko Udalak, ekimen pribatuarekin bat eginik, bultzaturik.

- *Lurzoru Erabilerak Aldatzeko programa garatzeko aukerak eta zaharkitutako eraikin industrialen aprobetxamendua eta birmoldaketa egiteko aukerak emango dituen politika bat bultzatzea.*

Plan Orokor honek kontuan hartzen du Arau Subsidiarioen arloetako batzuen kalifikazio orokor eta zehaztatua aldatzea, lurzoruaren erabilera hiri proiektuarekin lortu nahi diren helburuetara egokitzen ahaleginduz.

- *Itxita dauden enpresetako lurzoru erabileraren birmoldaketa eta aldaketa.*
- *Hondakin industrialak ezabatzea.*
- *Gutxiegi erabiltzen diren eraikin singularrak berrerabiltzea.*
- *Babes Ofizialeko Etxebizitzen politika bat bultzatzea, zaharkitutako eraikin industrialak berrerabiliz eta/edo birmoldatuz.*

Eraikinak orain arte ez bezalako erabilpenetarako berrerabiltzeko aukera ematen duten hainbat xedapen sartu dira ordenantzetan. Bestalde, Eibarko hirigunean usadioz izan diren erabilpen nahasi eta anitzak, hiriaren iraunkortasunaren oinarrizko elementuak izan direnak, gordetzen ahalegindu nahi da.

- *TXONTAko hiri area erabilera ez-industrialetarako birgaitzea, eraikuntza bakanduz.*

Txontako eremuaren antolamendua, erabilpen bakoitzaren kokaera zehatza eta eraikinen antolamendua zehaztuko dituen Barne Erreformako Plan Berezi baterako utzi da. Irizpide nagusi bezala, ahaleginak egin dira hiriaren erdigunearekin pareka daitekeen hiri kalitatea lortzen. Eraikitze dentsitate handiegia sartu beharrik izan gabe esku-hartzea garatu ahal izateko helburuarekin, auzoa bere onera ekartzeko lanen finantzaketan parte hartzeko eskatu zitzaien beste Administrazio batzuei. Hala ere, baliabide ekonomikoak eman zitzaketen Administrazioek (Urban Programak, Izartu Programak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eremu Degradatuen Onbideratze Programak) baztertu egin zituzten aurkeztutako proposamen guztiak, eta ondorioz bere bideragarritasuna aurreikus zitezkeen hirigintza ustiapenen mende soilik izango lukeen esku-hartzea proposatu behar izan da, dauden etxebizitzak kontsolidatuz. Txontako eremuan bertan eta eremutik gertu bizi direnen gehiengoak aurkeztutako alegazioa onetsi egin denez, proposamena berriz planteatu behar izan da; horrela, beraz, auzoa erabat berritzea proposatu da. Guztiarekin ere, zedarriztatutako eremuan geratzen den etxebizitza dentsitatea hektareako 75 etxebizitzakoa da.

- *MATSARIAko hiri area erabilera industrialetarako birgaitzea, eraikuntza bakanduz eta kokalekuak modernizatuz.*

  Hiriko eremu honen kokagunearen berezitasunak, une honetan trenbideak eta geltokiak irudikatzen duten hiri hesia desagertzea aurreikusten baita, zentralitate berriko esparru bilakatzen dute eta interesgarria oso, ezbairik gabe, hiriarentzat.

  Horregatik, eremu honetako ezaugarri eta baldintza bereziak eta saihesbidearekin nahiz hiriarekin izan beharreko lotura aztertuko dituen Plan Berezi baterako uzten da saihesbidearen hegoaldeko esparruaren antolamendua, trenbidearen saihesbiderako aurreikusitako konponbidea gauzatu arte izan daitekeen behin-behineko egoera ere konpondu beharko delarik.

- *Hiri barruaren berrikuntza bultzatzea, Fermin Calbeton Kalearen eraberritzeari helduz, geratzen diren estuguneak konponduz (Isasi, Errebal) eta hirigintza komertzialeko jarduerak eginez.*

  Plan honetan kontuan izandako esku-hartzeak dira, zeinak gauzatze unitateak mugarriztatzean erabakitzea proposatzen baita, antolamendu berriak konpondu beharko duelarik, hiritartze eta parekotasunezko banaketa prozesuan, joan den mendearen hasieratik dirauen eraikinen auzia.

  Hirigintza Komertzialeko esku-hartzeei dagokionez, Berregokitze Plan Estrategiko bat bideratu da, non hainbat esku-hartze zehaztu diren, mugikortasunean eta kaleen berrurbanizatze lanetan arreta berezia ipiniz.

  Ikuspegi honetatik, Sarbide Mekanikoen Planak jasotako erabakiak bere gain hartzen ditu Plan honek eta, ibilgailuen aurrean kalearen baldintzak oinezkoen erabilpenerako hobetzeko asmoz, zenbait gune berriro urbanizatu eta oinezkoentzako bihurtzeko proposamenak eransten dira.

- *Erabilera mistoko eraikinen beheko solairuak etxebizitza bihurtzeko birmoldaketa bultzatzea.*

  Ordenantzetan hainbat baldintza sartu dira osoki bizitegi erabilpena duten eremuetan ekoizpen jarduerak izan dituzten eraikinetako lokalak eta solairuak berrerabiltzeko aukera emanez.

- *ALFAren birkontsiderazioa eta azterketa xehea, zentralitate berriko ekipamendu bezala.*

  Plan Orokor honen Aurrerapenean aurkeztutako proposamen baten ondorioz, hitzarmen bat sinatu zen Alfa enpresarekin, eta hortik arau subsidiarioen aldaketa zehatz bat etorri zen, enpresaren instalazioek hartzen duten eremua hiriarentzat berreskuratu eta birmoldatzeko prozesuan aurrera egiteko asmoz. Plan honetan barruti honi dagozkion erabakiak eransten dira, aipaturiko aldaketa horretan ezarritakoak.

- *Hiriarentzat interesgarriak direla ikusten den jarduerak bideratzeko aukera emango duen hirigintza politika bat ezartzea.*

  Araudiaren arabera beharrezkoa ez den arren, bideragarritasun azterketa zehatza egin da Plan honetan kontuan hartutako kudeaketa esparru bakoitzari buruz. Azterketa horren emaitza Ekonomia eta Finantza Ikerketari erantsi zaio, proposatutako esku-hartze guztien bideragarritasuna egiaztatuz.

- *Azterketa bat egitea, landako lurzoruaren inguruan dentsitate txikiko etxebizitzak "erdi-maldan", ingurune fisikoarekin kontaktuan, kokatzerik ba ote dagoen ikusteko.*

  Ekintza honek Plan Orokorraren Aurrerapenean aurkeztutako proposamen batean izan zuen bere isla. Hala ere, jendaurreko erakustaldian aurkezturiko iradokizunen ondorioz, aipatutako proposamena kendu egin zen irizpide, helburu eta konponbide orokorrak onartzeko Osoko bilkurako hitzarmenetik.

### 2.2.2. 2. Helburua: Komunikazioko Azpiegitura Eta Garraio Zerbitzuak Hobetzea Hiri Barruan.

- *Eibarko saihesbideak autobidearen mendebaldearekin izango duen zuzeneko lotura (3. Fasea) amaitu eta bigarren faseko “hankak” gauzatzea.*

  Lehenbiziko atalari dagokionez, lehenago aipatu da aurrerapenean kontuan edukitako proposamena, Mallabiako barrutian aurreikusitako garapen berriekiko lotura konpondu eta hobetzea helburutzat zuena, atzera bota zutela bai Ermuako Udalak, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak ere. Dokumentu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko proiektua zehaztu bitarteko tarterako garatu duen ordezko aukera barneratu da.

Bigarren atalari dagokionez, jadanik gauzatutako lanak dira, Plan honen egitura orokorrari eransten zaizkionak.

- *Hiri barruko komunikazioa hobetzea, barne komunikazioko sarea osatuko duten bideak eginez.*

Bide egituran barne lotura ahalbidetu eta hiri sarea osatzen duten hainbat esku-hartzeen gauzatzea sartzen da Egitasmo honetan. Horien artean honako hauek:

Otaolatik Azitainera bide bat eraikitzea, auzo ezberdinen arteko lotura lanak egingo dituena, eta hala barne zirkulazioa hiriaren erdigunetik igarotzea galarazi. Horretarako hau proposatzen da:

Bista Eder eta Arane bidearen arteko lotura.

Urtzaile (Jata) eta Azitain arteko bidea eraikitzea, nabarmen Bidebarrieta, Urkizu, Karmen eta Barrena kaleen parez pare doana, CN-634 errepidearekin, errepide hau Saihesbidearekin elkartzen den gunearen inguruan, lotzen den lekuraino, proposaturiko “auzo arteko” bidea osatzen duelarik.

Saihesbidea eta proposaturiko “auzo arteko” bide berria egituratu eta zeharka lotu ondorengo zati hauen bidez: Barrenenguaren eraldatzea; J.A. Gisasola; eta “Estaziño-Arikitzaneko Zubia-Urtzaile” eta “Bittor Sarasketa – egungo Matsariako sarbidea” osaturiko “bikotea”, erdiguneko kaleetan alferrikako zirkulazioa saihestu eta kale moduan berreskuratu ahal izateko. Hala ere, proposatutako Tren Saihesbidearen gauzatzeak baldintzatu egiten ditu azken esku-hartze hauek.

Torrekua eta Otaola artean bigarren bide bat eraikitzea, industrialdeko bideak egituratuz.

Altamirako hilerri berrira joateko bidea.

- *Trenbidearen trazatua lurperatzeko eta aldatzeko proiektua sustatzea.*

Tren Saihesbidearen ibilbidea jasotzen zuen Aurrerapenaren jendaurreko erakusketaren ondoren, 2001eko urriaren 23an Erakunde arteko Batzorde bat eratu zuten Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak eta Eibarko Udalak.

Batzordea eratu zenetik bertatik, lan prozesu bati ekin zitzaion Tren Saihesbideak Eibarko hirian izan ditzakeen aukerak eta eragina aztertzeko lanak Cinsa E.P. enpresari kontratatuz.

Kontratuan eskatzen zaie ondorengo gai hauek aztertzeko:

- Deba bailarakoarekin elkarturik tranbia zerbitzua ipintzeko aukera, era honetan burdinbidearen merkataritza abiadura erabiltzeko herri arteko zatietan eta oinezkoen zein ibilgailu motordunen zirkulazioarekin bateragarria den tranbiarena hiri barruan.

- Ikuspegi honetatik, ibilbide luzeko merkantzia eta bidaiari trenen zirkulazioari irtenbidea eman nahi dion Tren Saihesbidearen konponbidea aztertzea.

- Ibilbide luzeko trenbide horren eta proposatutako tranbia sistemaren arteko lotura zein tokitan egin behar den aztertzea.

- Eibarko eta bere bailarako biztanleen mugikortasuna aztertzea, bai egungo egoeran, baita Plan Estrategikoan eta Plan Orokorraren Aurrerapenean kontuan edukitako esku-hartzeak, bailarako biztanleriaren mugikortasunean eragina izango dutenak, garatzen direneko hipotesietan ere.

Kontrataturiko ikerketa oraindik egiteko dagoela kontuan izanik, Plan honek Aurrerapenean jasotako Tren Saihesbidearen proposamena eta ibilbidea biltzen ditu, ikerketa amaitzen den unean behar diren zuzenketak egiteko aukera ere uzten duelarik.

### 2.2.3. 3. Helburua: Udalerriaren Erakargarritasuna Eta Kanpokoak Ongi Hartzeko Gaitasuna Hobetzeko Ekipamenduen eta Zerbitzuen Programak Garatzea.

- *Eibarko hiriaren erdialdean oinezkoentzakotze selektiboa egitea.*

Egitasmoaren agirian hainbat esku-hartze sartu dira udalerriko zenbait gunetan 30eko lastertasuneko eremuak sortu eta hauetako batzuk osoki oinezkoentzat bihurtzeko aukera emango luketenak.

- *Hilerria Altamirara eramatea.*

  Egitasmoan barruti erreserbatu bat mugarriztaturik geratu da hiri barruan irentsia gelditu den egungo hilerria hiriaren kanpoaldera eraman ahal izateko.

- *Ego ibaian eta Matsaria eta Ibur-Errekako errekastoetan uholdeen prebentzioko programa garatzea.*

  Eusko Jaurlaritzak ubideratu du dagoeneko Matsaria errekaren beheko aldea, baina erreka horren goiko aldeari nahiz Ibur-Erreka errekatxoari dagozkien ubideratze lanak eremu horietan aurreikusitako Plan Partzialen urbanizazio proiektuei loturik gelditzen dira.

- *Trafikoaren antolamendu eta aparkamenduko Plan Estrategikoa egin eta burutzea.*

  Aurrerapenaren jendaurreko erakusketa egin ondoren, hiri guztiko zirkulazio eta aparkalekuei buruzko ikerketa bat kontratu eta egin zen.

  Ikerketa horretan egiaztatu ahal izan zen errepide sarean dagoen aparkaleku eskasia nabarmena dela, eta batez ere herriko kaleetan eskura daudenak arautzeko proposamenak ezarri ziren.

  Plan honek bere gain hartzen du aparkalekuen arazoa eta, Sarbide Mekanikoen Planarekin eta kaleak oinezkoentzat bihurtzeko proposamenekin batera, auzoak aparkalekuz hornitzeko zenbait esku-hartze garatzea proposatzen du, ibilgailu pribatuaren aurrean oinezkoen zirkulazioa bultzatzeko balio izango dutenak.

  Proposamen hau osatzeko tranbia bidezko konponbidea dago; tranbia honek aldez alde zeharkatu luke udalerria hiriaren erdigunetik, eta zeharkako loturak instalatutako mekanismoen bidez (eskailera mekanikoez), edo Udal Busa garraio publikoaren bitartez egingo lirateke.

### 2.2.4. 4. Helburua: Udalerrian Ingurumenaren Hobekuntzak Egitea, Sistemaren Jasangarritasuna Bultzatuko Duten Politiken Eta Ekintzen Bidez.

Plan honek iraungarritasunaren irizpidea hartu du bere garapenaren oinarri gisa, eskura ditugun baliabide urriak ondorengo belaunaldientzat galzorian ez jartzen ahaleginduz.

Irizpide orokor bezala ahaleginak egin dira erabilpen ezberdinen arteko hurbiltasuna mantentzen, bereziki lanaren eta bizilekuen banaketari dagokionean, baita orain arte hiriko isurketa guztien estolda nagusitzat baizik hartu izan ez diren ibai eta erreken ubide eta bazterrak berreskuratzen eta hiri berriaren elementu bertebratzaile bezala hiriaren diseinu berrian sartzen ere.

Horretarako puntuok bete nahi izan dira:

- Kokaerak leku egokietan jartzea, kutsadura elektrikoa edo elektromagnetikoa, kimikoa eta akustikoa igortzen duten iturburuetatik urruti jartzen saiatuz.
- Esku-hartzean hurbileneko ingurumenera egokitzea, lurraren morfologiari, hiriko eraikin ezaugarriei eta abar begiratuz.
- Eremu bakoitzaren premietara egokitutako diseinua egitea.
- Esparruak irizpide bioklimatikoen, energia aurreratzeko irizpideen eta funtzionaltasun irizpideen arabera egokituz banatzea.
- Osasunerako egoki eta biologiaren ikuspegitik kaltegarri ez diren materialak erabiltzea.
- Izadiko baliabideak optimizatzea.
- Energia aurrezteko sistemak jartzea.
- Hondakinak berreskuratzeko eta isuriak jasotzeko programa.

Eraikuntza eta hirigintza ordenantzetan arkitektura bioklimatikoa sustatzeko erabaki batzuk hartu dira, eraikinen antolamenduaz eta orientazioaz ere erabakiak hartuz. Eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzen lagunduko duten sistemak erabiltzea sustatzen da orobat, guztiaren buru hiri kalitatea hobetzeko asmoz.

Sarbide Mekanikoen Egitasmoa gehitzen da, sistemaren mugikortasuna eta iraungarritasuna hobe dezakeela uste baita, ibilgailu motordun pribatuen erabilpena nabarmenki murriztuz. Eibarko hiriaren ezaugarriak kontuan izanik, funtsean bizikletaren erabilpena ahalbidetuko duen ibilbide bat proposatzen da, Tren Saihesbidea gauzatzean burutu ahal izango dena.

- *Hiriaren saneamenduko eta uraren eta ibaiko isurien tratamenduko azpiegitura burutzea: Elgoibarko arazketa planta, kolektoreak eta hiriko sarearen hobekuntza, saneamendu integraleko proiektua.*

  Une honetan azterketa eta garapen fasean dago Elgoibarko EDAR delakoa, eta 2003ko urtearen amaieran hastea aurreikusten da Eibarko Ego ibaira (eta ibaian gora) eginiko isurketak bilduko dituen Saneamendu Plan Integralaren lanak.

  Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Eibar hiriko saneamendu sarearen azterketa bat idazteko kontratua egin du. Bi agiri horien erabakiak Plan honetara gehituko dira onartzen diren unean.

- *Txabolismoaren eta udalerriak korridoreetatik ikusita ematen duen irudiaren kontrola, eta Eibarko sarrerak eta pasabideak.*

  Egitasmo honen ordenantzetan eraikuntzaren eta urbanizazioaren baldintza estetikoak arautu nahi dituzten erabakiak eransten dira, behin-behineko eraikinen eta borden berariazko arautegia Ingurugiroari buruzko udal ordenantza idazten denerako utzirik.

## 2.3.- 3. Lerro Estrategikoa: Hiriari Bizi Kalitate Handiagoa Ematea.

Ildo estrategiko honetan helburu batzuk zehaztu ziren, eta helburu horientzako hainbat ekintza ere bai.

Helburu nagusi horren edukiaren ezaugarriak kontuan harturik, ekintza gehienek ez zuten lurralde eraginik; aitzitik, hiriko kalitatea hobetzera eraman zezaketen esku-hartze eta sustapen politiketan jartzen zuten arreta.

Hala ere, horietako batzuk badute lurralde eraginik eta Plan honetan jaso dira.

### 2.3.1. 1. Helburua: Hiriko Azpiegitura, Ekipamendu Eta Zerbitzu Sozialak Garatzea, Egoerarik Okerrenean Dauden Taldeei Arreta Berezia Jarriz: Gazteak, Langabeak.

- *Babes Ofizialeko Etxebizitzak egitea, merkatuko aukerei heltzeko modurik ez duten kolektiboentzat.*

  Bizitegi motako esku-hartzeak garatzeko lurzoru erabilgarririk ez izateak, ekonomia eta zerga izaerako zertzeladekin batera, Eibarko higiezinen merkatuan dauden etxebizitzen prezioa hiriburu askotan baino garestiagoa izatea eragin du.

  Plan Orokorraren Bulegotik, Eibarrek dituen etxebizitzen ezaugarriei eta etxebizitza premiei buruzko galdeketa bat egin da, eta horren ondorioen artean azpimarragarria da zen etxe gutxi dagoen hutsik. Egoera honek, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin batera, oraindik gehiago estutzen du higiezinen merkatua, arras murrizten baititu egin litezkeen salerosketak tirabira espekulatiborik gabeko merkatu batean sartzeko aukerak.

  Eskualde honetan nahiko ohikoa den etxea jabetzan izateko joerak, bestalde, nabarmenki murrizten du alokatzeko erabil daitezkeen etxeen kopurua. Hala, alokatzeko etxeen merkatua higiezinen multzo osoaren %10aren azpitik dagoela egiaztatu ahal izan da, funtsean bat datorrelarik etxebizitza mota honetarako ustez izan daitekeen eskariarekin.

  Horrek guztiak, Udalak higiezinen merkatuan esku-hartzea eragin du, IMESA Udal Elkartearen jarduera suspertuz babes arauren batera heldutako etxebizitzei buruzko esku-hartzeak bultzatzeko.

  Esku-hartze horiek direla eta, arau subsidiarioen aldaketa zehatz batzuk bideratu dira, bertan babes ofizialeko etxeak hartu behar dituzten esparru jakinak zehaztu direlarik.

  Egitasmo honetan, aipaturiko esparruez gain, beste gune batzuk ere sartu dira, non babes ofizialeko etxebizitzen berariazko garapena aurreikusten baita.

Egitasmo honetatik, etxebizitza hauek toki zehatzetan kokatzea proposatzen da, etxeen banaketa udalerri osoan homogeneoa izan dadin ahaleginduz. Proposamen horrekin, 17/94 Legeak ezarritako gutxieneko arauak betetzen dira.

### 2.3.2. 2. Helburua: Eibar Oinezkoentzako Hiri Egokiagoa eta Erakargarriagoa Izatea Lortzen, Pertsona Guztientzako Mugimendu Erraztasuna Bultzatuz.

- *Erabilpen publikoa duten eraikinak denentzat, bereziki mugikortasuna murriztua dutenentzat, eskuragarri bilakaraztea.*

Esku-hartze hau garatu ahal izateko, Eibarko udalerriko Irisgarritasun Plana egin da, non herriko kaleetan zein eraikin publikoetan mugikortasuna hobetzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak garatzen baitira.

Irisgarritasun Planak zenbait alditako esku-hartze egitarau bat ezartzen du eta haren erabakiak Plan Orokor honi eransten zaizkio.

- *Eibarko hiriak pertsonen mugikortasunaren alde egiten ahalegintzea, oztopo arkitektonikoak ezabatuz, eraikinetako sarrerak egokituz, sarbide mekanikoen programa bideratuz,...*

Aurreko atalean adierazitakoa osatuz, Eibar hiriko Sarbide Mekanikoen Egitasmoa egin zen, hiri barnean oinezkoen mugikortasuna hobetu eta konpondu nahirik.

Horretarako hiriko goiko auzoak eta erdigunea lotzeko ibilbide estrategikoak aztertu ziren, auzoetako goiko guneetako hiritarren itzulera nabarmen hobe zezaketen eskailera mekanikoen kokaguneak finkatzeko.

Egitasmo hori hemezortzi eskailera ipiniz amaitu da eta orain bigarren zati bat dago azterketa eta garapen aldian.

Mekanismo hauek ipintzearen ondorioek zerikusi eta eragin argia dute hiriko mugikortasun eta atxikigarritasunean:

- Murriztu egiten da ibilgailu motordun pribatuen erabilpena.

- Hiriaren erdigunean aparkalekuak murriztu eta kaleak oinezkoentzat bihurtzeko aukera ematen du, oinezkoentzat eremu librea berreskuratuz.
- Mugikortasun murritzeko pertsonen joan etorriak (bereziki hirugarren adinekoenak) errazten dira, eta hala haien gizarte harremanetarako ohiturak berreskurarazten.
- Hiriko goiko auzoetako biztanleak, merkataritzarekin eta zerbitzuekin zerikusia duten jardueretarako, erdigunera hurbiltzea bultzatzen da.
- Horren ondorioz, hiri kalitateari buruzko irudia eta pertzepzioa hobetu egiten da.
- Zerbitzua jasotzen duten eremuak indarberritu eta baliotsuagoak bilakatzen dira.
- Ukituriko esparruak urbanizatu egiten dira berriro.

### 2.3.3. 3. Helburua: Hirian Azpiegitura Soziokulturalen, Aisiako Zerbitzu eta Jardueren Hobekuntza Kualifikatua Bultzatzea, Eskualdeko Hiriburu Izateari Dagokionez.

- Aisiako espazio publikoak sortzea
  - Txaltxa-Zelaiko parkea
  - Kaleak oinezkoentzakotzea
  - San Andres Pasealekuaren inguruan (Alfa) erabilera publikoko espazio librea sortzea.
  - Espazio publikotarako unitateak berreskuratzea hiriaren hainbat zonatan
  - Trenbidea lurperatzea edo estaltzea, kasuen arabera, aisiako espazioak lortzeko asmoarekin

Eibarko hiria, bere egungo itxuran, iragan XX. mendearen bigarren erdian izandako garapenaren emaitza da; garapen horretan, jarduera ekonomikoak eta bizilekuak hartuko zituen lurzorua sortzea nagusitu egin zitzaion eremu publiko libreez hornituriko hiria sortzeko irizpideari. Eibarko lurraldearen ezaugarri orografikoek, ordea, arras baldintzatu zuten enpresen eta hemen sortutako lanaren bila iristen ziren bizilagunen lur eskariari eman beharreko erantzuna.

Hiriaren garapenak mukuru bete zituzten %20ko aldaparik ez zuten lurralde erabilgarri guztiak. Bestalde, komunikabide azpiegiturak (trenbidea, autopista) sartzea eta muga geografikoak (Ego ibaia eta errekak) izatea, erabakigarriak izan ziren hirigunea amaieran hertsiki lotu eta nahasiriko eraikin industrialen eta etxebizitzen nahasmena bilakatzeko, eremu libreetarako edo aisialdirako erabiltzeko moduko lurzorurik ia batere utzi gabe.

Horregatik, hiri barruko lurretan hiri moderno batek eskatzen dituen estandarrak berreskuratzeko aukera emango duten esparru garrantzizko batzuk lortzeko helburua, korapilatsua eta gauzatzen neketsua dirudi Eibarko kasuan.

Hala ere, Plan Orokor honetan zenbait proposamen gehitzen dira gaur egun eraikin industrial zaharkituek betetzen dituzten guneak edo oinezkoen erabilpenerako ibilgailu motordunen zirkulaziotik libra daitezkeenak eremu publikoetarako berreskuratzera bideratuak.

Osagarri gisa, inguruko izadiarekin estuki lotutako hiriaren ezaugarri eta berezitasunak kontuan hartuz, hiriaren inguruan zenbait parke sortzea proposatzen da; parke hauek, gehienak hegoaldeko hegalean kokatuak, aisialdirako gune sare bat sortzeko aukera ematen dute Tren Saihesbidea gauzatzean sortutako parke linealaren egituraketaren bitartez.

Proposamen hauek Plan Orokorraren Aurrerapenetik eratorri eta Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzen bidez garatu izan diren beste batzuekin osatzen dira, hala nola, ibaiertzeko pasealekua berreskuratzearekin eta Alfa enpresaren San Andres Pasealekuko instalazioak eraberritzean sortutako eremu publikoarekin, eta baita Amaña auzoaren aurrealdean tren ibilbidea estaltzearekin ere.

- Azpiegitura soziokulturalen programa bat garatzea
  - Coliseo, Arte Eszenikoen Zentroa proiektua burutzea
  - Museoetarako espazioen zuzkidura
  - Gazteentzako zentro sozial bat sortzea

Esku-hartze hauek, jadanik gauzatzen ari direnak batzuek, zerikusi zuzena dute hirian aurreikusitako hornidurekin.

Plan Orokor honetan kontuan hartu izan dira hauek guztiak, Komunitate Hornikuntzen Sistema Orokorraren baitan.

## 3.- ESKUALDE ANALISIA

"Eskualde Analisiari" dagokion dokumentuan Debabarrengo Eskualdearen bereizgarri diren ezaugarriak zehazten eta bermatzen dituzten hainbat arazo azaltzen dira, eta era berean Debabarrengo arroan egoteak adierazten duen loturaren bidez modu naturalean sortzen den lurralde antolamenduan sartzen diren udalerrietako bakoitzari esleitzen zaizkion funtzioak ere.

Aipatutako azterketa horretan azalduta eta garatuta daudenak berriro errepikatzen hasteko asmorik gabe, komeni da analisi horretan atzemandako elementuetako batzuk nabarmentzea, espezifikoak eta determinatzaileak direnez.

Debabarrengo eskualdeak, funtsean Lurraldea Antolatzeko Jarraibideetan (LAJ) ezarritako Eibarko Area Funtzionalaren mugapearekin bat datorrenak, bi lurralde historikoetan sartzen diren udalerriak hartzen ditu bere baitan; zortzi udalerri, guztira, bi Bizkaiko lurralde historikokoak (Ermua eta Mallabia) eta beste sei, Gipuzkoako lurralde historikokoak (Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze).

Hori da administratiboki onartzen den lurralde banaketa; badaude, ordea, beste bi udalerri, formalki eskualde horren barruan sartzen ez diren arren, aski lurralde eremu garrantzisua hartzen dutenak eta eremu horiek beren hiri asentamendu nagusietatik urrun aurkitzen diren arren, beren garapen, gestio eta ezaugarri sozioekonomiko eta geografikoengatik Debabarrengo eskualde horrekin lotzen direnak, udalerriak kokatuta dauden lekuko eskualdeekin baino gehiago. Zaldibar eta Elgetako udalerriak, hain zuzen.

Eskualdearen ezaugarri orografikoek lagunduta, udalerrien funtzioen banaketa naturala egin da eskualdearen barruan, eta hiru area desberdin bereizi dira, gaur egun bitan bakarrik banatzeko joera dagoen arren:

- Mutriku-Debako area, funtsean eskualde honen itsasertza hartzen duena, eta bokazio turistiko eta Area Funtzionalaren bigarren etxebizitza izateko bokazio garbia duena. Eremu honetan eskualde honetako biztanleriaren %13 biltzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren udalerria da Deba, Zarauzko udalerriaren atzetik, biztanle bakoitzeko turismo indizeari dagokionez.

- Elgoibarko area, erdiko zonan dagoena, eskualdeko biztanleriaren %16 biltzen duena eta Elgoibar eta Mendaroko udalerriak hartzen dituena, Mendaro 1983. urtean Elgoibartik banandu zenetik. Hasieran Eibar-Ermuko aglomerazioaren mende zegoen herrigunea zen, baina gaur egun oinarrizko premiak estaltzeko gai den nolabaiteko oreka sozioekonomiko eta zuzkidurazkoa hartu du, eta premia espezializatuak asetzeko mantentzen du Eibar-Ermuarekiko erlazioa.

- Eibarko eremua, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoen mugan dagoena; eskualdeko biztanleriaren %71 hartzen du. Hauxe da entitate handieneko eremua, eta Eibar, Ermua, Mallabia, Soraluzeko udalerriak eta Elgeta eta Zaldibarko udalerrietako parte bat hartzen du. Beren hazkundea eta garapena Eibarko hiriarekin oso lotua izan duten udalerriak dira, 50-60 urteetako biztanleria eta industria buruzko garapen handiaren ondorioz sortutako jardueren eta biztanleriaren harrera leku izanik.

Laburtuz, Eibarko eremuak hartzen du eskualde osoaren dinamizatzaile nagusi izateko egitekoa. Gaur egun, Debabarrengo eskualdeak multzo antolatu bezala funtzionatzen du, eta multzo horretan parte guztiak dira elkarren osagarri, funtzioen eta lurzoru erabileren aldetik, eta lurralde arteko erlazioen sistema baten bidez artikulatzen dira guztiak, horri esker langileak mugitzeko, bizileku aldaketak egiteko, etxebizitzen eskaintzan osagarritasuna aurkitzeko eta jarduerak lurraldean ezartzeko aukerak gehituz.

Hala ere, definitu eta osatu egin behar da komunikazioen sarea, hain zuzen ere lurraldearen eta funtzioen banaketa finka dadin, hiri bilbearen garapena bultzatuz eta lehendik daudenak baino muga gehiago ez sortzen ahaleginduz.

## 4.- BIZTANLERIAREN EBOLUZIOAREN DIAGNOSTIKOA ETA EIBARREN EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

Oro har, hiri honek kanpora zabaltzen duen irudia hiri pilakatu baten irudia da, haran batean artekatutako hiria, 50-60 hamarkadetako garapen ekonomiko eta demografiko handiaren ondorioz sortutako kontrolik gabeko garapenaren emaitza.

Tailerrez eta jarduera ugariz betetako udalerri honek, hala ere, badu tonu falta bat, krisi ekonomikoaren eragin nabarmena eta, batez ere, zahartze arazo oso larria. Arazo ekonomiko bat delako ageriko susmo horrek arazo demografiko bat ezkutatzen du atzean, hiri hau inolako bizirik gabeko fosil bihurtzeko eta beste ingurune erakargarri eta dinamikoago baten mende jartzeko mehatxua, hain zuzen.

Horregatik, ezinbestekoa gertatzen da Eibar bere ingurunean kokatzea eta bere konstante bitalak baloratzea. Beraz, analisi xehea egin ondoren, arazoak azaltzen dituzten alderdietan zentratu zen diagnostikoa, arazo horien kausak zehazteko: hiri barruko biztanleriaren arazoa zen funtsean, udalerriaren bizi kalitatearekin, etxebizitzarekin eta Eibarrek bere inguruarekin duen erlazioarekin lotutako arazoa, hain zuzen.

Horrek ez du esan nahi beste arlo batzuetan ere arazorik azalduko ez denik, adibidez, enpleguaren, jarduera ekonomikoen, ingurumenaren kalitatearen inguruan, etab. Problemarik larrienak, hala ere, funtsezko bezala hartu direnekin dute zuzeneko erlazioa, hau da, biztanleriaren eta hortik sortutakoen inguruan daudenekin batez ere.

Biztanleria aztertzen hasiz gero, hiriaren hazkundea geratuta egoteaz gainera, 70eko hamarkadaren erdialdetik hona jaisten ari dela da ikusten den lehenengo ezaugarria. Hau ez da salbuespena. Azken urteotan, hiri askoren hazkundeak eta, bereziki, antzeko ezaugarriak dituztenenak, oso balio apalak ditu. Aldiz salbuespena da balio negatibo horiek, Eibarren, beste hiri askotan baino hamar urte lehenago azaldu izana.

1970az geroztik, Eibarrek urtean %0,4ko hazkundea du batez beste; horregatik, etengabeko atzerakada izan du urteotan, eta oraindik ez du lortu hortik errekuperatzea. Arazoa kezkagarria da une honetan. Azken erroldako datuen arabera, Eibarko biztanleriak bere hazkunde erritmoa aspaldi gelditu ez ezik, jasaten ari den beherakadaren ondorioz azken bost urteotan 2.000 biztanle inguru galdu ditu, eta horrek urtean 400 pertsona gutxiagoko saldo negatiboa ematen du batez beste.

Egoera horren ondorio logikoa famili nukleoen tamaina txikia da, eta horrek ere balio bereziki apalak ditu Eibarren. 1991n familien ia %58k 3 pertsona edo gutxiago zituen, eta %35k bi pertsona edo gutxiago; 2002. urtean 2.38 Bizt/Etx (28500 Bizt/11967 Etx) da proportzio hori.

Ondorioz, bada, zahartze arazo larriak antzematen dira udalerrian, eta dinamika demografiko atzerakorra; horrek areagotu egiten du zahartze prozesua eta famili taldeak gero eta txikiagoak ari dira egiten. Era honetako arazoek arriskuan jartzen dute hiriaren bizitasuna, batetik biztanleen adinak gora egiten duelako, baina, bestetik, baita eraldakuntzetara egokitzeko eta bere ekonomia dinamizatzeko gaitasuna galtzen delako ere, faktore determinatzailea sartzen delako tartean, klase pasiboak deitzen diren horien pisua handituz doan neurrian.

Biztanleria zahartzearen arrazoiak izan daitezke urte askotan jaiotza tasa etengabe erortzen joan izana, gazteek emigratu izana, 50-60 urteetako inmigranteak bere jaioterrietara itzuli izana, edota biztanleria kanpora bidali izana, batez ere tartean talde gazteenak harrapatuz.

Eibarren kasuan esan daiteke lehenengo kausa ez dela funtsezkoena izango, gainerakoen lagungarria den arren. Jaiotza tasaren balioak leku guztietan jaitsi dira, eta hiri honetan, laurogeiko hamarkadaren lehenengo urteetan, urtean batez beste 330 jaiotza izatetik, 1991-1995eko urte bitartean urtean 190 jaiotza izatera pasatu zen, eta 2002. urtean 169raino urritu zen.

Gazteen emigrazioa izan daiteke, biztanleriaren zahartzeaz gainera, jaiotza tasaren jaitsiera esplika dezakeen beste kausa bat. Gazteen emigrazioa, gertatu baldin bada, ez zen enplegu arazoengatik bakarrik gertatu, baizik eta baita etxebizitza aurkitzeko arazoak izateagatik ere bai.

Kontuan izan behar da, gainera, udalerriak 50-60ko urteetan emigratzaileen biztanle kopuru handia hartu zuela eta gaur egun, prozesu hori geratu egin denez, migrazioaren saldoan balio negatiboak dituela. Langile biztanleria horretatik parte bat erretiratu eta bere jaioterrietara itzuli da, baina oraindik ere badago biztanleriaren “errenta” bat, bizitzen gure herrian geratu dena, eta horrek ere areagotu egiten du Eibarrek nozitzen duen zahartasun indize larria.

Bai zahartzea eta bai, neurri batean, jaiotza tasaren beherakada, industria sektorearen krisiaren eta etxebizitzaren prezioen eboluzioaren zuzeneko ondorioak dira; faktore horiek ere baliabide gutxien duen biztanleriaren gain dute eraginik handiena, eta sektore hori da ugaltzeko gaitasuna duena, hau da, zahartze indizea jaisteko gaitasuna izan dezakeena.

Beraz, Eibarko hiriaren arazoak ez dira demografikoak bakarrik, eta herriaren egitura ekonomikoan eta urbanistikoan dauden tentsioetatik ere sortzen dira.

Etorkizunean 25.000 biztanle inguruko biztanleria mantentzeak, hori baita Eibarrentzat hautatu den hiri ereduari dagokiona, lurzorua berrantolatu eta lurzoru erabilera berriak erakartzeko politika bultzatuko duen deskongestioa ekar dezake, hau da, udalerriaren bizi kalitatea gehitzeko aukera emango duten espazio libreak sortzea.

# 5.- HIRI ESPAZIOAREN ETA LURZORU ERABILEREN ANALISIA

Hiri espazioari eta lurzoru erabilerei buruzko analisia egiteko, aurretik beste lan bat egin da, hiria “auzotan” eta “areatan” banatzeko eta ezaugarritzeko, “hiri erreal” bezala defini genezakeen horretara ahalik eta gehien hurbiltzen saiatuz, “hiri administratiboarekin” konparatuta.

Jende artean auzo bat aipatzen denean, demagun Legarre auzoa, haren barruan beheragoko mailako beste azpizatiketa duen mugapen bat ari gara adierazten, “Legarre goikoa” eta “Legarre behekoa” hartzen dituena, adibidez. Errealitate hori onartuz, parametro desberdinen analisia egiteko balio duten zonen mugapenak ezartzera iritsi nahi izan da, bereizketa eginez “Sail eta Zentsu barrutien” banaketan (“hiri administratiboa”) definitutako mugapen administratiboen eta herriak, auzo eta areatan taldekatuz, intuitiboki egiten dituen mugapenen artean (“hiri erreala”).

Informazio geografikoko sistema bat (SIG) erabiliz egin da lana, sistema horrek datu sail bat georreferentziatzeko balio baitu, eduki eta helburu desberdineko analisi anitzak egiteko aukera emanez.

## 5.1.- Lurzoruaren erabilerak

2003ko urtarrilaren 1ean, biztanleen Udal Erroldaren arabera, Eibarrek 28.185 biztanle zituen. Udal barruti guztiak 2.485 hektareako azalera duela kontua izanik, 11,37 biztanle hektareako da biztanleriaren batez besteko dentsitatea.

Hala ere kontuan izan behar da biztanleria ez dagoela modu uniformean banatuta lurralde guztian, baizik eta hiri nukleoaren zonan kontzentratzen dela, eta honek lurraldearen %6,5 hartzen duela; zati horretan dago kokatuta biztanleriaren %98, eta, hala, 400 bizt./Ha-ko biztanleri dentsitateko balioak izatera iristen da. Lurzoru urbanizaezinean, berriz, udal barrutiaren %93,5 izan arren, biztanleriaren %2 baizik ez dago kokatuta.

Egindako lanetik ateratzen denez, gaur egungo egoeran eta udal mugapean eraikitako azalera guztia kontuan hartuz (2.273.437 m2e), lur horren %45,6 (1.036.190 m2e) bizitegitarako erabiltzen dela, %8,3a (190.755 m2e) hirugarren sektoreko erabileretarako, %28,82 (655.108 m2e) erabilera industrialetarako, %9,98 (226.912 m2e) ekipamenduko erabileretarako eta %7,21 (163.914 m2e) bestelako erabileretarako.

Ondorengo koadroan jasotzen da erabilera bakoitzerako erabiltzen den azalera, auzoka aztertuta:

**LURZORU ERABILEREN AZALERA OSOA, AUZOKA**

| Auzoak | Egoitzak | Etxebizitzak | Ekipamendua | Hirugarren sektorea | Industria | Azpiegitura | Lokalak | Garajeak | Elem. komunak | Eranskinak | Bestelako erabilerak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M² | Kop. | m² | m² | m² | m² | Kop. | m² | m² | m² | m² | m² |
| 1 Erdialdea | 200.359 | 1.983 | 13.944 | 42.794 | 9.339 | 0 | 495 | 13.612 | 4.075 | 35 | 7.232 | 291.563 |
| 2 Errebala | 151.941 | 1.364 | 17.898 | 30.619 | 61.961 | 0 | 436 | 6.231 | 6.244 | 98 | 3.912 | 278.904 |
| 3 Ipurua | 95.818 | 1.101 | 25.165 | 14.730 | 1.629 | 0 | 160 | 30.424 | 1.737 | 0 | 3.046 | 172.549 |
| 4 Legarre | 47.013 | 521 | 31.621 | 1.844 | 4.069 | 0 | 80 | 7.819 | 1.141 | 0 | 1.029 | 94.536 |
| 5 Urki | 201.073 | 2.593 | 15.209 | 20.896 | 22.392 | 0 | 381 | 11.470 | 2.971 | 199 | 6.117 | 280.327 |
| 6 Jardiñeta | 40.478 | 495 | 20.433 | 1.627 | 11.650 | 0 | 30 | 5.312 | 639 | 0 | 197 | 80.336 |
| 7 Amaña | 117.844 | 1.509 | 5.954 | 5.295 | 7.331 | 0 | 278 | 14.721 | 2.660 | 0 | 5.291 | 159.096 |
| 8 Otaola | 3.537 | 25 | 52.622 | 47.628 | 224.790 | 24 | 61 | 1.000 | 11 | 248 | 57 | 329.917 |
| 9 Urkizu | 71.200 | 978 | 10.953 | 17.784 | 27.250 | 0 | 210 | 3.588 | 1.231 | 0 | 2.541 | 134.547 |
| 10 Matsaria | 4.998 | 40 | 0 | 69 | 47.987 | 0 | 33 | 90 | 51 | 459 | 317 | 53.971 |
| 11 Txonta | 21.705 | 276 | 0 | 516 | 37.596 | 0 | 64 | 3.927 | 296 | 55 | 375 | 64.470 |
| 12 Barrena | 46.687 | 591 | 324 | 6.060 | 30.883 | 2.968 | 82 | 2.460 | 490 | 0 | 0 | 89.872 |
| 13 Azitain | 3.776 | 45 | 26.166 | 18 | 156.503 | 0 | 96 | 3.500 | 11 | 0 | 0 | 189.974 |
| 14 Apalategi | 170 | 3 | 0 | 0 | 11.031 | 0 | 9 | 0 | 0 | 29 | 50 | 11.280 |
| **Hiri area guztira** | **1.006.599** | **11.524** | **220.289** | **189.880** | **654.411** | **2.992** | **2.415** | **104.154** | **21.557** | **1.123** | **30.164** | **2.231.342** |
| **Landa area** | **29.591** | **256** | **6.623** | **702** | **697** | **2.180** | **19** | **216** | **432** | **274** | **1.380** | **42.095** |
| **Hiria guztira** | **1.036.190** | **11.780** | **226.912** | **190.582** | **655.108** | **5.172** | **2.434** | **104.370** | **21.989** | **1.397** | **31.544** | **2.273.437** |

## 5.2.- Ondorioak

Ia 64.000 biztanle dituen hiri aglomerazio baten (Eibar, Ermua, Elgoibar, Mallabia eta Soraluze) udalerri nagusia eratzen dute Eibarko 28.185 biztanleek.

Biztanleria, etxebizitzak eta jarduera ekonomikoak desberdin banatzen dira udal mugapearen azalera guztian. Area zentralean aurkitzen dira era guztietako erabileren dentsitaterik altuenak. Hiri areatzat hartzen den lurraren %3,38an biztanleriaren %98 kontzentratzen da, eta jardueren %99 ia.

Erabileren bokazioa sistematizatzeko ahalegin bat eginez, pentsa dezakegu hiri garapenak hartzen duen lurraldearen erdiko zonan aurkitzen dela merkataritzako jarduera gehiena, jarduera industrialak bi aldeetan kokatzen direla, eta ekialdetik mendebalderako ardatzarekiko zona perpendikularretan poligono industrialak kokatzen direla, kasu batzuetan bizitegien erabilerarekin batera azalduz.

Ekipamenduak lurralde osoan sakabanatuago dauden arren, sektoreak bereizten dira, adibidez Ipurua, kirol ekipamenduarekin, edo Legarre ekipamendu asistentzialarekin, eta Aldatze eskolen ekipamenduarekin, bakoitza bere erabilera horrek nabarmentzen duela.

Era berean, Erdialdea eta Errebal dira batez besteko azalera handieneko etxebizitzak dituzten zonak, 100 eta 110 m2 bitarteko azalera eraikia dutenak, hau da, Urki, Amaña, Urkizu eta Txonta bezalako auzoetakoekin kontrastatzen dutenak, auzo hauetako etxebizitzek 78 m2-ko azalera baitute batez beste.

Lan mailako okupazio adierazleetan ere islatzen dira kontraste hauek, eta garbi geratzen da erdialdeko auzoetan enpresari eta autonomo gehiago daudela, eta periferiako areetan baino soldatapeko gutxiago.

## 6.- ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Aurreko epigrafeetan xehetasunez egindako eta garatutako diagnostikoari esker oso garbi ikusten da zein izango den, esku-hartze eraldatzaile erabakigarririk egiten ez bada, Eibarko udalerriaren etorkizuna. Etorkizun hori, besterik gabe, bizitegitarako eta industriarako hiri bihurtzea izango litzateke, “bizi kalitateko” indize apaleko zonekin, zaharkitutako industrien pisu espezifiko handia duten area itoekin, produkzio sektorearen dibertsifikazio eskasarekin eta defizit larriarekin, espazio libreei dagokienez.

Joera hori aldatzea ez da udalaren esku-hartzearen edo sektore pribatuaren partaidetzaren esku bakarrik dagoen gauza. Lurraldea Antolatzeko Jarraibideetan (LAJ) planteatutako ideiak, alegia EAE Europako jarduera ardatzen (Bizkarrezur Atlantikoa, Mediterraneoko Ardatza) eta Ebroko Ardatzaren arteko “errotula” bihurtzeko eta, aldi berean, Euskal Herriko hirien eta hiriburuen arteko sisteman elkarrekiko erlazioak eratzeko ideia horrek zuzeneko eragina izango du gure herriak etorkizunean bete beharreko eginkizunen gain. Adibidez, Eibar eta Gasteiz arteko komunikazio bidea eraikitzen bada, horrek halako zentralitate baldintza batzuk erantsiko dizkio, oharkabean nekez pasatu ahal izango direnak eta ezinbestez aprobetxatzea komeniko direnak, jarduera kanalak eta fluxu ekonomikoak Eibartik igaro daitezen.

Hala ere, garbi ikusten da, edo Eibarrek bere egitura demografikoak eta produktiboak saneatu eta birmoldatu eta hiri kalitatearen mailak hobetzea lortu beharko duela, eta aipatutako kanal eta fluxu horientzat hiri “erakargarri” bihurtu, edo gorago aipatutako eredu hori behin betiko finkatu eta ezarrita geratuko dela bestela.

Egoera horren aurrean ez dago Administrazio Publikoen, udal eta udalez gaindiko administrazioen eta Eibarko gizarte guztiaren esku-hartze erabakigarria beste irtenbiderik, hau da, denon artean ekin diezaiotela hiri bilbea eraberritzeko lanari, helburu bezala hartuz hiri kalitate mailak hobetzea, produkzio sistema kualifikatzea eta dibertsifikatzea enplegua sortzeko aukerak izateko, eta etxebizitza aski eta egokiak sortzeko politika bat garatzea etxebizitzak prezio onean erosi ahal izateko, horrek bere aldetik, udalerrian belaunaldi gazteak finkatzeko eta gehitzeko aukera eman dezan, gaur egungo joera demografikoak aldatuz eta, ahal den neurrian, eta baita kanpotik lanean kualifikatutako biztanleria gaztea erakarriz ere.

Hortik aurrera posible izango da Eibar-Ermuako udalerriek eratzen duten hiri arean eta Debabarrengo Area Funtzionalaren multzoan Eibar nagusi izateko bere egiteko hori sendotzea eta bultzatzea.

Hemen aurkezten den proiektua hiriaren irudi berri, eraberritu eta birmoldatua lortzeko ideiaren gain artikulatu da; gaur egungo irudia eta egoera ahaztaraziko duten kalitate estandarrak izango dituena; produkzio sektorea dibertsifikatuko duena, hirugarren sektoreari eta zerbitzuen sektoreari leku handiagoa emanez eta nagusiki industriala den eskualde bateko zentro eraginkor bilakatuz, eskualde horren zerbitzuan jarriz eta haren motore izanez; kanpora "erakargarri" egingo duen irudi bat proiektatuz, bai biztanleria endogenoarentzat eta bai produkzioaren sektorearentzat; eta benetan bizitzeko gai egingo duten zuzkidura mailarekin, bai ekipamenduen aldetik eta bai espazio libreen aldetik. Oinarri berri hauetan bermatuz, beraz, erantzuna eta bukaera eman nahi zaio nolabait ere Arau Subsidiarioetan hasita eta bukatu gabe zegoen hiri proiektuari, uste osoarekin ezen proiektu honek proposatzen duen hiri birmoldaketa, suspertze ekonomikoa eta demografikoa baldintza, agian ez askia, baina bai behar-beharrezkoa dela, agente sozialek berek definitutako hiri eredu hori gauzatu ahal izateko.

Ikuspegi honetatik begiratuta, Dokumentu honek zerikusi estuagoa du, gure iritzian, Eraberritzeko Plan Bereziekin Plan Orokorren irudiarekin baino, antolamendu tresna horietako bakoitzak dituen hierarkiazko eta legezko desberdintasun guztiak salbuetsirik.

## 6.1.- Lurralde Ikuspegia

Lurraldea da giza jardueraren euskarri fisikoa. Lurralde antolamenduaren instrumentalizazioa eta, beraz, haren gain ezartzen den sistemaren instrumentalizazioa, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearekin arautzen da. Horren garapenaren ondorioz eta horren babesean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak (LAJ) onetsi ziren 1997ko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuan, era horretan Debabarrengo Area Funtzional osoa ordenatzeko marko orokorra finkatuz, jarraibide horien eta horri dagokion eta tarteko eskalako xedapenak zehazten dituen Lurralde Plan Partzialaren (LPP) bitartez.

LAJek markatutako pauta orokorra bat dator, nabarmen, proiektu honen helburuekin: Europako jarduera kanal eta fluxu ekonomikoetan txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko hirien sistemarekin erlazio efektiboa lortzea, ingurumena hobetzea eta bizi kalitatearen eta hiri kalitatearen mailak hobetzea, produkzio sektorea dibertsifikatzea, lurraldea orekatzea, zaharkitutako eta degradatutako areak birmoldatzea, azpiegiturak hobetzea, etab.

Hala ere diferentzia handiak daude jarraibide jakin batzuei eta udal aurreikuspenei dagokienez. Adibidez, LAJetan xedatzen da planeamenduak bateragarria izan behar duela Zaldibar, Elgeta eta Ermuako planeamenduekin, baina ez da esaten proposamen hori aurrera eramateko mekanismoak zein izango diren. Bestalde, irtenbide zaila izan dezake arazo horrek, oraindik ere udalari zehazki atxikitako antolamendu proposamena egiteko inertzia tradizionalak jarraitzen duen bitartean.

Trenbide sistemari dagokionez, orain dagoen azpiegitura hobetzea bakarrik proposatzen dute LAJek, Ermua-Eibar-Elgoibar arteko trenaren erabilera bultzatzeko udalerri horien arteko konexio sistema bezala, eta kontuan hartu gabe Area Funtzionalaren esparrua zabalagoa dela (Mallabia ere hartzen du, eta Eskualde mailako Ospitalea Mendaron kokatzen da), eta ezta ere trenak, Eibarko udalerriaren puntu batzuetan (Matsaria eta Asua Errekan) hesi fisiko iraganezina eratzen duela, benetan ia lau kilometroko ibilbidea izanik, zeinetan trenbidea etxeetatik bi metrora pasatzen baita.

Bestalde, LAJetan azaltzen den jarduera industriala Markina aldera hedatzeko proposamenak aurrez aurre egiten du topo Mallabia aldera eramateko ideiarekin (Ermua eta Mallabiako udalerriekin batera egindako proposamen bateratua, kasu honetan), honen helburua, alde batetik eta LAJekin bat etorriz, lurraldea orekatzea eta, bestalde, urrunago dauden herrialdeetara joango diren "ihes" demografikoak galaraztea delarik.

## 6.2.- Proiektuaren Marko Kontzeptuala

- **<u>Gaur egungo unea</u>**

70 eta 80 urteetako krisi ekonomikoaren ondorioek eta Europako eraldakuntza ekonomiko eta sozialek pauta guztiz berriak ezarri dituzte Europako eskualdeen etorkizuneko garapenari buruz, zuzeneko komunikazioan eta lehiakortasunean oinarritzen direnak, Estatuetako mugen ezkutu babeslea hautsi ondoren. Ikuspegi honetatik begiratuta, ezinbestekoa da eskualdea garatzeko prozesuen dinamizazioa sustatzea eta, beraz, eskura ditugun potentzialitate eta baliabide guztiak optimizatzea.

Gure inguruko ia hiri guztiak hasiak dira bakoitza bere “abiada” ekonomikoa lortzeko alternatibak bilatzera zuzendutako ekimenak martxan jartzen, etorriko den Europako lurraldearen markoan zeregin jakinen bat bete ahal izango dutelakoan; egoera horretan daude, adibidez, Gasteiz, Donostia, Bilbo, Iruñea eta baita Baiona-Angelu-Biarritz triangelua ere.

Hala ere, jarduera ekonomiko berriak ezartzeko lurzoru garaturik ez izatea, Azitaingo poligonoa salbu, Arau Subsidiarioetan planteatzen ziren "errehabilitazio industrialeko" eragiketa garrantzitsuei ekiteko ekimenik –hiria eraberritzekoak aipatu gabe– ez izatea oztopo handia izan da jarduera ekonomikoa sortzeko orduan, eta horrek, zenbait kasutan, "ihesa" ekarri du eta eraikuntzak eta sarbideak baldintza eskasetan mantentzea, etxebizitza erabilerarekin interferituz beste kasu batzuetan.

Gaur egungo egoeran garbi ikusten da Udalak herriaren hiri proiektua zuzentzeko eta garatzeko ekimenari berriro heldu beharko liokeela, etorkizunari begiratu eta jarduera ekonomiko berriak ezartzeko lurzorua prestatzen parte hartuz, gero horiek udalerrian bertan edo inguruan enplegua sor dezaten, beste udal batzuekin batera koordinatuta, noski. Planteamendu hori eginez gero, posible izango da gaur egun bizitegien eremuan eta lehiakortasun baldintzarik txarrenetan aurkitzen diren industriak beste leku batera aldatzea, hiri bilbea berrituz eta birsortuz, eta hiriko biztanleen bizi kalitatearen mailetan eragiteko gaitasuna lortuz.

Eskualdeak eskaintzen dituen aukerak eta Autonomia Erkidegoko komunikazioen sarean duen kokaera estrategikoa aprobetxatuko dituen hiri eredu berri baten aldeko apustu garbia egiteak bakarrik alda dezake, eibartarren ekiteko gaitasunarekin batera, noski, Eibar hiri estankatu eta lehiaketatik kanpora geratutako hiri bihurtzera daraman oraingo joera hori.

- **Arau Subsidiarioen berrikuspen prozesua**

Hirigintza Planeamenduko Erregelamenduaren 3. artikuluan, udalaren hirigintza antolamendua aurrera eramateko erabil daitezkeen planeamenduko tresna desberdinak aipatzen dira: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Planeamenduko Arau Subsidiarioak eta Hiri Lurra Mugatzeko Proiektuak.

Artikulu berean esaten da udalerri bakoitzarentzat egokia izango den tresna hautatzeko orduan "kontuan izango direla, kasu bakoitzean, Koordinazioko Lurralde Plan Zuzentzailean azaltzen diren aurreikuspenak eta, halakorik ez balego, edo horri buruz ezer ezarriko ez balitz, hirigintza garapenak planteatzen dituen arazoen konplexutasuna, udalerriaren beraren gestio eta programazio gaitasuna, afektatutako Korporazio Lokalak, Hirigintzako Batzorde Probintzialak edo Obra Publiko eta Hirigintzako Ministerioak prezatzen dutenaren arabera".

Eibar azken urte hauetan egiten ari den hirigintza prozesuak, bere biztanle kopuruak, udal mugapearen hedapenetik eta bere eraikuntzaren eta orografiaren baldintzetatik sortzen den konplexutasunak, udal organoen gestioa eta hirigintza jardueretan sartzen diren gainerako faktoreak kontrolatzeko eta esku-hartzeko gaitasunak gomendatzen dute, inolako zalantzarik gabe, Plan Orokorra hautatzea hirigintza ordenamendua definitzeko planeamendu tresnarik osoena den neurrian.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da, bai ikuspegi tekniko juridikotik eta bai ikuspegi politikotik begiratuta, tresnarik osoena bere eremuan sartzen diren helburuak lortzeko orduan. Garbi ikusten da udal gestio koherentea eta eraginkorra lortzeko, guztiz baliagarria dela Plan Orokorraren barruan Jarduera Programa bat izatea, helburuak, jarraibideak eta udalerriaren garapenerako estrategiak ezarri ditzan denboraren arabera eta hirian operatzen duten agente publiko eta pribatuen inbertitzeko gaitasunaren arabera. Ez da ahaztu behar, gainera, udalei hirigintza aprobetxamenduan eta prozesu hori gauzatzeko bultzadan zuzenean parte hartzeko ematen zaien ahalmena, eta ahalmen horiek ezin direla aprobetxatu gabe utzi.

Ahalmen horiek modu ordenatuan erabiltzeko, agente sozial desberdinek Plan Estrategikoaren elaborazioan izandako parte hartzearen bidez hautatutako hiri eredua lortzeko aplikatu ahal izateko eta, batez ere, bere ekintza horren bidez sortuko diren plusbalioak udalerriarentzat aprobetxatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da hirigintzako tresna hori erabiltzea.

Hala ere, Eibarko hiriaren ezaugarri bereziak ikusita, erabat betea, saturatua eta lurzoru urbanizagarria sailkatzeko benetako posibilitaterik gabe aurkitzen baita, onar genezake gure hiriaren egoera hurbilago dagoela Barne Erreformako Plan Berezi baten eremutik.

Ikuspegi honetatik begiratuta, esan genezake, seguru aski, Eibarko herriaren Hiri Antolamenduko azken Plan Orokorra dela hau, Ordenamenduko Tresna Orokor hori orain arte ulertu izan den bezala ulertuta.

## 6.3.- Esku-Hartzearen Helburuak

### 6.3.1. Hiri Proiektuaren Eraikuntzako Helburuak

Hauek dira HIRI PROIEKTU berriaren hiri eraikuntzako helburu nagusiak:

#### 6.3.1.1. Helburu Nagusiak, Gaur Egungo Eraikuntzan eta Hiri Bilbean egin beharreko Esku-hartzeei Dagokienez

- *Lurzoru Erabilerak Aldatzeko programa garatzeko aukerak eta zaharkitutako eraikin industrialen aprobetxamendua eta birmoldaketa egiteko aukerak emango dituen politika bat bultzatzea.*
- *Hondakin industrialak, enpresa berriak ezartzeko edota erabilera publikoko espazioak (berdeguneak, oinezkoentzako espazioak) sortzeko aukera emateko birmoldatzea.*
- *Gutxiegi baliatzen diren eraikin singularrak berrerabiltzea. Alfa, Txonta, Matsaria eta Asua Errekako area industrial zaharkituak berrantolatzea, erabilera tertziario, bizitegi eta industrietarako erabiltzeko, gaur egungo kalitate eskakizunen arabera.*
  - *TXONTAko hiri area erabilera ez-industrialetarako birgaitzea, eraikuntza bakanduz.*
  - *MATSARIAko hiri area erabilera industrialetarako birgaitzea, eraikuntza bakanduz eta kokalekuak modernizatuz.*
- *Hiriaren berrikuntza bultzatzea, Fermin Calbeton Kalearen eraberritzeari helduz, geratzen diren estuguneak konponduz (Isasi, Errebala) eta hirigintza komertzialeko jarduerak garatzen utziz.*
- *ALFA enpresaren gaur egungo instalazioak birplanteatu eta azterketa xehekatua egitea, zentralitate berriko ekipamendu bezala erabiltzeko.*
- *Hiriarentzat interesgarriak direla ikusten den jarduerak bideratzeko aukera emango duen hirigintza politika bat ezartzea.*
- *Hondakin industrialak ezabatzea.*

#### 6.3.1.2. Jarduera Ekonomikoei Buruzko Helburuak

- *Hirugarren sektoreko jardueren motorea izango den lehen mailako zentro komertzial bat jartzeko aukera ematea.*
- *"Jarduera garbiak" ezartzeko ekimenak bultzatzea:*
  - *Ikusmen artifiziala.*
  - *Optika.*
  - *Adimen artifiziala.*
  - *Material berriak (compositeak, superaleazioak...).*
- *Gaur egun bizitegi erabilerekin "lehian" dagoen, harekin bateraezina den eta sarbide arazo larriak dituen industria leku berrietan kokatzea.*

- *Zaharkitutako area industrialen edo bizitegi areen birmoldaketa.*
- *Jarduera ekonomiko industrialeko lurzoru berriak (Matsaria, Ibur-Erreka) sortzea, industriak Goitondoko poligonora (Mallabiara) eramateko aukera emanez erdialdeko areak husteko helburuarekin, eta Barrena, Urtzaile eta Otaola kaleetan erabilera tertziarioetara pasatzeko birmoldaketak egitea.*

### 6.3.1.3. Bizitegi Erabilerari Buruzko Helburuak

- *Erabilera mistoko eraikinen beheko solairuetako lokalak etxebizitza bezala erabiltzeko birmoldatzen laguntzea.*
- *Babes Ofizialeko Etxebizitzen politika bultzatzea, zaharkitutako eraikin industrialak berrerabiliz eta/edo birmoldatuz.*
- *Babes Ofizialeko Etxebizitzak egitea, merkatuko aukerei heltzeko modurik ez duten kolektiboentzat.*

### 6.3.1.4. Bide Sareari eta Garraio Sareari Buruzko Helburuak

- *Trenbidearen ibilbidea lurperatzeko eta aldatzeko proiektua sustatzea.*
- *Trenbidea desbideratu eta lurperatzea, trenak hiritik pasatzean egiten duen hesi fisikoaren efektuak saihesteko eta bidearen bikoizketa egiteko aukera emateko, ustiapen mailak nabarmenki hobetuz.*
- *Saihesbidearen 3. fasea bukatzea.*
- *Hiri barruko komunikazioa hobetzea, barne komunikazioko sarea osatuko duten bideak eginez.*
- *Bi elementuak maila desberdinetan kokatzea, ahal dela, ibilgailu motoredunak hiriaren erdialdetik ez pasarazteko, beharrezkoak ez diren barne ibilbideak eginaraziz.*
- *Erdialdeko oinezkoentzako area zabaltzea, eta herriaren luzera guztian oinezkoentzako ardatz bat sortzea, proiektatutako espazio libre eta oinezkoentzako espazio desberdinen arteko lotura antolatuz eta bertebratuz.*
- *Eibarko hiriaren erdialdean oinezkoentzakotze selektiboa egitea.*

### 6.3.1.5. Uraren Zikloari Buruzko Helburuak Ibaia, Errekastoak eta Saneamendu Sarea

- *Ego ibaian eta Matsaria eta Ibur-Errekako errekastoetan uholdeen prebentzioko programa garatzea.*
- *Hiriaren saneamenduko eta uren eta ibaiko isurien tratamenduko azpiegitura burutzea: Elgoibarko arazketa planta, kolektoreak eta hiriko sarearen hobekuntza, saneamendu integraleko proiektua.*
- *Ibaiari estaldura kentzea, hiria eraberritzeko eragiketek horretarako aukera ematen duten zatietan.*

### 6.3.1.6. Espazio Libreen Sistemari eta Irisgarritasunari Buruzko Helburuak

- *Eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetzea.*
- *Irisgarritasun Planean ezarritako irizpideak baitaratzea, Irispide mekanikoen Planaren edukia txertatuz.*
- *Gaur egungo hilerria lekuz aldatzea, Altamira aldera eramatea planteatuz, eta espazio libreak sortuz.*
- *Espazio libre berrien proposamena, hiriaren eraberritutako eremuetan, lurzoru urbanizagarri berrietan eta autobidearen eta saihesbidearen ondoan.*
- *Aisiako Areak sortzeko proposamena, Arraten, Kalamuan eta Ixuan.*
- *Aisiako espazio publikoak sortzea ahal den lekuetan:*
  - *Txaltxa-Zelaiko parkea.*
  - *Kaleak oinezkoentzakotzea.*
  - *San Andres pasealekuaren inguruan (Alfa) erabilera publikoko espazio librea sortzea.*
  - *Espazio publikotarako unitateak berreskuratzea hiriko hainbat zonatan.*
  - *Trenbidea lurperatzea edo estaltzea, kasuen arabera, aisiako espazioak lortzeko asmoarekin.*

### 6.3.1.7. Ekipamendu Soziokulturalei Buruzko Helburuak

- *Azpiegitura soziokulturalen programa bat garatzea:*
  - *Coliseo, Arte Eszenikoen Zentroa proiektua burutzea.*
  - *Museoetarako espazioen zuzkidura.*
  - *Gazteentzako zentro sozial bat sortzea.*

Proposatutako esku-hartze multzo horrek, hiri lurzoruko areetan egin beharreko kolmatazio, berrurbanizazio eta birzuzkidurako eragiketekin batera, hiria eraikitzeko programa handinahitsua osatzen du, eta horrek inbertsioko eta gestioko ahalegin handia egitea eskatuko dio udalari, inplikatutako beste administrazioei eta sektore pribatuari.

# 7.- AUZOKAKO ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA PROPOSAMENAK

## 7.1.- Etxebizitza

### 7.1.1. Sartu den planeamendua: Garatze Fasean dauden Sektoreak

Ondoko Plan Partikular hauetan dauden erabakiak sartzen dira:

- Azitaingo Plan Partziala
- Indarrean dagoen SAPUR 2 “Sautxi”-ren Plan Partziala.
- Matsariako Plan Partziala.
- Ibur-Errekako Plan Partziala.
- Erisonoko Plan Partziala.

Ondorengo Plan Berezi hauetako erabakiak ere gehitzen dira:

- Ardantzako Plan Berezia.
- Muzategiko Plan Berezia.
- H Eremuko “Txirio Kale”aren Plan Berezia.
- “Alfa – San Andres” Plan Berezia.

Era berean, garatze fasean dauden Bizitegi izaerako Gauzatze Unitateen Garapen Planeamendutik eratorritako erabakiak ere gehitzen dira.

Jasotzat hartzen dira Arau Subsidiarioek Fermin Calbeton Kaleko 6tik 24ra zenbakietako eraikinetan aurreikusitako arkupeen tratamendua arautzeko Azterketa Zehaztuaren erabakiak, baita Torrekuako 27. U.A.I.aren Azterketa Zehaztua ere.

### 7.1.2. Lurzoru Urbanizagarria

Proiektu honetan proposatzen diren bizitegi erabilpenerako lurzoru urbanizagarriak honako gune hauetara mugatzen dira:

- BOLINGUA: Bloke irekiko tipologiako eraikinak egin nahi dira; horretarako Errekatxu kalea Arane Kalearekin lotuko duen bide berri bat egin beharko da, eremu honetan sakabanaturik dauden eraikinen ordez, era honetan Eremu Libreen Sistema Orokorrerako xedatutako lurren zati bat lortuko delarik.

- EGA ZELAI: Esku-hartze honek autopistaren mugako hiri sarea osatu eta bide berri bat irekitzeko aukera emango du; bide berri honek, aurreikusitako hedapenari zerbitzua emateaz gainera, Frai Martin Mallea Kalearen atzeko aldea Paziano Arosarekin lotzeko ere balio izango du, eremu honetako bide sarea osatuz.

### 7.1.3. Erreformako eragiketak

Barne erreformako edo hiria eraberritzeko eragiketei dagokienez, *“7.1.1 Sartu den planeamendua: Garatze Fasean dauden Sektoreak”* atalean aipatzen diren xedapenak sartzen dira proiektu honetan, eta egiten ari diren jarduerak finkatzen dira.

Helburu estrategikoa duen beste honako proposamen hau egiten da gainera:

- ALFA: gaur egun “ALFA S.A” enpresak San Andres Pasealekuan hartzen duen eremua birmoldatzea; zona horretan bizitegi, erabilera tertziario eta ekipamenduko erabilerak ezartzeaz gainera, Ego ibaia desestaltzea proposatzen da, hiri espazioa diseinatzeko funtsezko elementu bezala, eta gaur egun Toribio Etxebarria Kalera eta Untzaga Plazara mugatzen den oinezkoentzako eremua mendebaldera luzatzea, ibai “berriaren” ondotik. Horrekin, Fermin Calbeton Kalea oinezkoentzat uzteaz gainera, beste maila handiagoko eta zentralitate berriko area bat lortuko da, San Andres Pasealekua, Barrenengua, Isasi, Txaltxa-Zelai eta Txirio Kalearen, Bidebarrieta Kalearen, Zuloaga-Tarren Kalearen, Toribio Etxebarria Kalearen eta Untzaga Plazaren artean mugatua.

- TXONTA: Egun industria-erabilerak hartzen dituen Txontako eremua leheneratzea eta jarraian deskribatzen den moduan taxutuko den bizitegitarako zona bihurtzea. Alde batetik, erdigunea dago, funtsean, oinezkoentzako zonak egiteko erabiliko dena; Txontako egungo errekastoaren gainean garatzen da eta hegoaldean amaitu, erpin modura dotazio-eraikina duten plaza publikoen segidarekin. Beste alde batetik, bide perimetrala egingo da, Gisastu Bidetik joanda, proposatu den auzo arteko bidean hasi eta bukatuko dena. Eremu horretan, bizitegitarako erabilera emango zaio gaur egun “Cadenas Iris” enpresak duen lurzoruari. Proposamenaren arabera, eremuan eraikin-bloke irekiak egingo dira egin eta ireki berria izango den bidearen baitan, eta Urtzaile kalea eta Txonta kalea lotzen dituen bidea irekiera berriko kalea bailitzan taxutzea ahalbidetuko duen moduan garatuko dira eraikinak.

- MATSARIA - GELTOKIA: Geltokiak gaur egun hartzen duen eremuaren erreforma integrala, trenbidea desbideratu eta lurpean sartuz egin daitekeena. Bizitegien proposamena bera jasotzeaz gainera, espazio libreen zuzkidura handi bat egiteko aukera ematen du, gaur egun ez baitago honelakorik eremu horretan, eta bide sistema birmoldatzeko aukera ere bai, puntu honetan saihesbidea eta “auzo arteko” bidea elkarrekin lotzen dituen parea eratuz eta Matsaria hiri esparruan integratuz.

- MURRATEGI: Eremuaren antolamenduari buruzko berrazterketa egitea, egungo eraikinen hiri kalitatea hobetzen ahaleginduz.

- ERREKATXU: Errekatxu eta Arane kaleetan eta Bista Eder Kaleko luzapenean dagoen etxe sailaren berrantolaketa, Bista Eder Kalearen eta Arane Kalearen arteko lotura ahalbideratzeko, oinezkoen Bidebarrieta Kalerako lotura eskailera mekanikoen bidez konponduz.

- AZITAIN Azitaingo ermitaren ingurunearen berrantolaketa, Murrategi eta Azitain auzorako aisialdi gune hornitu bat sortuz.

- Ekipamenduko bi eremu, gaur egun ekipamendutarako izendatuta daudenak, birmoldatzea, gaur egun beren funtzioaren eta beren dimentsioaren aldetik agortuta daudela ikusten baita, eta komeni dela horiek lekuz aldatu eta beste neurri batera egokitzea. Guardia Zibilaren kuartela eta hilerria, hain zuzen. Leku horiei bizitegi erabilera berria izendatzea proposatzen da, eta espazio libreen zuzkidura oparoa egitea.

### 7.1.4. Jarduera puntualak

Azkenik, jarduera puntual hauek proposatzen dira proiektu honetan:

- Arragueta Kalea lerrokadura berriak egiteko proposamen baten bidez berrantolatzea, kalearen zati bat oinezkoentzat uztea proposatuz.

- Estaziño Kalea oinezkoentzat bihurtu eta kale honetako zenbaki bakoitietako etxeen atzeko aldetik, Estaziño, Pagaegi eta Ibar Gain kaleen artean kokatutako etxe sailaren berrantolaketa ahalbidetuko duen bide berri bat irekitzea.

- Ibar Gain, Merkatu, Blas Etxebarria eta Pagaegi kaleen artean dagoen etxe sailaren berrantolaketa, han dagoen fabrikaren ordez etxebizitzetarako erabiliko diren eraikin berriak eginez. Lan honen bidez erabilpen publikoaren zorra izango duen plaza bat sortu eta Jardineta Kalearen Ibar Gain alderako irteera eta Muzategi Kalearekiko lotura hobetu egingo dira.

- Muzategi, Errebal eta Merkatu kaleen artean dagoen etxe sailaren berrantolaketa, eremu libreen esparru berri bat eta, merkatuaren birmoldaketari loturik, aparkaleku sail bat sortuz.

- Sostoa Tarren Kaleko 12an dagoen eraikina bermatzea, eraikin honen eta Indalezio Ojanguren Kaleko 1. zenbakikoaren artean etxebizitza bloke bat kokatuz eta aipatutako kalearen eta Guardia Zibilen egungo kuartelaren arteko malda gainditiko duen plaza bat eratuz.

- Isasi Kaleko 4, 6, 8 eta 10 zk.etako eraikuntzen ordez bizitegi eraikuntza berriak egitea, kale horretan dagoen estugunea saihestuz eta, lerrokadura gisa.
- Artegieta Kalea bizitegiak eginez osatzea, hiri hutsuneak bete eta auzoari “koroamendua” emanez, eta landa lurrera igarotzeko espazio libreen trantsizioko zona bat sortuz.

- Asola Igartzako 1, 3 eta 5 zenbakietako eraikinen esparrua berrantolatu.

## 7.2.- Ekonomia eta Produkzio Jarduera

### 7.2.1. Industria

#### 7.2.1.1. Produkzio Jardueretarako Area Berriak

Zona industrial berriei dagokienez, honako proposamen hau egiten da proiektu honetan:

- Industria eremu berria egitea Erisono II Plan Partzialaren bidez Azitaingo ingurunean sortutako plataforman.

- Otaola eta Torrekuako eremuak erabilera industrial eta jarduera ekonomikoetarako eremu bezala finkatzea, gaur egun hutsik dauden orubeen okupazioa planteatuz.

#### 7.2.1.2. Erreforma eragiketak

- Matsariako oraingo eremua berrantolatzea, gaur egungo eraikuntza industrialak eraberritu eta trenbidearen desbideratze eta lurperatzearekin lortuko diren hiri baldintza berrietara egokitu, hiriaren bilbean hobeto txertatuz.

- Barrenengua Kaleak eta Otaola-Torrekua bide berriak eratzen duten esparrua berrantolatzea, jarduera ekonomikoetarako lurzoru gehiagoren premia berrietara egokituz.

### 7.2.2. Hirugarren sektorea

Sektore honetan, bizitegietarako garapen gune berrietatik ateratzen diren aprobetxamenduez gainera beste esku-hartze hauek proposatzen dira:

- “AURRERA” enpresaren lehengo instalazio zaharrek eratzen duten konplexua berrantolatzea, hirugarren sektoreko erabileretarako uzteko. Eragiketa honetan, erpinean kokatzen den eta lehen bulegoak hartzen zituen eraikuntza finkatutzat mantentzea proposatzen da.

- Alfa – San Andres 45. U.A.R.aren barrutian, Saltegi Handietarako erabiliko den instalazio bat jartzea, hiri barruko merkataritza denda handiaren izaera izango duena.

- Egungo Merkatua birmoldatzea, oraingo eraikinaren ordez jarduera hori berreskuratzea eta merkataritza erabilpena lehorreko elikagai salguneekin eta aisialdirako zonekin osagarri izatea ahalbidetuko dituen beste bat eraikiz.

## 7.3.- Landa Zonak

Sail honetako lurzoruari dagokionez, zona desberdinak eta bakoitzean onar daitezkeen erabilerak garbi definitzea da helburua, nekazaritzako eta basogintzako ustiapenak mantenduz eta baimenduz, baina eremu jakin batzuetarako babes erregimena ezarriz. Irabazi asmotako ustiapenik mantentzea egokia ez den zonetan landaketa autoktonoak berreskuratzea da helburua, hain zuzen ere, lurzoru urbanizaezinaren berezko jarduerak mantendu eta, bide batez, jendearentzat ingurune fisikoaz gozatzeko aukera ere eman ahal izateko.

Eibarko herriaren erdialdea inguratzen duen zona guztia baso aberastasun handiko eta nekazaritza eta basogintzarako erabilera duen zona da; 6 km2 inguru ditu eta horietatik %20 pinudiak dira.

Irispideak oso egokiak dira, erdialdetik ateratzen den edozein bide hartuta, eta horregatik modu intentsiboan erabiltzen da ingurune fisikoa, jendearen aisia eta gozamenerako oro har.

Tradizionalki, lurzoru urbanizaezina ez zen antolamendu orokorreko tresnen artean analizatzen, ez bazen landa nukleoak eta babes bereziko zonaren bat zedarriztatzeko, zegokion sailkapenari dagokionez bazter izaera utziz.

Proiektu honetan, Aurrerapenari dagokion agirian, kontzeptu hori gainditzen ahalegindu eta eremu bakoitzak duen erabilpen eta bereganatze ahalmena aztertzen hasi zen.

Aurrerapenaren jendaurreko erakusketaren ondorioz, iradokizun batzuk aurkeztu ziren bizileku bakarreko edo biko etxebizitzak oso kopuru txikitan (hamar etxebizitza hektareako) hartu behar zituzten eremuak sailkapenez aldatzeko asmoz, eta Udalbatzak onartu egin zuen.

Bestalde, Urbanizagarria ez den Lurzoruan, “Landa Gunea” maila beraz gain beste bost maila ezartzea proposatzen da, non erabilpen onartuak eta baimendunak bereiziko baitira, debekaturiko erabilpenak erabakitzeko irizpideak ere finkatuz.

### 7.3.1. Landa nukleoa

Eibarko udalerrian dauden baserri multzoen ezaugarriak indarrean dagoen Ingurugiroaren Legean kontuan hartutako definizioari ez zaizkiola zorrozki egokitzen, eta multzo horietako baserrietako bizilagunen eta lursailetako jabeen artean inolako eskabiderik ez dela izan kontuan izanik, proiektu honetan ez da landa gune bakar bat ere sartu.

### 7.3.2. Lurzoru Urbanizaezin Babestua

Kategoria hau ezartzen da ekosistema kontserbatu eta hobetzea ekarriko duen kontserbazio erregimen zorrotza sortzeko asmoz, biztanleen eta ingurune fisikoaren arteko kontaktua bideratzeko.

Kategoria honetan sartzen da nekazaritzan, basoetan edo abere alorrean duten balio bikainagatik, izadi baliabideak ustiatzeko eskaintzen dituzten aukerengatik, beren paisaia, historia edo kultura balioengatik edota fauna, flora edo oreka ekologikoa zaintzeagatik sistemaren baten babespean jarri behar den lurzoru guztia. Kategoria honetan sartzen dira lur azaleko urak, eta ibai eta erreka bazterrak.

Ondorengo eremu banaketa hau ezarri da: Babes Berezia, Ingurumenaren Hobekuntza, Azaleko Uraren Babesa, Arkeologia Babesa.

Kategoria honen barnean, aisialdi estentsiboa onartzen duten Espazio Libre eta Atsedenlekuak Lurzoru Urbanizaezinetan sartzea proposatzen da.

"EL-AR" epigrafeaz adierazitako Arrate, Kalamua eta Ixua zonak, eta Santakrutz ermitaren ingurua ere sartzen dira "Egitura Orokorra eta Organikoa"ri dagokion planoan, baita 1a, 1b, 1c eta 1d epigrafeaz adierazitako zonak ere, "Lurzoru Urbanizaezineko Kategoriak" biltzen dituen planoan.

### 7.3.3. Lurzoru ez urbanizagarria, Nekazaritza eta abelazkuntzakoa, landa eta lur landuak

Kategoria honetan sartzen da aurreko kategorietan sartzen ez den lurzorua, nekazaritza eta abeltzaintzarekin zerikusia duten ustiatze lanetarako soilik erabil daitekeena, edo hauekin zerikusia duena.

### 7.3.4. Baso-lurzoru Urbanizaezina

Kategoria honetan sartzen da aurreko kategorietan sartzen ez den lurzorua, basoarekin zerikusia duten ustiatze lanetarako soilik erabil daitekeena.

## 7.4.- Komunikazio Sistemak

### 7.4.1. Bide Sarea

Bide sisteman esku-hartzeko proposamenaren helburu orokorra sarea hierarkizatzea da, argiagoa eta funtzionalagoa izan dadin, udalerriaren kanpoko trafikoaren eta auzo artean konektatzeko barne trafikoaren kanalizazio egokia lortuz, eta sarearen barneko mailaketan funtsezko hobekuntza lortuz.

Helburu horien arabera, saihesbidearen hirugarren fasea eraiki ondoren, kutsu hiritarragoa eman nahi zaio CN-634 errepideari, Kale konbentzionala izatera pasatuko baita, zati batzuetan oinezkoentzako zona eta guzti izango duelarik.

Proposatutako bide sarea deskribatzen da ondoren:

#### 7.4.1.1. Autobideak

Gaur egun autobideen sistema A-8 autobideak osatzen du; hiri eremuaren hegoaldetik pasatzen da eta eremu horren hedapen aukerak mugatzen dituen ingurabide bezala eratzen da. Bide luzeko trafikoak kanalizatzen dituen elementua da, eta bi sarbide ditu Eibarko udalerrirako: bata hiriaren ekialdean (Azitain), orain berriro eraiki dena, eta bestea mendebaldeko muturrean, Ermuko udal mugapean sartuta, herri horretara joateko ere balio duena.

Iruditzen zaigu A-8 autobideak, Eibarko lurretatik igarotzen den zatian, balio duela bere helburutzat dituen funtzioak betetzeko, eta eraginkorra dela hiria Bilbo eta Donostiako metropoli esparruekin komunikatzeko; horregatik ez dago azpiegitura honen inguruan inolako jarduerarik planteatzeko asmorik, eta, beraz, gaur egun duen egoeran finkatzen da.

Euskal hirien sistemaren arteko erlazioa lortzeko ideiari dagokionez, hau da, Eibarri udalaz gaineko mailako komunikazio sistema egoki bat zuzkitu eta Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearrarekin komunikatzeko helburuari buruz, Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzeko proposamena jaso da, gaur egun, bere exekuzioaren lehenengo fasean dagoena. Hori eraikitzen bada, zentralitate baldintza ezin hobeak izango ditu Eibarrek EAEko komunikazio sistemaren barruan, eta komeni da egoera hori indartzea erakarpen polo bihurtzeko, igaroleku bakarrik izatera mugatu gabe.

### 7.4.1.2. Lehentasunezko sarea

Orain arte eginda dauden saihesbidearen bi faseek eta CN-634 errepideak osatzen dute. Saihesbidearen bi lehenengo faseak eginez, hala ere, ez da erabat lortu herriaren erdialdetik zirkulatzen duten paseko ibilgailuen trafikoa erabat ezabatzea, batez ere maldak eta biraguneak oso baldintza geometriko latzetan geratu direlako. Barrenengua bide korapiloaren jarduerarekin gehitu egin da saihesbidearen erabilera, hiriaren erdialdean oinezkoentzako erabilera selektiboa egiteko aukera ere emanez, egun seinalatuetan.

Bestalde, hiri eremuaren erditik pasatzen den CN-634 errepideak paseko ibilgailuen trafikoa izaten du oraindik ere, saihesbidea bukatu gabe dagoelako batez ere.

Egoera honen aurrean, Aurrerapenaren agirian Saihesbidearen 3. Fasean aurreikusitako ibilbideari beste ordezko bat aurkeztu zitzaion, Mallabian proposatutako garapen gune berriekiko lotura nabarmen hobetzen zuena. Hala ere, aipaturiko garapenek Ermuako hiri guneko zirkulazioan sortuko dituzten arazoak konpondu arren, Ermuako Udalak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak idazki bana aurkeztu zuten 3. Faseko aurreproiektuan kontuan edukitako bide proposamena mantentzeko eskatuz.

Une honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bide zati honen proiektuaren idazketa kontratatu du, beraz, onartzen den unean proiektuaren erabakiak Plan Orokor honi erantsiko zaizkio.

Proiektu honetan Lea Artibai eskualdearekiko komunikabide sarea Matsariako eremutik abiatu eta Aginagako eremuraino Ixuaraino igo beharrik gabe joateko aukera emango duten tunel baten bidez hobetzeko proposamena sartzen da. Bide horrek arras hobetuko lituzte Eibartik Markinarantz doatzen komunikazio azpiegiturak,LAJetan ezarrita dagoen korridorearen barruan.

### 7.4.1.3. Eskualdeko sarea

GI-2639 errepideak (Kanpazartik Eibarra Elgetan barrena) osatzen du; hiriaren bihotzetik abiatzen da (Untzaga), J.A, Gisasola eta Ipurua tarteko zatietan beste edozein kale bezalakoa balitz bezala, eta puntu horretatik aurrera, errepide konbentzional bihurtzen da.

Ez dauka dimentsionamendu edo trafikoko arazo berezirik eta, beraz, ez da planteatzen horren gain jarduera handirik egitea, eta gaur dagoen egoeran finkatuko da.

### 7.4.1.4. Sare lokala

Batetik, Eibartik Etxebarriara doan GI-3950 errepideak osatzen du (Eibar eta Bizkaiko muga bitarteko zatia), eta bertan “zabaldurak eta hobekuntzak” egitea proposatu da, Iturburuko ikastolaren eta Ixuako Gainaren tarteko [GI-3950 (1)] eta Ixuako Gainaren eta Bizkaiko muga probintzialaren [GI-3950 (2)] tarteko zatietan; bestetik GI-3301 errepideak osatzen du, GI-3950arekiko elkargunetik Arrateko Santutegira bitarteko zatian; zati honi buruz ere “zabaldura eta hobekuntzako” jarduerak egitea proposatu da.

### 7.4.1.5. Hiri barruko sarea

Hiri eremuaren barrutik pasatzen diren beste ibilbide edo ibilgailu bide guztiez osatzen da, eta hauek dira proiektu honetan egiten diren proposamenak:

- Berriki eraikitako zati hauetako batzuetan egin beharreko esku-hartzeak:
  - Torrekuako lotunearen birmoldaketa, San Andresko barrutian aurreikusitako saltoki gunea gauzatu behar delako. Birmoldaketa hau egungo zubibidearen egiturari erasan gabe eta hainbat bide lerro dauden gunean San Andres Kaletik Barrenengua Kalerako eransketa mantenduz burutuko da.

- Torrekua kalearen eta Otaola Hiribidearen arteko lotura bidearen zabaltzea, bide honek Barrenengua, Torrekua eta Otaolarekin osatzen duen “kale artea” “hiri biribilgune” handi bat bilakatzen delarik.

- Otaola Hiribidearen, Santaines alderako igoeraren eta Barrenengua Kalearen arteko zatian, hirugarren bide lerroa zabaltzea.

- Auzo desberdinen arteko lotura elementua izango den bide bat eraikitzea Otaola Hiribidetik Azitain Bideraino, horrekin barneko trafikoa herriaren erdialdean sartu gabe pasatzeko aukera eskainiz. Horretarako, hau proposatzen da:

  - Bista Eder eta Arane bidearen arteko konexioa.

  - Urtzaile (Jata) eta Azitain bitarteko bidea egitea; Bidebarrieta, Urkizu, Karmen eta Barrena kaleekin nabarmenki paraleloa izango da CN-634arekin elkartu arte saihesbidearekin ebakitzen den puntuaren inguruhabía, eta proposatutako “auzo arteko” bidea osatuko du.

- Zeharka konektatu eta saihesbidea eta proposatutako "auzo arteko" bide berria mailatzea honako elementu hauen bitartez: Barrenenguaren eraldaketa; Juan Gisasola; “Estaziño-Arikitzaneko Zubia-Urtzaile” eta “Bittor Sarasketa - Matsariako oraingo irispidea” “parea”, erdialdeko kaleetan trafiko parasitoak eragozteko eta berriro beren jatorrizko kale izaerara itzuli ahal izateko.

- Beste bide bat eraikitzea Torrekua eta Otaola bitartean, zona industrialeko bideen multzoa mailatzeko aukera eskainiz.

- Altamirako hilerri berrira joateko irispide berria.

### 7.4.2. Aparkalekuak

Gaur egun dagoen automobil parkearentzat aski izango diren aparkaleku plazarik ez izatea da denborarekin areagotzen joan diren arazo horietako bat.

Arau Subsidiarioen dokumentuan, jadanik, detektatu zen gai honen inguruan arazo bat zegoela eta, horregatik, aparkalekuarekin zerikusia duten jarduera desberdinak egitea planteatzen zen.

Hala ere, automobil parkeak azken urteotan izan duen hazkunde erritmoa aparkaleku alternatiboetarako utzi diren zonen sortze erritmoa baino biziagoa izan da.

Bestalde, ikusi da eskari potentzial handia egon daitekeen lekuetan aparkaleku plazak sortzeko eraikinak egitea, besterik gabe, ez dela nahikoa izango ibilgailuek kaleetan sortzen duten eragina konpontzeko.

Adibide bat emateagatik, ikusi da Amaña eta Legarreko eremuetan egin diren aparkalekuko eraikinak ez direla aski izan bertako hutsuneak konpontzeko. Ikusten da ezen, oraindik ere aparkaleku plaza libre asko geratzen diren arren, kaleetan ibilgailuen saturazio egoerak berdin jarraitzen duela, aparkaleku arazoak sortuz.

Aldi berean ikusi da herritarrek, beren bizilekuaren arabera, ibilgailua erabiltzeko duten ohiturarengatik ere arazoak sortzen direla.

Kontuan hartu behar da hiriak 50-60 urteetan izandako garapena eta zer gertatu zen orduan, hau da, industriak hartu zituela haraneko lurzorurik lauenak, etxebizitzak maldetan kokatzera behartuz; horren ondorioz, herritarrek, hiriaren erdialdean aurkitzen diren zerbitzuen bila joateko egiten dituzten mugimendu natural horiek egiterakoan, beren ibilgailuak hartu behar izaten dituzte, ondoren itzulera erosoa egin ahal izateko, hau da, beren etxeetara itzultzerakoan malda biziko eskailerak edota arrapalak igotzen ibili beharrik ez izateko.

Horregatik, Hiri proiektu honetan ibilgailu pribatuen trafikoaren inguruan dagoen problematikari buruz lortu nahi den helburuak bi osagai ditu: herritarrek hiri barruan mugitu behar dutenean ibilgailua gutxiago erabiltzea, eta horretarako, hirian hainbat instalazio jartzea auzoetan estrategikoki banatuta, ibilgailuak kaletik desagerrarazi ahal izateko (Irispide mekanikoen Plana); eta auzoetan bertan bizi direnentzako aparkalekuak jartzea, 30eko lastertasuneko zonak sortuz oinezkoentzako eremu libreak berreskuratzeko aukera emango duten moduan.

Helburu hori lortu nahi bada, irisgarritasunari dagozkion neurri batzuk hartu beharko dira, herritarrei ibilgailua gutxiago erabiliz ibili ahal izateko aukera eskaintzeko, adibidez, tamaina txikiko aparkaleku txikiak jarriz auzoetan eta ekipamendu edota instalazio tertziarioak egoteagatik biztanleriaren kontzentrazio fokoak sor daitezkeen lekuetan banatuta.

Horregatik, aparkalekuaren gaiari buruzko proposamena zehazteko Irispide Mekanikoen Plana prestatu da biztanleriaren auzo batetik bestera eta auzoetatik erdialdera ibiltzeko mugimenduak konpontzeko alternatiba gisa, eta aparkalekuak izan beharko dituzten lekuak mugatu dira, aparkalekuentzat emakida administratiboko jabetza erregimena ezartzeko aukera eskainiz, edota txandakako aparkalekuak ezartzeko aukera emanez, bestela. Proiektu honetan kontuan eduki diren esku-hartzeak ondorengo hauek dira:

- Aparkaleku eraikina Barrenenguan.
- Aparkaleku eraikina Ipuruan.
- Aparkaleku eraikina Sansaburun.
- Aparkaleku eraikina Bista Ederren.
- Aparkaleku eraikina Errebalen.
- Aparkaleku eraikina Bittor Sarasketan.
- Aparkaleku eraikina Artegietan.
- Aparkaleku eraikina Ignacio Zuloaga Ikastetxean
- Aparkaleku eraikina Mekolan
- Aparkaleku eraikina Asua-Errekan
- Aparkaleku eraikina Ardantzan
- Aparkaleku eraikina Zuloaga plazan
- Aparkaleku eraikina Urki Kurutzekuan

### 7.4.3. Motorrik Gabeko Garraioa

Motorrik gabeko garraioaren proposamena honako helburu nagusi hauen arabera egituratu da:

- Hirian bizi kalitatea hobetzea, garraio estrategia iraungarri bat ezarriz.

- Auzo bakoitza "area lasai" bezala konfiguratzea, barne trafiko parasitoak kenduz.

- Gaur egun Toribio Etxebarria Kalera bakarrik mugatzen den eremua baino gehiago hartuko duen oinezkoentzako area zentral bat sortzea.

- Periferiako auzoak oinezkoentzako eremu zentral handi honekin eraginkortasunez konektatzea.

- Erdialdeko area beste auzoekin lotuz udalerri guztia zeharkatuko duen luzetarako oinezkoen ardatz nagusi bat sortzea.

Garraioa arrazionalizatzea da helburua, mugikortasuna murriztuz, bai desplazamendu kopuruari bai luzerari dagokienez, ondasunak eta zerbitzuak erabiltzailearengandik hurbil eskuratzeko aukera emanez eta, beraz, oinezkoen desplazamenduak areagotuz. Trafikoa kontrolatu beharra dago, alde batetik ibilgailu pribatuen kopurua murriztuz eta, bestetik, lastertasuna motelduz.

Hiriaren espazioa mugatua denez, eta, oro har, espazio horren proportzio handiagoa erabili behar denez herritarren erabilera eta gozameneko zonatarako, gutxitu egin beharko da ibilgailu pribatuen igarotzea, espazio publikoaren irensle ikaragarriak baitira.

Beraz, disuasio neurriak hartu beharko dira, bai ekonomikoak eta bai lur gaineko aparkalekutarako erabiltzen den espazioaren mugatzekoak.

Gero eta indar handiagoz aitortzen da trafikoaren lastertasuna giltzarrizko parametroa dela hirien bizitzeko egokitasunerako. Pentsatzen da abiadura 50 km/h-tik behera mugatuz murriztu egiten dela ibilgailuek oinezkoen gain duten nagusitasuna, eta baita ibilgailuen arriskua eta ingurumen inpaktua ere.

Alde horretatik, lehenengo, oraingo bideen bilbea “kale” bihurtzea proposatzen da auzo bakoitzarentzat, gorago deskribatu diren bideei buruzko jarduerak eginez, eta auzo bakoitzarentzat “zentro lasaiak” edo “30eko lastertasuneko zonak” finkatuz. Honelakoak lortzeko bideen diseinua eta abiaduraren kontrola dira elementu nagusiak; lastertasuna gehienez ere orduko 30 km-ra egongo da mugatuta. Bi elementu hauek “koexistentziako kale” deituen bidez lortuko dira; kale horietan kendu egiten da galtzadaren eta espaloiaren arteko maila aldea, eta horrek abiadura txikitan ibiltzera behartzen ditu ibilgailuak.

“Zentro lasai” horiek gauzatzeko, xehetasunezko azterketak egin beharko dira auzo bakoitzerako.

Bigarren, oinezkoen gaur egungo eremua zabaldu egin nahi da “Alfa” eragiketa estrategikoaren bitartez; eragiketa horrek Amañako osasun zentroraino iristen utziko duen oinezko ibilbidea egiteko aukera emango du; lur gainera aterako den ibaiaren bi ertzetan garatzen da, Fermin Calbeton Kalea oinezkoentzako kale bihurtuz, Txaltxa-Zelairekin batera.

Hirugarren, oinezkoen eremu zentralaren periferiako auzoak eremu horrekin konektatu nahi dira, periferia erdialdera efikazia osoz hurbilduko duten estrategikoki kokatutako eskailera mekanikoen proposamena eginez.

Laugarren, trenbidearen desbideraketari eta “Unibertsitate” geltokitik “Amaña” geltokira bitarteko zatia lurperatzeari esker sortuko diren plataformak oinezkoentzako ibilbide bezala erabili nahi dira, udalerria luzetara zeharkatu eta oinezkoen area zentralarekin elkartzeko.

Azkenik, Arragueta eta Blas Etxebarriako zati isolatuak oinezkoentzakotzea proposatzen da, azkeneko hori Merkatuaren eta Coliseo Antzokiaren zonarekin lotuz.

Oinezkoentzako sare proposamen honekin auzo guztiak konektatuko dituzten ibilbide nagusi batzuk bermatu nahi dira, hain zuzen ere bide horietatik egingo diren ibiliak segurtasun eta erosotasuneko baldintza onargarrietan egin daitezen. Horretarako ezinbestekoa izango da, noski, proposamenean adierazitako ibilbideetan birmoldaketako obrak egin behar direnean, oinezkoei lehentasunezko tratamendua ematea, ibilgailuen gainetik.

Txirrindularientzako ibilbide sareari dagokionez, ez da “bizikleta bide” bezala desberdindutako ibilbiderik ezarri, baizik eta haiek ere oinezkoentzako sarean ibiltzea proposatzen da, eta oinezkoentzat proposatutako luzetarako ardatz nagusian garatuko da batez ere, horrekin motorrik gabeko garraiobide guztientzat sare bakarra sortuz.

Hiri inguruan 3 bat metroko zabalera eta 12 bat kilometroko luzera izango lituzkeen bide berde bat sortzeko proposamena eransten da, kirol ibilbide ludiko eta ekologikoa eratuz. Ibilbide hau oinezkoek edota zikloturistek erabili ahal izango lukete.

### 7.4.4. Garraio Publikoa

Garraio publikoari dagokionez, bi proposamen berritzaile egin dira funtsean, hiri autobusaren gaur egungo trazatua finkatua dagoenez:

- Lehenengo, gaur egungo trenbidea desbideratu eta lurperatzeko proposamena egiten da, bidea bikoiztu ahal izateko, era horretan ustiapen baldintzak nabarmenki hobetzen baitira eta trenbideak hiri barrutik egiten duen ibilian eratzen duen hesi fisikoak ezabatzen baita. Gainera “Alfa” zonan autobusen geltokiarekin loturik tren geltoki bat egitea proposatzen da, era horretan hiriaren erdialdea desplazatuz, eta geltoki bat gehituz Matsarian –gaur egungo geltokia ordeztuko lukeena– eta beste geltoki bat Azitainen, hiriaren ekialdeari, Azitaingo poligonoari eta La Salleko ikastetxeari zerbitzu emateko balioko lukeena. Proiektu honetako proposamenik garrantzitsuenetako bat izango da, noski, hiriaren eta biziaren kalitateari dagokionez, trenbidea kendu egiten baita eraikuntzak hartzen duen zona bateko ia 4 km luzeko ibilbide batean.

- Bigarrenik, oinezkoentzat ibilbide estrategikoen sare bat sortzea proposatzen da, eskailera mekanikoen bidez goi auzoetarako bidea erraztuko duena. Horren haritik, Sarbide Mekanikoen Plana gauzatzean egiten diren instalazioak eransten dira, baita Plan hori osatu nahi duten proposamen berriak ere. Helburua da, bada, ibilgailu pribatuen erabilera murriztu eta oinezkoen auzoetatik hirigunerako joan-etorriak bultzatzea.

## 7.5.- Espazio Libreen Sistema

Hiri lurreko Espazio Libreen zuzkidurari dagokionez, esan daiteke gaur egungo egoera kritikoa dela Eibarren. Beraz, hirian berdeguneen egitura dibertsifikatu eta orekatu bat proiektatzea da proiektu honek lehenesten duen irizpideetako bat, jaso dugun hiriaren defizitak estali eta aurrez ikusitako garapen berriek eskatzen dituzten zuzkidura berriak gehituko dituena.

Hiriak, beraz, bizkor ibili beharko du berehalako horizontean egin beharreko ekintzetan, Europa berriaren egituran bizirik iraun ahal izango dugula bermatuko duen hiri kalitatea berreskuratzeko. Alde horretatik, esku-hartzearen funtsezko helburua izango da Espazio Libreen Sisteman 5 m2/biztanleko estandarra lortzea hiriaren barruan, eta auzoei espazio libre lokalez zuzkitzea, dela auzoan bertan kokatuz, dela, hori ezinezkoa denean, inguruan eta oso hurbil egokituz, 5 m2/biztanleko estandar gehigarriarekin hornituz.

Horren arabera, Aurrerakinean inbertsio handia egitea proposatzen da lehendik dauden espazio libreak berreskuratzeko eta, batez ere, parke eta lorategi berriak sortzeko.

Sistema Orokorraren kategoriaren barruan, proposamen honek “hiri parke” berrien kontzeptupean **13,78 Ha** antolatu eta diseinatzen ditu, lurralde guztian homogeneoki banatuta; horrek **5,51 m2/bizt.**-ko zuzkidura estandarra ematen du –25.000 biztanleko hiria izango den biztanleri hipotesi baterako–, edota **4,59 m2/bizt**.-ko zuzkidura –30.000 biztanleko hiria izango den biztanleri hipotesi baterako–, eta proposatutako minimoaren gainetik geratzen da, beraz. Antolamenduaren proposamena eta horren dimentsioak honako hauek dira:

Parkeak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Parque del Sakun | SG-EL-UR | 16.886 | |
| Parque de Barrena | SG-EL-UR | 16.296 | |
| Parque de Asua Erreka | SG-EL-UR | 14.314 | |
| Parque de Azitain | SG-EL-UR | 7.545 | |
| Parque de Itzio | SG-EL-UR | 13.340 | |
| Parque de Txaltxa Zelai | SG-EL-UR | 12.790 | |
| Parque de Armagin (Cementerio) | SG-EL-UR | 6.855 | 88.026 |
| Parque de Amaña | SG-EL-PP | 24.199 | |
| Parque de Bolingua | SG-EL-PP | 2.380 | |
| Parque de EgaZelai | SG-EL-PP | 5.983 | 32.562 |

Paseoak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Paseo lineal Tramo 1: Barrenengua a Untzaga | SG-EL-ET | 13730 | |
| Paseo lineal Tramo 2: Untzaga a Estación | SG-EL-ET | 915 | |
| Paseo lineal Tramo 3: Estación a Asua Erreka | SG-EL-ET | 5655 | |
| Paseo lineal Tramo 4: Asua Erreka a Azitain | SG-EL-ET | 10780 | 31.080 |
| Paseo de San Andrés | SG-EL-UR | 10068 | 10068 |

Plazak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Plaza de San Andrés (Alfa) | SG-EL-UR | 3055 | |
| Plaza de Untzaga | SG-EL-UR | 1575 | |
| Plaza de Torrekua | SL-EL-CL | 1150 | |
| Plaza de Urkizu | SG-EL-UR | 3485 | |
| Plaza Barrena | SG-EL-UR | 490 | 8605 |

Proposamen horri Atsedenlekuen sistema -Lurzoru urbanizaezinaren erabilera desberdindua proposatzen duen sistema- gehitzen bazaio, honela osatzen dena:

| | | |
|---|---|---|
| Area recreativa de Arrate | SG-EL-PE | 275.313 |
| Area recreativa de Santa Cruz | SG-EL-PE | 124.642 |
| Area recreativa de Kalamua | SG-EL-AR | 2.809.280 |

hortik ateratzen da espazio libreen proposamena, guztira, **3.379.576 m2**-koa dela, hau da, biztanle bakoitzeko **135,18 m2**-koa 25.0000 biztanleko hipotesian eta biztanle bakoitzeko **112,65 m2**-koa 30.0000 biztanleko hipotesian.

Kopuruaren aldetik, proposamen honek esan nahi du udal lurraldearen **%13,66** hartuko dela Sistema Orokorreko espazio libreekin, eta hori Hiri lurzoru eta Lurzoru urbanizagarri bezala sailkatutako lurraren **%150,93**en parekoa da -biak batera hartuta-.

Sistema Orokorreko espazio libreen lurralde banaketak erakusten digu badaudela zona batzuk beren eremuan zuzenean helburu horretarako pentsatutako lurrik ez dutenak. Hala ere, planteatutako barne erreformako eragiketen bitartez, batez ere etxebizitzaren atalean planteatutakoen bitartez, defizit horiek konponduko direla uste da, zona horietako bakoitzean espazio libre lokalen jarduketak sartuz.

Azken jarduera horiek auzoz auzo diseinatu dira, lehendik dagoen egoeraren analisitik eta eraikitako hiriaren ezaugarriek ematen dituzten aukeretatik abiatuta. Hainbat espazio libre, lorategi, jolasleku eta oinezkoentzako bide proiektatu dira, finkatutako nukleoetan kirurgia eta barne erreformako lanak eginez eta bide sarearen edo trenbidearen birmoldaketaren gisako jarduerez edota lurzoru urbanizagarrian aurrez ikusten diren obligaziozko lagapenez erabat baliatuz.

Gainera, autobidearen eta saihesbidearen jabari publikoko zonaren eta eraikuntza periferikoaren tartean geratzen diren espazioak helburu horretarako egokitzea proposatu da, horrela hiri eremuaren inguru guztian “ingurune berde” bat eratuko duen espazio libreen sistema bat egitea lortzeko, eta bi azpiegitura horiek sortzen dituzten eragozpenak moteltzeko funtzioak betetzeko, bide batez.

Hiri inguruan parke linealaren eginkizunak bete ditzakeen ibilbide berde bat sortzea ere proposatzen da. Hiriaren inguruan hirigunea inguratzen duten mendi hegalen erdialdean kokaturik egoteak, ibilbide hau kirola egiteko eta hiritarren aisialdietarako esparru berria bilakatzea eragin dezake.

Orain arte deskribatutako irizpide, helburu eta konponbideei ingurumena babestu eta, bereziki, hiri parkeetako eta atseden lekuetako landareak babesteko irizpide orokorra gehitu behar zaie, leku horietan dauden zuhaitzak ere errespetatuz, interesa duten neurrian.

## 7.6.- Komunitate Ekipamendua

Administrazio publikoak azken urteotan egindako jardueren bitartez udalerri honetan planteatzen diren premientzat, oro har, egokia den ekipamendu maila estandar bat lortu ahal izan da.

Alde horretatik aipatzekoak dira egindako lanak: Amañako Osasun zentroa (Torrekua), Unbe kiroldegi konplexua, eskualde mailakoa eta lehendik Ipuruan zeuden instalazioak osatzen dutena, igerileku estaligabea, Portalea kultur zentroa, Otaolako Ertzaintzaren komisaria, Txaltxa-Zelaiko oraingo Epaitegiak, Markeskua jauregia, Udako Euskal Unibertsitatearen egoitza, Azitaingo Enpresariaren Egoitza Soziala, Legarreko Musika Entseguetarako Zentroa eta Transferentziako geltokia, aipagarrienen artean.

Kontuan izan behar da, gainera, Coliseo zinemaren berritzeari ere ekin zaiola Antzokien Sare Nazionaleko kide bilaka dadin.

Erreferentzia marko horren barruan, komunitate ekipamenduaren sistema honako jarduera hauek eginez osatzea proposatzen da proiektu honetan:

- Ipuruako eremua kirol zona nagusi bezala finkatzea, Santaines komentuaren atzean geratzen diren lurrak aire zabaleko kirol ekipamenduetarako erabiliz, gazteenentzako zona bezala bereziki egokituz.
- Belar artifizialeko futbol zelai bat egitea Ipuruako futbol zelaiari itsatsia.
- Portaleako Kultur Etxean Eibar Hiriaren Museoa eratzeko proposamena.
- Auzo mailako hiritar gune bat sortzea Azitainen.
- Auzo gizarte etxe bat sortzea Txontan.
- Orbea pilotalekuaren birmoldaketa auzoko Kirolgune bilaka dadin.

- Udal Merkatuaren birmoldaketa.

- Oraingo hilerria “Altamira” izeneko zonara aldatzea, batetik gaur egungo premietara egokitutako hilobi ekipamendua eskaini ahal izateko, eta bestetik, hori aprobetxatu eta gaur egun hilerriak hartzen duen area birmoldatzeko.

Komunitate ekipamenduko sistema honi, gainera, Planeamenduko Erregelamenduak lurzoru urbanizagarrietarako eskatzen dituen lagapenetatik eta barne erreformako esparruetatik ateratzen dena gehitu beharko zaio.

## 7.7.- Ibai Azpiegiturak

### 7.7.1. Ego ibaia

Proiektu honek jaso nahi dituen erronketako bat ibaia berreskuratzen hastea da, jakina denez, eraikuntzen azpitik igarotzen baita gaur egun ia erabat, hau da, bai etxebizitzen, industrien, ekipamenduko eraikinen azpitik eta bai erabilera publikoko espazio libreen azpitik.

Uholdeen arriskua gutxitzeko egin zen Ego ibaiaren urak bideratzeko aurreproiektua bere horretan sartuko dela onartzen da proiektu honetan, behin betiko proiektua osatzen den bitarterako ibaia azaleratzeari dagozkion ñabardura batzuk gehituz besterik gabe.

Erronka zaila da, eta are zailagoa, kontuan hartzen bada ibaiaren gainean altxatzen diren eraikuntzak finkatu egin nahi direla, lur gaineko esku-hartzearen eremuak erabateko erreforma egingo zaien areetara bakarrik mugatuz.

Horren arabera, eremu hauetan proposatzen da Ego ibaia azaleratzea:

- ALFA: leku honetan, area horrek izango duen erabateko eraldakuntzari esker, ibaia lur gainera atera eta berreskuratzea planteatzen da, area honetako ibilbidearen zati batean, bera finkatuz, gainera, antolamenduaren ardatz nagusi bezala.

Ibai ibilgua berreskuratzeko eta ibaia hiriaren lur gaineko bilbean integratzeko proposatzen diren jardueren entitatea aski urria bada ere, Ego Gain Kaletik Barakaldo Kalera doan eremuan ere berreskuratzeko asmoz egin nahiko liratekeen beste hainbat jarduera ez dira batere bideragarriak, zona horiek finkatuta daudenez ez baita ibaia desestaltzeko aukerarik emango luketen hiri berrantolaketak egiteko biderik ikusten.

Zona honetan, funtzionamendu hidrauliko egokia eta zuzena izateko behar den sekzioa lortzeko egin behar diren obrak egitea izango da jarduera bakarra, ibaiak lur azalean izango duen presentzia integratzen eta berreskuratzen saiatuz, orain ibaia estaltzen duten eraikuntzak eta jarduerak desagertuz doazen neurrian.

### 7.7.2. Errekak

Orain arte Ibur-Erreka eta Matsariako errekako ura bideratzeko eta baldintza hidraulikoak hobetzeko egindako proiektuak edota aurreproiektuak hemen sartutakotzat hartuko dira.

Bi kasuotan, ibilguen trazatua proposatutako antolamenduan sartzea da helburua, eremu horietarako beren Plan Partzialetan definituta dagoen diseinuan txertatuz.

## 7.8.- Hiri Barruko Zerbitzuen Azpiegiturak

Oro har, obrak egiteko prozesuetan hornitzaile konpainia desberdinen artean koordinazioa lortzea da gai honen inguruan ezarritako helburu nagusia, bide publikoan egin beharreko jardueretan leku berean behin eta berriz eta bata bestearen atzetik eragiketak bikoizten ez ibiltzeko.

### 7.8.1. Uraren Zikloa

Ur hornidurako sistemari dagokionez, ez da beste jarduera orokor berririk planteatzen. Bizitegitarako eta erabilera tertziario eta industrialetarako lurzoru berriak garatzetik sortzen diren jarduketak baizik ez dira planteatzen.

Barne erreformako eremuetan azpiegitura guztiak berritzea planteatzen da, oro har.

Saneamendu sareari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Eibarko Saneamendu Proiektua sartutakotzat hartuko da, eta orobat Ur Partzuergoak prestatutako saneamendu integraleko proiektua ere.

### 7.8.2. Elektrizitate Indarraren Hornidura

Azpiegitura horri dagokionez, Isasiko ETDa finkatzea erabaki da.

Gainontzekoan, bizitegirarako eta erabilera tertziario edo industrialetarako lurzoru berriak garatzetik sortzen diren jarduerak baizik ez dira planteatzen.

### 7.8.3. Gas Hornidura

Gas hornidurako sarea osatuz joan da azken urte hauetan, eta sare nagusira lotura batzuk egitea besterik ez da geratzen.

Ez da planteatzen bizitegitarako eta erabilera tertziario eta industrialetarako lurzoru berriak garatzetik sortzen diren jarduerak besterik.

### 7.8.4. Telekomunikazioak

Telekomunikazioen arloa izan da azken urteotan garapen handiena izan duen eta merkatuen liberalizazioak eragin gehien izan duen arloetako bat.

Informazioaren gizartean murgilduta gaudenez, telezerbitzu sistemetan sartzeko aukera eman behar da. Orain dela gutxi arte Telefónica konpainiak izan duen monopolioa desagertzeak jarduera arlo berri bat zabaldu du, eta azpiegiturak gestionatzeko sistema posibleen artetik bat edo beste aukeratu beharko da.

Atal honen barruan bi alderdi izan dira kontuan, orain arte elkarrengandik bereizita tratatu izan direnak eta etorkizunean elkartzeko joera erakusten dutenak.

#### 7.8.4.1. Zuntz Optikoa

Biztanleria guztiari, baita landa lurrean bizi denari ere, informazioa eta komunikabideak transmititzeko sistema handietara iristeko aukera ematea izan beharko luke helburu nagusia.

### 7.8.4.2. Telefonia

Atal honetan telefonia finkoko sistema tradizionala eta telefonia higigarri edo hari gabekoaren sistema hartu dira kontuan.

Lehenengoari dagokionez, ez da jarduera berririk planteatzen, lurzoru berrien garapen bezala planteatzen diren jarduera puntualetatik sortzen direnak izan ezik.

Bigarrenari dagokionez, lurzoru urbanizaezinean datuak transmititzeko eta errepikatzeko sistemen kokaerari buruzko azterketan ateratako ondorioak sartu dira proiektu honetan:

- Lurzoru urbanizaezinean jarri behar diren antena eta euskarriei dagokienez, eginda dauden eraikinetaraino tarte egokia utziz instalatu beharko dira, zerbitzu publikoa emango dela ziurtatuz beti ere.

- Sistema eta ekipo horiek babes bereziko zonetan ez instalatzeko ahaleginak egingo dira, eta ezta babeseko baso-berritze bezala aurrez ikusitako baso zonetan ere.

- Ahal dela ez dira instalatuko etxe gailurretan, uren banalerroetan, eta ezta ikusmenerako eragin nabarmena sortuko duten lekuetan ere.

# 8.- AUZOKAKO ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA PROPOSAMENAK

Proiektu hau sistematizatzeko asmoz, Auzoak eta Areak hartu dira hirigintzako unitate gisa. Area hauek eransketa unitate handiagoetan inskribatzen dira: “Auzoetan”. Irizpide hau erabiliz, hiria 14 Auzotan banatzen da; Auzo horiek perimetro eta tradizio definituko lurraldeak dituzte, eta ondo errotutako toponimoak.

Proiektu honen bidez ordenatutako arearen multzoak (hiri lurrak eta lur urbanizagarriak dira) udal eremuko guztizkoaren % 9,07 hartzen du.

Ondoren, aztertutako auzo bakoitzaren ezaugarriak deskribatuko dira, diagnostikoa landu eta planteatutako proposamenak azalduz.

## 8.1.- Erdialdea (1)

Erdialdeak ditu udalerri osoko biztanle dentsitate, errotze maila eta jarduera intentsitate handienak. 12,21 Ha-ko azalera du, hots, espazio ordenatu totalaren %4,31, eta lau areaz osatuta dago. Proiektu honetan eginiko lanari dagokionez bakarrik, lau eremuz osatutzat hartzen da.

Ego ibaiak eratzen duen ibarraren zatirik zabalenean dago ezarria eta hirigintza egitura arrazionalena duen auzoa da, zabalduraren tipologian oinarrituta.

### 8.1.1. Untzaga (1.1)

Area hau hiriko zonarik erdikoena da, Udaletxearen plaza, Txaltxa-Zelai eremua eta Calbeton, Plaza Barria eta Toribio Etxebarria Kaleak hartzen baititu.

Untzaga plazari dagokionez, lehendik dauden bi plazak, zahar etxearena eta Udaletxearena, eremu integratu bakarrean batzea proposatzen da, eta era horretan ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio mistoa bideratu egungo Untzaga zeharbidean eta Isasi Kaletik Bidebarrieta Kaleraino.

Era berean, Fermin Calbeton Kaleko eraikin berriei buruz indarrean dauden erabakiak jasotzen dira, gaur egungo beharretara egokituko den kale zati bat sortu ahal izateko.

Proposamen berritzaile gisa, honakoa proposatzen du Proiektu honek:

- Fermín Calbeton oinezkoentzako egitea, Toribio Etxebarria Kaleko oinezkoen egungo zona Untzaga plazarekin, Txaltxa-Zelai eremuarekin eta Fermin Calbeton eta Plaza Barria kaleekin integratuko duen “oinezkoen area” bat eratzeko asmoz

Azken batean, zona honetan egiten den proposamenak, “Alfa” zonan eta “Ego Gain” Kalerako egiten den proposamenarekin batera, 12,41 Ha-ko (area ordenatuaren %3,83ko) “erdialdeko area” zabala ematen dio udalari, area deskongestionatua eta gaur egun udalak ez duen hiri kalitatea eskaintzen duena.

### 8.1.2. Isasi (1. 2)

Zona hau hiri arearen erdialdean dago, hiriaren erdigune tradizionala den Untzaga plazaren mendebaldean baitago.

Ego Gain Kalearen inguruan honako ekintzak proposatzen dira:

- Makazkua Kalean aurreikusitako antolamendua sendotzea.

- Ego Gain Kalea oinezkoentzako egitea, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio mistoa bideratuz.

### 8.1.3. Zuloaga (1.3)

Txirio Kale, Bista Eder, Plaza Barria, Zuloaga, Julian Etxebarria eta Bidebarrieta kaleen artean kokatuta dauden eraikinak hartzen dituen zona hau erabat finkatuta dago eta, ordenantza berezi batek arautuko dituen bloke patioen okupazio eta altuera egokitze txiki batzuk salbu, ez da antolamendu ekintza konkreturik proposatzen.

### 8.1.4. Ardantza (1.4)

Zona hau, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Sailak egindako hirigintza lanen ondoren, zentralitate egoera esanguratsuaren jabe egin da, hiri erdigune tradizionalarekin komunikazio ezin hobea lortu baitu. Lurralde Antolamendu Sailak garatutako jarduera sendotzea proposatu da. Horretarako, xede horrekin onartutako Barne Erreformako Plan Bereziko erabakiak jasoko dira, Sail horrek aurretik burututako jardunen ondoriozko mugapen-doikuntzak egin ostean.

## 8.2.- Errebala (2)

Errebal zaharraren gainean (Errebal Kalea) ezarritako auzoa da, hauxe da udaleko hiri bilbe egituratuena duena. Eraikuntza tipologiak askotarikoak dira, erdi aroko sail batetik hasi eta eraikin berri irekietaraino, tartean zabaldura bloke bat ere badela.

12,04 Ha-ko azalera du, Proiektu honek garatutako hiri eremuaren %4,25, eta bost Areaz dago osatuta.

Auzo honetako antolamenduaren helburu eta irizpide orokorra eraikinak nabarmen zaharkiturik dauden lekuetan hiri bilbea berregituratzea da. Xede hori lortzeko, gaur egun ez dauden espazio libreak eskainiko dira eta hiri bilbea Matsariarekin integratuko da, tren geltokiak eratzen duen hesia ezabatuta.

Honako ekintzak proposatzen dira area honetan:

### 8.2.1. Merkatua (2.1)

Errebal, Julian Etxeberria, Bidebarrieta, San Agustín, Ibarkurutze, Pagaegi, Ibargain, Merkatu, Muzategi eta Aldatze kaleek eratzen duten zona da.

Eremu honetan, egungo eraikuntza gehienak finkatuta mantentzen badira ere, ekintza hauek planteatzen dira:

- Errebal eta Muzategi kaleen arteko eremuaren barne erreforma egitea, Errebal Kalean sortzen den estugunea ezabatzeko, gaur egun hondatuta eta zaharkituta dauden eraikinak ordeztuz. Barruti hau antolatzeko bideratu zen Plan Bereziaren erabakiak eransten dira.

- Blas Etxebarria eta Ibargain kaleen artean dauden industriako eraikinen ordez bizitegi eraikinak jartzea, Merkatu, Blas Etxebarria, Pagaegi, eta Ibargain kaleek eratzen duten blokea osatzeko. Eraikitze lan horien bidez, kale berri bat irekiko da Blas Etxeberria eta Pagaegi kaleen artean, sarbide publikoko plaza bat sortuz, eta hobetu egingo da Jardineta (12 eta 14 zenbakien artean) eta Ibargain Kaleak lotzen dituen kale zatia ere.

- Merkatuko eraikinaren ezaugarriak berriro diseinatzea. Halaber, lurpeko aparkaleku bat eratuko da egungo kokalekuan eta inguruko espazioan, era horretan erdigune berri bat sortzeko.

### 8.2.2. Bidebarrieta (2.2)

Arane, Urtzaile, Arikitzaneko Zubia, Errebal eta San Agustin kaleen artean eratzen den zona da.

Zona honetan, dauden eraikin guztiak finkatzea aurreikusten da, ibai ibilguaren gainean kokaturikoak mantenduz, egungo erabilera izaten jarraitzen duten bitartean.

### 8.2.3. Arragueta (2.3)

Area hau, Bidebarrieta Kaleak, kale horren 54 - 66. zenbaki bitartean dauden eraikinen atzealdeak, eta, Bittor Sarasketa, Arragueta eta Ibarkurutze kaleek mugatzen dute

Hauek dira area honetarako proposamenak:

- Arragueta Kalea berrordenatzea, kalearen alde bietan lerrokadura berriak finkatuz.

- Arragueta Kalea oinezkoentzako egitea, geltokiaren inguruan sortutako oinezkoentzako espazioarekin eta Estaziño Kalearekin loturik, era horretan “zona lasai” edo “oinezkoen area” bat sortuz, inguru honi erdialderako planteatutako hiri kalitate bera eskainiko duen espazio bat eskaintzeko.

### 8.2.4. Estaziño (2.4)

Bittor Sarasketa, Ibarkurutze, Pagaegi, Blas Etxeberria, Merkatu, Muzategi eta Ibargain kaleek mugatzen duten area da, gaur egun geltokiak hartzen duen azalera barne.

Hauek dira area honentzako proposamenak:

- ETko egungo Geltokiaren eremua berrordenatu eta berregokitzea; hori trenbidea desbideratu eta lurperatuz lortuko da, ondo egituratu eta ordenatutako hiri bilbea eratzeko. Berrordenazio honen bidez irteera eskainiko zaio Matsariarako proposatu den bide korapilo berritik datorren zirkulazioari.

- Estaziño, Pagaegi eta Ibargain kaleen arteko blokean barne erreforma egitea, Estaziño Kalearekiko paraleloa izango den bide berri bat irekitzeko, Estaziño Kalea oinezkoentzako egiteko aukera emanez.

- Bittor Sarasketako blokean eraikuntzak bakandu eta hustea. Bertakoentzako aparkalekua eta espazio libreko azalera sortuko dira eta zonako hiri kalitateko baldintzak hobetuko.

- Egungo geltokiko eraikina mantentzea, bertan lurpeko geltoki berriaren azaleko irteera eratzeko.

### 8.2.5. Arane (2.5)

Arane eta Urtzaile kaleek eta Bidebarrieta kaleko 54 - 66. zenbakien artean dauden eraikinen atzealdeak mugatzen dute area hau.

Honako ekintza hauek proposatzen dira, area honetako helburu partikular gisa:

- "Aurrera" enpresa zaharreko instalazioen eremua berrordenatzea, bulego zaharrek osatzen duten izkinako eraikina sendotuz eta eraikin bloke berri bat eratuz, administrazio eta zerbitzuko erabileretarako. Bloke berri hau egitean bide berri bat ireki ahal izango da. Bide berri honetan oinarriturik, bere baitan etxebizitzak, aparkalekuak eta hirugarren sektoreko erabilpenak hartuko dituen eraikin bat kokatuko da, Arane Kalearen eta bide berriaren arteko malda gaindituz. Eraikin honen estalkian erabilera publikoko zorra ezarriko da, Arane Kaletik sarrera duena.

- Arane Kalean (4, 6 eta 15 zenbakietan) dauden jarduera ekonomikoetarako eraikinak bermatzea, bizileku erabilpenarekin bateragarriak diren erabilbideak emanez.

- Bide berri bat zabaltzea, Urtzaile eta Arane kaleen lotunetik hasi eta Bidebarrieta Kaleko 56-66. zenbakietako etxebizitzen atzealdetik igaroz Gisastu-Biden Txonta Kalearen hasieraraino iritsiko dena.

### 8.3.- Ipurua (3)

Hiriaren Erdialde-Mendebaldean dagoen 11,27 Ha-ko auzo bat da (hiri arearen %3,92 hartzen duena), eraikuntza garapena Iparralderanzko maldan duena. Oso tipologia desberdineko bizitegi garapenak ditu: batzuk gerra ostekoak dira (Argatxako lorategiak) eta beste batzuk 70-80. hamarkadetakoak, dorre erako soluzioak dituztenak (Romualdo Galdós, Ipuruako dorreak) eta, oro har, dentsitate handikoak.

Era berean, interes orokorreko hainbat ekipamendu hartzen ditu: igerileku irekiak, Kiroldegia, Ipuruako futbol zelaia eta eranskina, Pio X.a parrokia, Zahar Etxea, Federico Mayo eskolak, zezen plaza eta Ipuruako merkatu zaharra, eta gertu dira Astelena pilotalekua eta Armagintza Eskolaren zabaldura.

Zona hau lau areatan banatzen da:

Auzoan esku-hartzearen helburu orokorrak lehendik dauden bizitegi eraikinak sendotzea, kirol hornidurak handitzea eta espazio libreen sistema atontzea dira.

### 8.3.1. Romualdo Galdos (3.1)

Romualdo Galdos, J. A. Gisasola eta Armagintza Eskolaren zabalduraren atzealdeak mugatzen duten zona da.

Zona honetarako ez da proposamen berririk eta lehendik dauden bizitegi eraikinak finkatzen dira.

### 8.3.2. Argatxako lorategiak (3.2)

Area hau, Ipuruako merkatu zaharreko eraikinetik hasi eta Romualdo Galdós eta Santaines kaleetarainoko zona da.

Zona honetan ez da proposamen berririk eta lehendik dauden bizitegi eraikinak finkatzen dira.

### 8.3.3. Ipurua (3.3)

Area hau, Ipuruako merkatu zaharreko eraikinetik hasi eta Romualdo Galdós, Santaines eta Ipurua kaleetarainoko eta Elgetako errepiderainoko zona da.

Kirol ekipamendu handia duen zona honetan, proposamen hauek egiten dira:

- Santaines komentuko eremua eraberritzea, erlijio eraikin hori ekipamendu gisa sendotuz eta area honetako gainerako azalera espazio librerako utziz, azken honetan aire zabaleko kirolak praktikatu ahal izan daitezen, gainerako instalazioen osagarri.

- Ipuruako futbol zelaiaren eranskinean lurpeko aparkaleku bat sortzea, zona honetan bertakoentzako aparkaleku bat eta ondoko ekipamenduei loturiko txandakako aparkaleku bat eskaintzeko. Ekintza honen bidez kirol ekipamenduak berregokituko dira, belar artifizialeko zelai bat ezarriz.

Ekintza hauei esker, zona hau garrantzi handiko kirol konplexua bilakatuko da eta “Unbe”-ko instalazioak osatuko ditu.

### 8.3.4. Egigurentarrena (3.4)

Romualdo Galdos, J. A. Gisasola eta Zezenbide kaleek eta Isasi Kaleko 5 - 17. zenbaki bitarteko eraikinen atzealdeak mugatutako zona da.

Ekintza hauek proposatzen dira zona honetan:

- Gaur egun Guardia Zibilak hartzen duen eremua berregokitu eta ekipamendu-erabilerarako eraldatzea, auzoaren erdiko “plaza” eratuko luketen espazio libreak eratuz.
- Sostoa Kaleko 12. zenbakiko eraikina bermatzea, Sostoa eta Indalezio Ojanguren kaleen arteko malda plaza txiki baten bidez konponduko duen bizileku eraikin bat baimenduz.

### 8.3.5. J.A. Mogel (3.5)

Barruti honek Paziano Arosa eta Ipurua kaleek eta Frai Martin Mallea Kaleko zenbaki bakoitien atzealdeak mugatzen duten eremua hartzen du bere baitan.

Zona honetan dago hiriaren berreraikuntzan bizitegien arloan egindako ekintzarik interesgarrienetako bat; horregatik, toki izaerako babesa planteatzen da, lehendik dauden eraikinak finkatuz.

### 8.3.6. Paziano Arosa (3.6)

Paziano Arosa Kaleak, Frai Martín Mallea Kalearen atzealdeak, Sostoa eta Ubitxa kaleek eta autobideko ertzak mugatzen dute area hau.

Hiriaren erdiko zeharkako ardatzari jarraitzen dio eta Urki bezalaxe 70. hamarkadako hedapenezko garapenen kokaleku izan zen, eraikinak maldan gora gehituz.

Lehendik dauden eraikuntzak finkatzeaz gainera, hau proposatzen da zona honetan:

- Paziano Arosa eta Sostoa kaleen arteko etxe blokearen barrualdea libratzea.

- Ubitxa Kaleko 8, 10, 12 eta 14. zenbakietako eraikinen ordez, bizitegi izaerako eraikin berriak jartzea, eraikin zaharkituak direlako. Jarduera honen bidez Ubitxa Kaleko 6. zenbakian dagoen eraikinerako irispidea hobetu beharko litzateke. Eragiketa honen bidez etxe bloke horren barrenean dagoen espazio publikoa osatuko da.

- Ubitxa eta Sostoa Tarren kaleetako bidegurutzea birmoldatzea, oinezkoen erabilpenerako lekua berreskuratzeko.

- Bizitegi erabilpenerako lur zati urbanizagarri bat mugarriztatzen da Egazelai Kalearen inguruan. Barruti honen garapenarekin, gune libreetarako lur eremu garrantzitsua uzteaz gain, bide bat irekiko da, Frai Martin Mallea Kalearen 1 eta 3 zenbakietako eraikinen atzealdetik, Ipurua eta Paziano Arosa Kaleak lotzea ahalbidetuko duena.

## 8.4.- Legarre (4)

Auzo hau hiri arearen erdialdean dago. San Andres Pasealekutik hasita, Arrajola mendiaren Hegoaldeko mendi hegalean gora igotzen da. Maldan egindako hirigintza izanda ere, egitura ordenatua du, baina iristeko arazo larriak ditu, bai oinezkoentzat bai ibilgailuentzat.

Arrateko errepideak bitan banatzen du auzoa. Errepide horrek, puntu honetan, zirkulazio baldintza zailak ditu, sekzioaren estutasuna dela-eta. Arazo hau larriago bihurtzen da bi aldeetan garatzen diren etxebizitzek aparkaleku gisa erabiltzen dutelako bide hori. Legarre, gainera, saihesbiderako sarreretako bat da.

5,99 Ha-ko azalera du, ordenatutako hiri arearen %2,12.

Lau area banatzen dira, erabileraren arabera bereizita

Auzo honetan, bertako eraikinak bermatzeaz gainera, zera proposatzen da:

- San Andres Pasealeku ondoko eraikinak berrantolatzea, erabiltzen ez diren lantegiez edo kalitate txarreko eta egoera eskaseko etxebizitzez osatutako barrutia delako.

- Trenbidea desbideratu eta lurperatzen denez, azpiegitura honek hartzen duen plataforma oinezkoen pasealeku bezala berreskuratuko da, eta horri esker auzoa hobeto integratu eta egituratuko da erdialdeko hiri eremuarekin, gaur egun nahiko bananduta baitago.

- Legarreko goiko aldean, Abontza Bide Kaleraino, hiri egitura osatzea, bizilekutarako erabiliko diren hainbat etxebizitza bloke eraikiz.

## 8.5.- Urki (5)

Ipurua eta Errebal auzoen artean dago, Erdialdearen ondoan, udalaren erdiko zeharkako ardatzari jarraituz. Auzo horiek bezala, “olio orban” moduan garatu da 1959ko Plan Orokorretik.

Dentsitate altuko eraikin irekiz osatuta dago, Iparralderanzko mendi hegalean ezarrita, sestra mailarekiko paralelo doazen kaleen gainean. Horregatik, goiko kalearen sestraz behetik dauden eta beheko kalera ematen duten solairu ugari izatea da eraikuntza hauen sekzio tipologiaren ezaugarria. Sarbideak beheko kaletik nahiz goiko kaletik dituzten bloke motatakoak dira eraikin hauek gehienak.

Sei areatan banatuta dago eta bere azalera 28,35 Ha-koa da guztira, hau da, ordenatu den hiri eremuaren %10,01.

Auzoari espazio libreak eskaintzea eta tokiko bide sarea perimetrokoarekin konektatu eta bilbatzea, eta horrela oinezkoen irismena hobetzea dira auzorako hiri proposamen honen helburuak.

### 8.5.1. Portalea (5.1)

Bista Eder, Txaltxa-Zelai eta Eulogio Garate kaleek eta Txaltxa-Zelai parkearen mugek eratzen dute area hau.

Ekintza hauek proposatzen dira zona honetan:

- Bista Eder Kalea Arane Kalearekin bat egin arte zabaldu eta luzatzea, Fermin Calbeton Kalea “30eko lastertasuneko eremua” bilakatzea ahalbidetuko duen alternatiba bat ezarriz ibilgailuen zirkulazioarentzat.

- Zona honetako biztanleentzat lur azpian aparkaleku bat egitea, kultura-ekipamenduaren erabiltzaileentzat txandakakoa izango dena.

- Aipatutako bi bideen luzapenaren artean bizitegi bloke bat eratzea. Ekintza honen bidez, eskailera mekanikoak ezarriko dira auzoko zona garaia Bidebarrieta Kalearekin komunikatzeko, 20 eta 24. zenbakien artean.

### 8.5.2. Armagin (5.2)

Txaltxa-Zelai, Eulogio Garate, J. A. Iturrioz eta Errekatxu kaleek eta autobideko ertzak mugatzen dute area hau. Hiri egitura irregularra du eta iristeko zailtasunak dituzte oinezko eta ibilgailuek.

Ekintza hauek proposatzen dira zona honetan:

- Hilerria lekuz aldatzea, auzoarentzako espazio libreak sortuz eta Urki Kalearen jarraipena posible eginez.

- Urkiko parkea sortzea, Urki Kurutzekuako garapenerako aurreikusitako erabakiak erantsiz.

### 8.5.3. Urki (5.3)

Txaltxa-Zelai, Eulogio Garate eta J. A. Iturrioz kaleek eta autobideko ertzak mugatzen dute area hau.

Hiriaren erdiko zeharkako ardatzari jarraitzen dio, 70. hamarkadako hedapenezko garapenen kokaleku izanik.

### 8.5.4. Unbe (5.6)

Area honek, sortu berri den kirol ekipamenduko zona hartzen du.

Izaera orokorreko ekipamendu garrantzitsua da, Unbe errekaren ibarrean kokatua.

Egindako instalazioak sendotzeaz eta Altamiran aurreikusita dagoen hilerrirako irispidea egokitzeaz gainera, ez da bestelako ekintzarik proposatzen.

## 8.6.- Jardiñeta (6)

4,96 Ha-ko auzoa da (Proiektu honek garatutako hiri eremuaren %1,75a), bi areaz osatua.

Auzorako proposamen orokorra, funtsean egungo eraikuntzak finkatzen dituena, ekintza hauetan oinarritzen da:

- Hiri parke bat (Sakun) sortzea Institutuaren eta Arrateko errepidearen artean.
- Auzoaren erdigune alderako irteera hobetzea, Jardineta Kalea (12 eta 14 zenbakien artean) Ibargain Kalearekin lotzen duen zatiaren bitartez.
- Hiri egitura osatuko duen bizitegien esku-hartze bat gauzatzea Jardineta Kaleko 27 eta 31 zenbakien arteko atzeko aldean.

## 8.7.- Amaña (7)

Amaña Eibarko hiriaren mendebaldean dago, zatirik mendebaldekoenean Zaldibarko udalerriarekin muga eginez. Auzoaren hiri garapena 70. hamarkadan gertatu zen, hegoalderanzko mendi hegalean. Orientazioak egokiak baziren ere, garapen desordenatua sortu da, topografiak sortutako zailtasunarengatik eta baldintza zailetan ere “hiria egiteko” axolagabetasunarengatik. Axolagabetasun horrek eragin du, besteak beste, hiriaren gainerako zatiarekin konexio gabeziak dituen auzoa sortzea eta gaizki bilbatutako bide sarea eratzea, zirkulazio baldintzak zailtzen dituzten hainbat kale itsu baitaude.

Tipologia desberdinak ikus daitezke, mendebaldean eraikitako dorreak dira nabarmenenak eta, oro har, irisgarritasun eskasa da ezaugarri nagusia.

Auzoak 12,07 Ha-ko azalera hartzen du, garatu beharreko hiri arearen %4,26.

Bizitegi dentsitate handiak eta asentamendu tipologiak eskas egituratutako auzo eredua eratzen dute; gaur egun 1.511 etxebizitza daude guztira, 7.331 m2 industria erabilerarako, 5.295 m2 erabilera tertziarioetarako eta 5.954 m2 ekipamenduetarako.

Azken esku-hartze publikoek auzoaren berrurbanizazioa areago aurreratu dute, trenbidea partez estaliz espazio libreko azalera handitzen baita. Era berean, komunitate ekipamenduak garatu dira, Torrekua Osasun Etxea eraikiz; izan ere, fisikoki Otaolako auzoan badago ere, funtzionalki Amañari eta Ipuruari eskaintzen die zerbitzua.

Esku-hartzeko proposamenaren oinarrizko helburua eta irizpidea auzo barneko bide sarea ahal den neurrian egituratzea da, ibilgailuentzako sarbide berriak eratuz Saihesbide - Arrateko errepidetik zehar.

### 8.7.1. Tiburzio Anitua (I) (7.1)

Area honek Tiburzio Anitua dorreak dauden zona hartzen du.

Altueran garatutako eraikin sail bat da, 60. hamarkadan hiriak izandako garapen garaian etxebizitza eskasiari aurre egiteko eraikia.

Barruti honetan, bertako eraikinak bermatzeaz gainera, trenbidea estali eta parke lineal bat sortzeko proiektu bat (gauzatze aldian dagoena) eransten da.

### 8.7.2. Tiburzio Anitua (II) (7.2)

Tiburzio Anitua, Ziriako Agirre eta Bustindui kaleek mugatzen dute area hau.

Eraikuntza linealak dira, hegoalderanzko mendi hegalean garatuak, beheko muga gisa trenbidea dutenak.

Lehendik dauden eraikuntzak finkatzeaz gainera, hau proposatzen da zona honetan:

- Eskailera mekanikoen bidez eratutako bideak garatzea, zona altuetaranzko irisgarritasuna hobetzeko.

### 8.7.3. Artegieta (7.3)

Bustindui, Artegieta eta Karlos Elgezua kaleek mugatzen dute area hau.

Hiriaren erdiko zeharkako ardatzari jarraitzen dio eta Urki bezalaxe, 70. hamarkadako hedapenezko garapenen kokaleku izan zen, eraikinak maldan gora gehituz.

Lehendik dauden eraikuntzak finkatzeaz gainera, hau proposatzen da zona honetan:

- Artegieta Kalearen 3 eta 5. zenbakien arteko hiri hutsunetxoa betetzea.
- Jolas eta aisiarako espazio bat sortzea goialdean, proiektatutako eraikin berrien garapena aprobetxatuz.
- Asola Igartza Kaleko 1, 3 eta 5 zenbakietako eraikinak ordezkatzea, auzoaren zerbitzuan aparkalekuak sortzeko bidea emango duen antolamendu berri bat egin ahal izateko.
- Auzokoen aparkaleku gisa erabiliko den eraikin bat sortzea Asola Igartza, Artegieta eta Karlos Elgezua kaleen artean.

### 8.7.4. Amaña (7.4)

Ziriako Agirre, Karlos Elgezua, Wenceslao Orbea eta Torrekua kaleek mugatzen dute area hau.

## 8.8.- Otaola (8)

Otaola eremu industriala da gehienbat, eta mota horretako eraikinek bete dute udaleko lurralderik lauenetarikoa den zona hau. Hiriaren mendebaldean dago, eta ibaia eta trenbidea ditu iparraldean eta autobidea hegoaldean. Industria erabileraren nagusitasunari kontrajarriz, aipatzekoa da mendebaldeko muturrean Centro de Estudios Integrado (CEI) –Unibertsitate Laboral zaharra– ezarri dela, udalean eta eskualdean garrantzi handia duen ikasketa ekipamendua. Era berean, “Lambretta” eraikina eraikin batez ere komertzial bilakatu da eta Torrekua osasun etxea ezarri da auzoaren ekialdeko muturrean.

Auzoak duen funtsezko arazoetako bat bide sarearen bilbadura eskasa da, ibilgailuen zirkulazioa Otaola eta Torrekua kaleetan bideratzen baita batez ere, eta horiek beren muturretan baino ez dira elkarrekin lotzen. Bestalde, bide hauek (eta Otaolakoa bereziki), urbanizazio egoera txarrean daude eta arazoak dituzte oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazioan eta aparkalekuetan. Gainera, eraikinen atzealdean dauden zenbait enpresaren autobideranzko sarbideak zailak eta are gorabeheratsuak dira eta, hori dela-eta, kanpora proiektatzen den irudia negatiboa da eta zaildu egiten da ekonomia jarduera berritzea edo mantentzea.

Auzoa hiru area ongi bereizitan banatzen da eta 21,38 Ha-ko azalera hartzen du guztira, ordenatu beharreko hiri arearen %7,55.

Esku-hartzeko proposamenak oinarrizko irizpide eta helburu hauek erabiltzen ditu hiru area horietako bakoitzarentzat:

- 8.1 area, Unibertsitatea: egungo irakaskuntza eta bizitegiko azpiegitura finkatzea.

- 8.2 area, Otaola: nagusi diren ekonomia jarduerak finkatzea, bide sarea bilbatzea Otaola eta Torrekua kaleetako zirkulazio parasitarioa eragotziko luketen “pareak” sortuz, eta autobidearen inguruan ezarrita dauden enpresen irudia hobetzeko ahaleginean sakontzea.

Horretarako, hau proposatzen da:

- Torrekua osasun etxearen ondoko bide korapiloa finkatzea; salbuespen gisa, Barrenengua zabaldu eta zertxobait mendebaldera eramango da, sekzio zabaleko bidea izan dadin.

- Torrekua eta Otaola lotzen dituen bidean beste karril bat jartzea proposatzen da, honen eta Barrenengua, Otaola eta Torrekua artean eratzen den eremuak “hiri errotonda” handi baten funtzioa bete dezan, egungo korapiloko bihurguneak sinplifikatuz.

- Sistema orokorreko (Torrekuako osasun etxea) eta hirugarren sektoreko ekipamenduei dagozkien eraikinak eta erabilerak finkatzea. Bigarren arlo horretan, lerrokapenak berrordenatzea eta hiri hutsuneak betetzea proposatzen da, Otaolako 13 eta 15. zenbakien artean dagoen orubean eta gaur egun zerbitzu azpiegitura batek hartzen duen orubean eraikitzeko aukera emanez.

- 8.3 area, Markeskua: Armagintza Eskolak eta Markeskua Jauregiak eratzen duten irakaskuntza eta administrazioko jarduera sendotzea.

- Barrenengua Kalearen eta San Andres Pasealekuaren artean hirugarren sektore motako garapena proposatzen da, “ALFA S.A.” enpresak San Andres pasealekuan dituen egungo instalazioetan zentralitate berriko esku-hartze bat proposatuz. Esku-hartze hau Barrenengua Kalearen erdibitze eta zabaltzeari lotuta dago.

  Gaur egun, area horren azaleraren zatirik handiena (3,57 Ha, hiri arearen %1,50) “Alfa S.A.” enpresak hartzen du, Galdategi astunarekin eta ia hutsik dauden lantegi zaharrekin. Bere egoera ikusiz eta enpresako instalazioak hiri erdialdetik ateratzea komeni dela iritzirik, enpresa honek hartutako lurrak “aukerako area” gisa aurkezten dira, industria area zaharkituentzat LAJek adierazten dituzten birsortze eta eraldatzeko eragiketak egin ahal izateko eta Ego ibaia berriro agerira ateratzeko (LPPak proposatzen duen bezala), eta horrela antolamenduaren funtsezko elementu bihurtzeko.

  Aukerako baldintza hauek aprobetxatuz, Proiektu honen helburu orokorra area hori birmoldatzea da, hiri erdialdea zabaltzeko asmoz, gaur egun Toribio Etxebarria – Untzaga – Txaltxa-Zelaik osatzen duten gunea osatuko duen “zentralitate korapiloa” eratzeko. Hona hemen helburu orokor honekin proposatzen diren ekintzak:

  - Ego ibaia agerira atera eta berreskuratzea, antolamenduaren ardatz zentral bihurtuz, bere inguruan bizitegiak, zerbitzu eraikinak eta oinezkoen bideak egituratzeko.

  - Bizitegiak egiteko proposatzea, San Andres Pasealekuan dagoenari jarraipena emateko.

- Zerbitzuen garapen garrantzitsu bat aurreikustea, grabitate zentroa hiri erdialdetik mugiaraziko duen “erakarpen polo” bat eratuz.

- Ekipamendu erreserba bat egituratzea.

- Isasi Kalea, eta hedaduraz Ipurua auzoa, area zentral berri horrekin behar bezala konektatzea.

## 8.9.- Urkizu (9)

Auzo hau errebalaren jarraipen moduan garatu da eta hainbat tipologia erakusten ditu, "Orbeako dorreak" nabarmenduz

Hiru areatan banatuta dago eta bere azalera 10,98 Ha-koa da guztira, hau da, proiektu honetan garatzen den hiri eremuaren %3,88.

### 8.9.1. Urkizu (9.1)

Bittor Sarasketa, Urkizu Pasealekua eta Asua Erreka kaleek mugatutako area da.

Antolamenduko irizpide orokorrek lehendik dauden eraikuntzak finkatzean dute oinarria eta berrurbanizazioko lan jakin batzuk baino ez dira planteatzen, Bittor Sarasketa eta Urkizu kaleen arteko blokea osatzeko

### 8.9.2. Asua Erreka (9.2)

Industria alorreko erabilpenak nagusi dira egungo trenbidearen eta Saihesbidearen artean kokaturik dagoen barruti honetan, trenbide horren beraren azpiegiturak bereizten duelarik hiri gunetik. Gaur egun lotura bakarra du trenbidearen azpitik hiriko egiturekin, zabalera eta garaiera eskaseko tunel estu baten bitartez.

### 8.9.3. Karmen (9.3)

Egungo eraikinak bermatzean oinarritzen dira antolamenduaren irizpide orokorrak, eta besterik gabe berrurbanizatze lan batzuk egin eta hiri egitura Iparragirre Kalearen 11. zenbakiaren ondoren etxebizitza batzuk eraikiz amaitzea proposatzen da.

## 8.10.- Matsaria (10)

Auzo industriala da batez ere, 50. hamarkadako Eibar industrialaren ezaugarriak gordetzen dituena. Kaleak lantegien luzapen gisa erabiltzen dira, bertako jardueren karga kai gisa erabiliz, eremu osoa enpresa bat balitz bezala.

Ekonomi jarduerak garatzeak gaur egun eskatzen dituen baldintzak direla-eta, enpresa gehienak bertatik irten egin dira. Batzuetan, zabaldura bat egin behar eta bertan ezin zelako egin eta, beste batzuetan, enpresen lan oinarria eratzen duten baldintzak hobetu nahian. Horrela, lantegi batzuk baino ez dira geratzen, nahiko egoera eskasean, Matsaria Kaleko 2. zenbakian egin den azkeneko esku-hartzea salbu.

Auzo honen azalera 11,55 Ha-koa da guztira, hau da, proiektu honetan garatzen den hiri eremuaren %4,08; eta bi areatan dago banatuta.

Hauek dira area horietako helburu nagusiak:

### 8.10.1. Matsaria I (10.1)

Matsaria I auzo industriala da batez ere, izen bereko ibar estuaren gainean ezarria. Eraikinek beren tipologia moldatu behar dute, mendi hegal maldatsuek sortutako baldintza orografiko zailetara egokitu ahal izateko.

Eraikinen ("Orbea" ordeztuz, auzoaren hasieran, egin berri dena salbu) eta urbanizazioaren egungo egoerak gabezia handiak ditu. Horregatik, Proiektu honek, irizpide orokor gisa, barne erreformako hiri eragiketa bat proposatzen du, poligono industriala txukuntzeko eta irisgarritasuna eta urbanizazio eta eraikuntzako kalitatea hobetzeko.

Hiri erdialdearekiko hurbiltasunari dagozkion baldintzak ere hobetu egingo dira trenbide saihesbidea egiteko proposamenaren bidez; eta, area honen mugapen orografikoei erantzuteko, lur kontsumo handirik eskatzen ez duten balio erantsi handiko produkzio jarduerak hartuko lituzkeen eraikin bat sortzea planteatzen da. Azken batean, polo teknologiko bat sortzea proposatzen da, Plan Estrategiko honetatik sustatu nahi diren "jarduera garbi" berriak kontzentratzen laguntzeko.

Horretarako, ekintza hauek aurreikusten dira:

- Auzoa hiri eremuan integratzea, trenbidea desbideratu eta lurperatuz, gaur egun trenbideak eratzen duen hesi fisikoa ezabatzeko.

- Auzoaren iparraldean saihesbidearekin bide korapilo berri bat sortzea, auzo honetarako eta erdiko bizitegi eremurako sarbide izan dadin.

- Barne erreformako plan berezi baten bidez, antolamendu proposamen berri bat garatzea, gaur egungo urbanizazioa eta eraikuntzak hobetzeko helburu orokorrak konkretatzeko.

### 8.10.2. Matsaria II (10.2)

Sortu berri den zona bat da, erabilera industrialekoa, eta izen bereko errekak eratutako ibarrean ezarria.

Jadanik ezarrita dauden industria arloko eraikuntzak proposatutako antolamenduan integratuko dira.

Eremu honetako esku-hartzearen irizpide eta helburu nagusia industria lurzorua sortzea da, hiri eremuan gaizki kokaturik dauden industria edo enpresak hartu ahal izateko. Auzoak komunikazio sistemekiko (saihesbidearekiko bereziki) duen kokaera egokia aprobetxatuko da.

## 8.11.- Txonta (11)

Auzo hau, izen bereko ibar estuan dago kokatua eta nahasian ditu bizitegi eta industriako erabilerak, nahiz eta industriakoak gailentzen diren.

Azalera 40 Ha-koa da guztira, hau da, proiektu honetan garatzen den hiri eremuaren %2,66, eta hiru areatan dago banatuta.

Proiektu honek egiten duen proposamena auzo osoa berregokitzea da, egungo erabilera industrialak bizitegi erabilera bihurtuz, egun dauden etxebizitza eraikin guztiak ordeztuz.

Bide sistemari konponbidea emateko perimetro bide bat eratuko da: “auzo arteko” bidean hasi eta proposatutako bizitegiak inguratuko ditu, egungo kalea ibilgailu trafikoaren eta oinezkoen arteko elkarbizitza eremu bilakatuz.

Ekintza honetan, toki honetan dauden kaltetutako industria, etxebizitza eta biztanleak lekuz aldatu eta ostatu eman beharrak sorturiko arazoa konpondu beharko da.

### 8.11.1. Txonta (11.1)

Area honek Txonta eta Gisastu kaleen behealdeak hartzen ditu, oro har.

Ekintza hauek aurreikusten dira zona honetan:

- Lopezenenguako Xehetasun azterketako erabakiak gauzatzea, dokumentu horretan sartzen den jabetza pribatuko bizitegi eraikina finkatuz.

- Txonta Kalearen hasieran espazio publiko bat sortzea, auzo berrian zehar eratuko den oinezkoen ibilbidearen abiapuntu gisa, eta bizitegi eraikin bat sortzea.

### 8.11.2. Txonta II eta Txonta III (11.2 eta 11.3)

Egungo Txonta Kalean eta Gisastu Biden dauden eraikin guztiak hartzen dituzte bi zona hauek

Honakoa proposatzen da:

- “Cadenas Iris” enpresaren eta Gisastu Kalearen inguruan dauden industria motako eraikinen ordez, “auzo arteko” bidean oinarrituko diren bloke ireki motako etxebizitzak gauzatzea.
- Txonta erreka eraldatu eta antolamenduaren ardatz nagusi bilakatzea, proposatzen den espazio publikoan amaituko den oinezkoentzako pasealeku baten bidez.
- Goiko plazan ekipamendu soziokultural bat ezartzea, auzo berriaren zerbitzurako.

## 8.12.- Barrena (12)

Auzo hau hiri eremuaren ekialdeko muturrean dago. Barrena Kalearen bazterretan garatu dira eraikinak eta Ego ibaiaren ibilguaren gainean ezarrita dauden eraikinak ere badira.

Bi areatan banatuta dago eta 11,11 Ha-ko azalera du guztira, hau da, proiektu honetan garatzen den hiri eremuaren %3,92a.

### 8.12.1. Barrena I (12.1)

Zona honek Barrena Kaleko zenbaki bakoitietan dauden eraikinak hartzen ditu. Eraikin industrialak dira batez ere, azkenekoa salbu, bizitegi eraikina baita.

“Ayradurex” izenez ezagutzen den eraikina, jarduera aldaketa egin eta zerbitzu sektorean sartu da, eta gainerako eraikinetan oro har jatorrizko erabilerak mantendu dira.

Esan bezala, eraikin gehienak jabari edota jabari zor publiko hidraulikoko zonan daude.

Horregatik, honakoa planteatzen da proiektu honetan:

- Lehendik dauden eraikinak mantentzea, egungo erabilerak eta jarduerak mantentzen dituzten bitartean, baldin eta bizitegi erabilerarekin bateragarriak badira; erabilera aldaketa egiten zaienak antolamendutik kanpo geratuko dira.

Hori guztia erakunde eskudunak ezartzen dituen erabakiei kalterik egin gabe.

### 8.12.2. Barrena II (12.2)

Zona honek Barrena Kaleko zenbaki bikoitietan kokatutako eraikinak hartzen ditu. Eraikin industrialak eta bizitegi eraikinak daude nahasian.

Horregatik, hau planteatzen da proiektu honetan:

- Eraikin industrialak bizitegi erabileretarako eraldatzea.

## 8.13.- Azitain (13)

Auzo honetan hiru area sartzen dira: Azitain auzo tradizionala, Azitaingo Andre Mariaren santutegiaren inguruan garatua, Azitaingo industrialdea, eta Murrategi auzoa, “Trust Eibarrés S.A.” enpresaren instalazioak barnean hartzen dituena.

28,18 Ha-ko azalera du, proiektu honetan ordenatzen den lurzoru osoaren %9,95, eta hiru area bereizten dira.

### 8.13.1. Azitain I (13.1)

Eremu honek, funtsean, Azitaingo Industrialdearen esparrua eta Ekialdeko magalean burututako hedapenak, “Erisono”, hartzen ditu bere baitan.

Proiektu honetan area honi buruz egiten diren proposamena, eraikitako eraikin eta urbanizazioak finkatzea da, eta planteatzen den ekintza bakarra industrialdea ekialderantz hedatzea da, “Erisono” eremuaren jarraian.

### 8.13.2. Azitain II (13.2)

Area hau N-63N-634 errepideak, Ego ibaiaren ibilguak eta autobideak mugatzen dute, hiltegi zaharraren eraikina, gaur egun Lantegi Eskolaren egoitza dena barnean hartuz.

Hauek dira zona honetako proposamenak:

- Azitaingo elizaren ingurunea berrurbanizatzea, inguruan plaza bat eratuz.

- Azitaingo elizaren inguruan, Ego ibaiaren eta N-634 errepidearen artean, parke bat sortzea, horrekin batera tren geltoki bat ere ipiniz.

### 8.13.3. Murrategi (13.3)

Autobidearen hegoaldean dauden eraikuntza guztiak, “Trust Eibarrés S.A.” enpresaren instalazioak ere barne direla, sartzen dira area honetan.

Egungo eraikinen ezaugarriak zehatz-mehatz aztertu eta hasi beharreko onbideratzeak zehaztuko dituen Plan Berezi baterako uzten da eremu honen antolamendua.

## 8.14.- Apalategi (14)

Erabilera industrialeko auzo honek 2,99 Ha ditu (ordenatutako hiri arearen %1,06), eta N-634 errepidearen ertzetan dago ezarria, Ego ibaiaren ondoan.

Auzo honetan sartu dira Maltzagan dauden eraikinak.

Ez dago hiri antolamenduko proposamenik auzo honetan, Maltzagan dagoen karril parkea trenbide saihesbidearen osagarri gisa berriro zerbitzuan jartzea salbu.

## 8.15.- Sautxi

Auzo berri hau Arau Subsidiarioetako 2. Bizitegi lurzoru Urbanizagarriaren Plan Partzialari dagokio, eta hango erabakiak dokumentu honetan sartzen dira.

## 8.16.- Ibur-Erreka

Industrialde berri hau udalerriaren hego-mendebaldean dago, Eibar, Elgeta eta Zaldibar udalerrien artean. Horregatik, proposamenak ez du balio loteslerik izango udalerri horiek eta foru diputazioek onartzen duten arte.

Antolamendu proposamenari, hiru udalerrietan aldi berean bideratu den eremua garatzeko Plan Partziala erantsi zaio.

## 8.17.- Lurzoru Urbanizaezina

Arestian aipatu bezala, lurzoru klase honetan hainbat kategoria ezartzea proposatzen da; horretarako, erabilera irizpide hauek planteatzen dira:

### 8.17.1. Babes berezikoa

Kategoria hau ekosistema zaindu eta hobetzea ekarriko duen kontserbazio erregimen zorrotza sortzeko asmoz ezartzen da, biztanleen eta ingurune fisikoaren arteko kontaktua bideratzeko.

Kategoria honen barnean, aisialdi estentsiboa onartzen duten Espazio Libre eta Atsedenlekuak Lurzoru Urbanizaezinetan sartzea proposatzen da.

"EL-AR" epigrafeaz adierazitako Arrate, Kalamua eta Ixua zonak, eta Santakrutz ermitaren ingurua ere sartzen dira "Egitura Orokorra eta Organikoa"ri dagokion planoan, baita 1a, 1b, 1c eta 1d epigrafeaz adierazitako zonak ere, "Lurzoru Urbanizaezineko Kategoriak" biltzen dituen planoan.

Kategoria horretan sartu dira baita ibaiak, errekak eta hauen babes-zonak.

### 8.17.2. Ingurugiroaren hobekuntza

Balio handiagoko eremuen ondoan duten lekuagatik hobetzea berezi duten baso hondatu, sastrakadi edo bazter lurrei ematen zaie kategoria hau.

### 8.17.3. Baso lurra

Produkzioko eta babeseko zonak sartzen dira

### 8.17.4. Nekazaritzako, abelazkuntzako zona eta landazabala

Eremu honetan nekazaritza ahalmen handiena duten eta baratze lanetarako erabiliko diren (edo horretarako erabiltzeko aukera duten) lur sailak sartzen dira.

### 8.17.5. Eremu higagarri

“Eremu higagarri” bezala definitu diren eremuetan sartzen diren lur sailak hala definitzen dituen baldintzaren mende daude; izaera hori, hain zuzen, orain arte azaldu diren ordenamendu kategoriei gehitzen zaie eta, hala, lur sail horietan, berez duten arriskuagatik, zenbait jarduera mugatzen ditu. Beren litologiaren eta erliebe ezaugarriengatik, Nekazaritza eta Basogintzako eta Ingurumen Naturaleko Lurraldeko Plan Sektorialeko Higadura Eredua aplikatuta ateratako emaitzen arabera higadura izateko arrisku handia duten eremuak sartu dira kaegoria honetan.

# 9.- PLANAREN GARAPENA ETA EGIKARITZEA

## 9.1.- Irizpide eta Helburu Orokorrak

Dokumentu honetan agertzen diren antolamendu proposamenek hainbat arlo azpimarratzen dituzte, hala nola, lurzorua kalifikatu eta sailkatzea, ekintzak programatu eta ekonomikoki baloratzea, egin behar diren inbertsioen izaera publiko edo pribatua zehaztea, eta abar.

Ildo honetatik, indarrean dagoen hirigintza legeria da nahitaezko erreferentzia markoa.

Lurzoruaren kalifikazioari edo erabileraren definizioari edo xedeari buruzko erabakiak nahikoa aipatu eta azaldu dira aurreko epigrafean zehar.

Gainerakoek gogoeta berezia eskatzen dute, bakoitzaren irizpide orokorrak justifikatu eta argitzeko, besterik ez bada ere. Honako alderdiak bereziki kontuan hartuko dituen gogoeta:

- Lurzoruaren sailkapena.
- Mugatu eta definitzeko irizpideak, Hiri-lurzoruari, Lurzoru Urbanizagarriari edo Lurzoru Urbanizaezinari dagokienez.
- Plan Orokorreko garapen aurreikuspenak. Hala dagokionean, garapen planeamenduak formulatzeko irizpideak.

## 9.2.- Lurzoruaren sailkapena

Indarrean dagoen hirigintza legerian ezarritakoaren arabera, legez bereizitako hiru kategorietan sailkatzen dira lurrak: Hiri-lurzorua, Urbanizagarria eta Urbanizaezina.

Proposatutako sailkapenaren oinarri gisa erabiltzen diren funtsezko erreferentzia irizpideak hauek dira:

- Hirilurra: egungo errealitate fisiko eta urbanistikoaren arloan, bai hirigintzari dagokionez bai eraikuntzari dagokionez indarrean dagoen hirigintza legeriak ezartzen dituen eskakizun eta baldintzak betetzen dituzten lurrak.

- Lurzoru Urbanizagarria: hiri-lurzoru gisa definitzeko baldintzak izan gabe, egungo eta etorkizuneko garapen aurreikuspenetan sartzen diren lurrak.

- Lurzoru Urbanizaezina: bere ezaugarriengatik, bertan paisaiak, nekazaritzak eta abelazkuntzak, basogintzak edo babes bereziko beste zerbaitek duen balioarengatik, edota proiektu honetan finkatu den hiri ereduaren arabera hiri garapenik egiteko baldintzarik ez dutelako, hiri garapenetik babestuta utzi behar diren lurrak.

O-CL-01 Planoan: Lurzoruaren sailkapena eta hiru lurzoru klaseen mugak irudikatzen dira; azalerak koadro honetan azaltzen dira:

**LURZORU SAILKAPENAREN AZALERA KOADROA**

| KODEA | LURZORU MOTA | AZALERA (m2) | % |
|---|---|---|---|
| SU | HIRILURRA | 2.023.210 | 8,18 |
| SUB | LURZORU URBANIZAGARRIA | 216.016 | 0,87 |
| SNU | LURZORU URBANIZAEZINA | 22.503.482 | 90,95 |
| UDALERRIA GUZTIRA | | 24.742.708 | 100,00 |

## 9.3.- Kalifikazio Orokorra Eta Xehekatua

Proiektu honetan, Hiri Proiektua egituratzen duten zona desberdinak ezartzeko erabiltzen den kalifikazio orokorra zehazten da.

Oro har, hauek dira kontsideratzen diren kalifikazio orokorrak:

## KALIFIKAZIO OROKORREKO AZALERA KOADROA

| KALIFIKAZIO OROKORRA | AZALERA (m2) |
|---|---|
| KOMUNIKAZIOAK | **2.798.394** |
| ZERBITZU AZPIEGITURA | **33.840** |
| EKIPAMENDUAK | **289.959** |
| HIRI ETA ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK | **181.565** |
| ESPAZIO LIBREAK | **3.379.576** |
| BIZITEGIAK | **999.564** |
| EKONOMIA JARDUERAK | **673.420** |
| IBILGUEN | **809.993** |
| NEKAZARITZA, BASO ZAITNZA ETA ABERE ZAINTZA | **15.576.397** |
| **GUZTIRA** | **24.742.708** |

Kalifikazio xehekatuari dagokionez, erabilera bateragarritasuna ezartzeko matrize bat garatzea proposatzen da, indarrean dagoen ekonomia jardueren zergan ezarritako erabileren egituratik abiatuz.

### 9.4.- Plan Orokorraren garapena. Zuzenean Burutzeko Alorrak eta Garapen Planeamendua

Aipatu bezala, Proiektuaren edukia eta kontzeptu adierazpena behar bezala sistematizatzeko, hainbat eremutan banatu da udalerri osoa.

Area hauen mugak ezartzeko irizpideak, indarrean eta tramitatzen dagoen planteamendutik eta Proiektuan aurreikusten diren garapen proposamenetatik eratorriak dira, eta horien artean, beharrezko garapen planeamenduaren formulaziotik. Horrela, kasu batzuetan, indarrean (egikarituta edo egikaritzeko fasean) eta tramitazioan dauden planteamenduan biltzen diren erabakiak finkatzen dira. Beste batzuetan, beharrezko garapen planeamendua formulatzea proposatzen da, xehekatutako antolamendua definitzeko.

Horretarako, bereizi egin behar dira Proiektu honetan berehalako egikaritza ezartzen zaien eremuak eta garapen-planteamenduaren formulazioa eskatzen dutenak. Lehenengoak Hiri-lurzoruari dagozkio soilik: esleitutako kalifikazio orokor eta xehekatutakoetatik abiatuz, Proiektu honetan aurreikusitakoa berehala egikaritzea proposatzen den Areak dira. Aurreikuspen horiek Xehetasun azterketa baten bidez alda daitezke, tresna horri ezartzen zaizkion mugen barnean betiere.

Bigarrenak Hiri-lurzorukoak, Urbanizagarriak nahiz Urbanizaezinak dira: esleitutako kalifikazio orokorretatik abiatuz, garapen planteamendu bat (Plan Partzial edo Berezia) formulatzea eskatzen duten areak dira, xehekatutako antolamendua definitu ahal izateko.

Lurzoru Urbanizaezina: Lurzoru Urbanizaezineko beste zenbait lekutan ere beharrezkoak izan daitezkeen arren, Plan Bereziak formulatu eta onartu behar dira zona hauetako bakoitzerako:

- Altamira
- Arrate
- Ixua
- Kalamua

************************************

Lan hau Eibarko Udalak osatu duen Plan Nagusiaren Bulegoak egin du. ondorengo lantalde honek osatzen du Bulego hori:

LANTALDEA:

ZUZENDARITZA
Ignacio de la Puerta Rueda, arkitektoa (P.N.B.ko zuzendaria)

IDAZLE TALDEA
Ana Mª Ardanza Velar, arkitektoa
Marta Uriarte del Rio, arkitektoa
Iñaki Azkue Landa, informatikaria
Jon Orue-Etxebarria Iturri, abokatua
Lukene Aranzabal Díez, delineatzailea
Amaia Arregui Fernández, bulegaria

Plan Nagusiaren lehen idaztaldian, ondorengo teknikari hauek ere parte hartu zuten: Roberto García Aizpiri, arkitektoa; Ana Mª Ezeiza Agirre, arkitektoa; Loly Sierra Agüero, geografialaria; Begoña Azpiri Eguren, itzultzailea; Loli del Hoyo, delineatzailea; Sergio Cuesta, delineatzailea; Iñigo Urbistazu, delineatzailea.

KANPOKO LANGILEAK:
Ingecon, Ingeniería del Conocimiento S.A. Plan Estrategikoa
Beatriz Herreras Moratinos eta Gorka Pérez de la Peña. Kultura Ondarearen Katalogoa
Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. Itzulpena.
Ekolur, Asesoría Ambiental S.L.L. Ingurumen Erasoaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa
Leber, Planificación e Ingeniería S.A. Trafikoaren azterketa

Eta gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Eibarko Udaletxeko Hirigintza Batzordeko kide guztiei, eta orobat Plan hau bideratzeko eratu diren lantaldeetan parte hartu duten pertsona guztiei.

Eibar, 2007ko otsaila

## 1 ERANSKINA : BIZITEGITARAKO JARDUKETA BERRIEN PROPOSAMENEI DAGOKIEN KUANTIFIKAZIOA JASOTZEN DA

| AMBITOS DE GESTION | EXISTENTES | | PROPUESTA | | | | | | CRECIMIENTO | RESERVA S/L 17/94 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | V.P.O. | | LIBRE | | TOTAL | | | |
| | nº viviendas | superf. Resid. | nº viviendas | superf. Resid. | nº viviendas | superf. Resid. | | | | |
| ARTEGIETA 3-5 | 0 | 0 | 9 | 910 | 0 | 0 | 9 | 910 | 9 | |
| ASOLA-IGARTZA 1-3-5 | 11 | 621 | 0 | 0 | 18 | 1.795 | 18 | 1.795 | 7 | |
| GARAJES ARTEGIETA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| ASOLA_IGARTZA | 0 | 0 | 81 | 8.146 | 0 | 0 | 81 | 8.146 | 81 | 16 |
| ARANE-URTZAILE | 20 | 1.883 | 0 | 0 | 47 | 4.729 | 47 | 4.729 | 27 | |
| SOSTOA-TARREN 14 | 0 | 0 | 0 | 0 | 18 | 1.815 | 18 | 1.815 | 18 | |
| UBITXA 8-10-12-14 | 15 | 1.131 | 0 | 0 | 42 | 4.198 | 42 | 4.198 | 27 | |
| UBITXA 13-15 | 8 | 600 | 0 | 0 | 16 | 1.561 | 16 | 1.561 | 8 | |
| PLAN ESPECIAL BLAS ETXEBARRIA 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 80 | 8.033 | 80 | 8.033 | 80 | 16 |
| PLAN ESPECIAL ESTAZIÑO | 10 | 498 | 0 | 0 | 45 | 4.486 | 45 | 4.486 | 35 | |
| IBARGAIN | 1 | 176 | 0 | 0 | 53 | 5.252 | 53 | 5.252 | 52 | |
| FERMIN CALBETON 11 | 7 | 619 | 0 | 0 | 12 | 1.200 | 12 | 1.200 | 5 | |
| BITTOR SARASKETA 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 33 | 3.312 | 33 | 3.312 | 33 | |
| BITTOR SARASKETA 9 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| ERREKATXU | 43 | 3.111 | 0 | 0 | 136 | 13.576 | 136 | 13.576 | 93 | 19 |
| PLAN ESPECIAL TXONTA | 215 | 16.476 | 88 | 8.843 | 961 | 96.062 | 1.049 | 104.905 | 834 | 167 |
| IPARRAGIRRE 10 | 0 | 0 | 35 | 3.548 | 0 | 0 | 35 | 3.548 | 35 | |
| JARDIÑETA | 0 | 0 | 48 | 4.836 | 0 | 0 | 48 | 4.836 | 48 | |
| LEGARRE-GAIN | 0 | 0 | 51 | 5.106 | 0 | 0 | 51 | 5.106 | 51 | |
| SOSTOA 9-11-13 | 9 | 778 | 0 | 0 | 36 | 3.555 | 36 | 3.555 | 27 | |
| ARRAGÜETA 9-11-13-15-17-19-21-23 | 39 | 2.698 | 0 | 0 | 58 | 5.806 | 58 | 5.806 | 19 | |
| UBITXA 24 | 0 | 0 | 42 | 4.223 | 0 | 0 | 42 | 4.223 | 42 | |
| PLAN ESPECIAL MURRATEGI | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| ERREBAL | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| MEKOLA 4 | 1 | 433 | 0 | 0 | 15 | 1.462 | 15 | 1.462 | 14 | |
| AZITAIN BIDE 2B | 0 | 0 | 41 | 4.050 | 0 | 0 | 41 | 4.050 | 41 | |
| JARDIÑETA 34 | 0 | 0 | 0 | 0 | 26 | 2.573 | 26 | 2.573 | 26 | |
| OTAOLA 10-12-14-14BIS-16 | 4 | 552 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | -4 | |
| PLAN ESPECIAL MATSARIA | 23 | 1.928 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | -23 | |
| **TOTAL RESERVA EN SUELO URBANO** | **406** | **31.504** | **397** | **39.661** | **1.594** | **159.415** | **1.991** | **199.077** | **1.585** | **218** |
| SECTOR EGAZELAI | 1 | 85 | 52 | 5.168 | 35 | 3.462 | 86 | 8.630 | 85 | 56 |
| SECTOR BOLINGUA | 11 | 1.009 | 114 | 11.400 | 103 | 10.297 | 217 | 21.697 | 206 | 141 |
| **TOTAL RESERVA EN SUELO URBANIZABLE PROGRAMADO** | **12** | **1.094** | **166** | **16.568** | **138** | **13.759** | **303** | **30.327** | **291** | **197** |
| **TOTAL** | **418** | **32.598** | **562** | **56.230** | **1.732** | **173.174** | **2.294** | **229.404** | **1.876** | **415** |

## 2 ERANSKINA: BANAKETA EREMUEN KOADROA

AREAS DE REPARTO

| CODIGO | | | DENOMINACION | SUPERFICIE (m²s) | | APROV.TIPO At (m²c uso carac./ m2s) | USO CARACT. | SUPERFICIE (m²) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sunc | AR | 105 | ARTEGIETA 3-5 | 388 | | 3,58 | Vivienda VPO | 388 | |
| Sunc | AR | 106 | ASOLA_IGARTZA 1-3-5 | 1.041 | | 2,57 | Vivienda Libre | 1.041 | |
| Sunc | AR | 107 | GARAJES ARTEGIETA | 1.896 | | 2,62 | Garajes | 1.896 | |
| Sunc | AR | 108 | ASOLA_IGARTZA | 5.561 | | 2,46 | Vivienda VPO | 5.561 | |
| Sunc | AR | 109 | ARANE-URTZAILE | 7.784 | | 1,20 | Vivienda Libre | 7.784 | |
| Sunc | AR | 112 | SOSTOA-TARREN 14 | 1.142 | | 3,24 | Vivienda Libre | 1.142 | |
| Sunc | AR | 115 | UBITXA 8-10-12-14 | 2.359 | | 5,07 | Vivienda Libre | 2.359 | |
| Sunc | AR | 116 | UBITXA 13-15 | 962 | | 4,00 | Vivienda Libre | 962 | |
| Sunc | AR | 117 | BLAS ETXEBARRIA 3 | 3.783 | | 3,61 | Vivienda Libre | 3.783 | |
| Sunc | AR | 118 | PLAN ESPECIAL ESTAZIÑO | 2.873 | | 2,23 | Vivienda Libre | 2.873 | |
| Sunc | AR | 119 | IBARGAIN | 2.302 | | 3,31 | Vivienda Libre | 2.302 | |
| Sunc | AR | 120 | FERMIN CALBETON 11 | 486 | | 3,72 | Vivienda Libre | 486 | |
| Sunc | AR | 121 | BITTOR SARASKETA 1 | 1.468 | | 3,41 | Vivienda Libre | 1.468 | |
| Sunc | AR | 122 | BITTOR SARASKETA 9 | 920 | | 3,90 | Terciario y Usos Compatibles | 920 | |
| Sunc | AR | 124 | ERREKATXU | 9.883 | | 2,93 | Vivienda Libre | 9.883 | |
| Sunc | AR | 125 | PLAN ESPECIAL TXONTA | 140.601 | | 0,87 | Vivienda Libre | 140.601 | |
| Sunc | AR | 126 | IPARRAGIRRE 10 | 3.923 | | 1,45 | Vivienda VPO | 3.923 | |
| Sunc | AR | 129 | JARDIÑETA | 5.000 | | 1,82 | Vivienda VPO | 5.000 | |
| Sunc | AR | 130 | LEGARRE-GAIN | 2.170 | | 5,27 | Vivienda VPO | 2.170 | |
| Sunc | AR | 131 | SOSTOA 9-11-13 | 2.328 | | 3,21 | Vivienda Libre | 2.328 | |
| Sunc | AR | 132 | ARRAGÜETA 9-11-13-15-17-19-21-23 | 2.125 | | 3,87 | Vivienda Libre | 2.125 | |
| Sunc | AR | 135 | UBITXA 24 | 3.564 | | 1,90 | Vivienda VPO | 3.564 | |
| Sunc | AR | 136 | PLAN ESPECIAL MURRATEGI | 8.992 | | 0,00 | Vivienda Libre | 8.992 | |
| Sunc | AR | 137 | ERREBAL | 5.005 | | 2,94 | Terciario y Usos Compatibles | 5.005 | |
| Sunc | AR | 139 | MEKOLA 4 | 2.430 | | 1,20 | Vivienda Libre | 2.430 | |
| Sunc | AR | 140 | AZITAIN BIDE 2B | 6.005 | | 1,99 | Vivienda VPO | 6.005 | |
| Sunc | AR | 141 | JARDIÑETA 34 | 662 | 225.654 | 5,56 | Vivienda Libre | 662 | 225.654 |
| Sunc | AR | 203 | OTAOLA 10-12-14-14BIS-16 | 5.691 | | 2,63 | Actividad Económica | 5.691 | |
| Sunc | AR | 207 | PLAN ESPECIAL MATSARIA | 48.375 | 54.066 | 1,90 | Actividad Económica | 48.375 | 54.066 |
| CODIGO | | | DENOMINACION | SUPERFICIE (m²s) | | APROV.TIPO At (m²c uso carac./ m2s) | USO CARACT. | SUPERFICIE (m²) | |
| Subd | AR | 1C | PRIMER CUATRIENIO | 49.269 | | 2,16 | Vivienda VPO | 49.269 | |
| Subnd | AR | 2C | SEGUNDO CUATRIENIO | 134.718 | | 0,46 | Actividad Economica | 134.718 | |
| Subnd | AR | PAU 101 | ARRAJOLA | 32.219 | 216.205 | | Vivienda VPO | 32.219 | 216.205 |

# 3 ERANSKINA: EIBARKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN ERAGINARI BURUZKO AURRETIAZKO TXOSTENA.

Garapen Eramangarrirako Departamentua
Departamento para el Desarrollo Sostenible
EIBARKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE EIBAR
ERREGISTRO OROKORRA / REGISTRO GENERAL
2004 API. ABR. 16
SARRERA ENTRADA Zenb. 2194 N.º
IRTEERA - SALIDA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
2004 API. ABR. 14
Zk. / N.º 1998

JP/la

10-OF.30-MA/04

Garapen Eramangarrirako foru diputatuak, ondorengo Foru Agindua eman du:

**"Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Ingurumen Eraginari buruzko Aurretiazko Txostena.**

1998ko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoak, 41. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, eta 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuaren, ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duenaren, 3. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren dagokion prozeduraren pean jarri behar dira derrigorrez.

Era berean, aipatutako 183/03 Dekretuaren 5. artikuluaren eta 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Legearen 44.2 artikuluaren arabera, eta 1998ko uztailaren 28ko 68/98 Foru Dekretua eta 2003ko uztailaren 29ko 85/03 Foru Dekretua kontuan hartuta, planaren onespenerako funtsezko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dagoen kasuetan, aldez aurreko txostena eta ingurumen eraginaren behin betiko txostena prestatzeko organo eskuduna aipatutako foru administrazioko Garapen Eramangarrirako Departamentua da.

Aurretik azaldutako guztia dela eta, eta 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuaren 18. artikuluan aurreikusitakoa betez, honako hau

**EBAZTEN DU**

**Lehenengo**.- Ingurumen eraginaren aldez aurreko txosten hau argitara ematea, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenari buruz.

**Bigarren:** Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapena berrikusi eta sakontzeko prozesuan, administrazio tramitazioari lotutakoa (hasierako onespena, behin-behinekoa eta behin betikoa), ingurumen eraginaren aldez aurreko txosten honetatik ondorioztatzen diren ingurumen zehaztapenak kontuan hartuko dira, ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren azterketatik ondorioztatuez gain. Ahal den guztietan, ingurumen zehaztapen horiek guztiak indarrean dagoen legeriak exijitzen dituen plangintza dokumentuen dagozkien ataletan jaso eta espresuki tartekatuko dira (memoria, informazio eta antolakuntza planoak, hirigintza arauak, jardun programa,

El Diputado Foral de Desarrollo Sostenible, con fecha de hoy ha dictado la siguiente Orden Foral:

**"Informe Preliminar de Impacto Ambiental del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar.**

